

JUAN MARI LEKUONA
HURBILETIK
(1927-2005)



Juan Mari Lekuona

JUAN MARI LEKUONA HURBILETIK
(1927-2005)



JUAN MARI LEKUONA HURBILETIK

(1927-2005)

Egileak:

Xabier Lete
Gorka Aulestia
Anjel Lertxundi
Pello Esnal
Jean Haritschelhar
Ana Maria Toledo
Jon Kortazar
Joxe Auxtin Arrieta
Lourdes Otaegi

Edizioaren koordinatzailea:

Lourdes Otaegi



OIARTZUNGO
UDALA



EUSKALTAINDIA

Oiartzun 2008

Esker ematea

Liburu honen argazki horniketarako iturriak izan dira, alde batetik, Euskaltzaindiko fototeka eta *El Diario Vasco* egunkaria, J. M. Mujikaren eskuzabaltasunari esker; bestetik, senide eta lagun bilduma partikularrak, hala nola, Primitiva Lekuona, Mañoli Zapiain eta Gorka Aulestiarena. Azkenik, argazkiei buruzko argibideak eman dituzten senide, lagun, herritar eta erakundeetako lankide guztiei eskerrik beroenak.

Ale kopurua: 1.000

Argitaratzailea: Oiartzungo Udala, Kultura Batzordea

© Oiartzungo Udala

© Euskaltzaindia

Egileak: Xabier Lete, Gorka Aulestia, Anjel Lertxundi, Pello Esnal, Jean Haritschelhar, Ana Maria Toledo, Jon Kortazar, Joxe Auxtin Arrieta, Lourdes Otaegi.

Edizioaren koordinatzailea: Lourdes Otaegi.

ISBN 978-88917-23-2

L.G.: SS-1137/2008

Inprimategia: Imprenta Lan, S.L. Leku-Berri, 9. Oiartzun.

AURKIBIDEA

Agurra. <i>Idurre Bera Agirre</i>	9
Juan Mari Lekuona eskaintza. <i>Literatura Ikerketa Batzordea</i> . . .	11
JUAN MARI LEKUONA GERTUKO ERRETRATUAK.	15
I. Juan Mari Lekuona, maisu eta lagun. <i>Xabier Lete</i>	17
II. Juan Mari Lekuona gogoan. <i>Gorka Aulestia</i>	35
III. Juan Mariren eskolan. <i>Anjel Lertxundi</i>	63
IV. Juan Mari Lekuona, bertsozale eta bertsolaritzaren eragile. <i>Pello Esnal</i>	81
JUAN MARI LEKUONAREN BIZITZA IBILBIDEA IRUDITAN (1927-2005)	95
JUAN MARI LEKUONA LITERATURA IKERLE ETA POETA	97
V. Juan Mari Lekuona euskaltzain. <i>Jean Haritschelbar</i>	101
VI. Euskal Literaturaren aztertzailea. <i>Ana Maria Toledo</i> . . .	113
VII. Poeta da gaur mintzo zaizuen. <i>Jon Kortazar</i>	131
VIII. Ene mundu estetikoaz. <i>Juan Mari Lekuona</i> , Bizkaiko Derioko hitzaldia, 1983	143
IX. Juan Mari Lekuonarekin solasean. <i>Joxe Auxtin Arrieta- Juan Mari Lekuona</i> , 1988	163
X. Epilogo. <i>Lourdes Otaegi</i>	179
XI. Juan Mari Lekuonaren bibliografia. <i>Lourdes Otaegi</i> . . .	185

AGURRA

Apaiza, idazlea, irakaslea... baina batez ere poeta. Makina bat arlo eta lanetan aritutakoa da Juan Mari Lekuona; itzulpengintza, teologia, poesia, ahozko literatura...

Txiki txikitatik bizi izan zituen bertso zaharrak eta ahozko kultura orokorrean Berin-Berri baserriko sutondoan; giro euskaltzale eta fededunean hazi eta hezi zen Juan Mari eta bere bitzitza osoan egindako ibilbideak agerian utzi du honen guztiaren eragina.

Oiartzunen jaio, Gasteizen apaiz ikasketak burutu, Erroman teologia izpirituala ikasi, Portugalen bere tesia prestatu, Añorgan apaiz, Donostiako Deustuko Unibertsitatean irakasle, Euskaltzaina... Agerikoa da erabat, Juan Mari Lekuonaren ibilbidearen oparotasuna, baita ibilbide horretan egin eta argitaraturiko lanak ere; poema liburuak, itzulpenak, ahozko euskal literaturari buruzko lanak...

Lourdes Otaegik, Euskaltzaindiko Literatur Batzordeko ki-deak, koordinatu eta zuzendu duen liburu honetan Juan Mari eza-gutu eta mirestu duten hainbat pertsonak hartu dute parte. Ibilbide luze eta oparo horretan hainbat idazle, poeta, abeslari, Euskaltzain eta abarrekin aritu zen Juan Mari Lekuona elkarlanean eta horietako batzuk dira hain zuzen ere, liburu honetako pasadizoak idatzi eta omenaldi gisa, Juan Mariri eskaini dizkiotenak. Besteak beste, Xabier Lete, Anjel Lertxundi, Gorka Aulestia, Jean Haritschelhar, Ana Toledo, Pello Esnal, Jon Kortazar, Joxe Auxtin Arrieta eta Lourdes Otaegi bera, lan hau guztia zuzendu duena. Guztiei eskerrik beroena Oiartzungo herriaren izenean.

Lan bikain honek balio beza Juan Mari Lekuona hain eza-
guna izan ez duten belaunaldi gazteenen artean ezagutarazteko eta
orokorrean, gure kulturaren oinarri sendoenetakoa den eta Juan
Marik berak hain maite zuen ahozko tradizioa zabaltzeko eta mai-
tatzeko.

Idurre Bera Agirre
Kultura batzordeburu

JUAN MARI LEKUONA

(1927-2005)

Eskaintza

Juan Mari Lekuona poetak testu gogoangarriez entzunarazi du bere barneko ahotsa. Euskal literatura zaleek ezin ederrago iritzi diote bere poesiari eta abeslariantzat nahiz entzuleentzat guztiz iradokitzaile gertatu da. Arrunt ezagunak dira ahozko literaturaren arloan egin zituen azterketak eta ekarpen ezin utzizkoa dira euskal ikasketa sistematizatuaren esparruan. Bestalde, euskal olerkigintzaren ikertzaile gisa ere nabarmendu da eta haren iruzkin eta aitzin-solasetan, edonork nabarmendu ditzakeen argitasuna, oreka eta xarma agertzen dira irakurlearen begietan.

Euskaltzaindiaren Literatura Batzordeak lerro xume hauen bidez gorazarrea eskaintzen dio Juan Mari Lekuonari, batzordekide garen gehienok haren esku xeratsuak lagunduta hurbildu baikara euskal literaturaren esparrura, liburu honetan idaztera gonbidaturiko idazleek ere aitortu izan duten bezala.

Haren lanez eta aholkuez baliatu garen guztiontzat eduki duen eskuzabaltasuna gogoratu nahi dugu hemen ikasle, lankide eta lagunok, eta, horretarako, haren oroitzapena hutsean gal ez dadin, hurbileko erretratuak perfilatu, ikuspuntu ezberdinetatik hartuta: biografikoa, euskaltzalea, poetikoa, bibliografikoa...

Aieka askotatik eta arrazoi gehiagorengatik miresten dugu Juan Mari Lekuonaren ikerlana eta sorkuntza literarioa, baina oroz gaitetik estimatu dugu egiten zigun harrera gozoa inguratu gintzaiz-

kion guztian. Honako lerro apalon bidez esker emate egiaia eta eskaintza bihotzetikoa egiten diogu.

Izan ere, Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa Batzordea 1992an sortu zen Juan Mari Lekuonaren proposamenez eta bera izan da batzordeburu 2005 arte. Honako liburutxo hau batzordeko kideok egiten diogun omenaldia da, sorterri maitea zuen Oiartzun herriko udalaren laguntzaz argitaratua.

LITERATURA IKERKETA BATZORDEA

DONOSTIA, 2007

ENE ESKUA

(E. Txillidaren litografiak gogoan)

Ene eskua
eskultura bat da mitoz betea,
kiromantziaren jakinduri bidea.

Ene eskua,
fetitxe xanpala
burilez marraztua.
Bizi beharraren historia apala
bera,
erretaula guziz irregularrean kontatua.

Adierazgarria zait
esku zabalaren agiriko mezua:
arraiez,
zirriborro zaintsuez damait
odolaren ozkek grabaturiko enigma.
Bertan sinboluz dagerkit
ene lehenaren eta etorkizunaren
orain-oraingo kartografia ezkutua.

Osasunaren luze-laburra dakar,
biziarena dioten zantzu bihurri sakona
-batzuentzat txarra,
besteentzat ona-.
Buruaren eta bihotzaren lerroak
berekini ditu,
ene aldartearen hotz-beroak.

Izarrek utziriko
diamantezko silua dirudi;
gaudiaren altzotik datorkigun eragina,
oroskopoen kinu sargarriz
urruneko mintzoa haragi egina.

Liburu batena bezain argia da
ene eskuko orriaren jeroglifikoak:
ene birtutearen aberetasuna,
ene bizioen aingerukeria.
Hain dira desberdin
besteek nitaz uste dutena
eta ene eskuok dioena!

Ene espirituaren argazkia dut,
ene materiaren aurpegia.

Ona bezain txarra,
txarra bezain ona:
Kategoria arruntagoetan
neurtzen du gizona.

Ez da hertzainen fitxa higitzailea,
ez da elizgizonen iritzia,
ez da jendeak nitaz dioena.

Esku hau
sakoneko klabe bat dut:
jaiotza, poza;
atsekabea, heriotza;
maitasuna,
lana,
osasuna ...

**JUAN MARI LEKUONA
GERTUKO ERRETRATUAK**



Oiartzungo plazaren sarrera guda aurretik.



San Juan kalea (1940).

I

JUAN MARI LEKUONA, MAISU ETA LAGUN

Xabier Lete

Lekuonatarren etxean, han Oiartzunen, sosegu handia zegoen. Horretaz oroitzen naiz. Eta gaurtik begiratuta harrigarria gertatzen zait, izan baitzitekeen oso bestela. Juan Marirekin harremanak eta solasak edukitzen hasi nintzen lehen urte haietako une batean aitoren bat egin zidan, oso serio: gerla osteko igande goiz hurbil batean izugarrizko asaldapena eta izua nabaritu zituela, herriko plazan Karlisten kontzentrazio erraldoi bat ikustean. Urte haietan, Tradizioaren Martiriak deitzen ziren, eta beraien martiritza era erronkatsu bezain patetikoan agerrarazten zuten, urtero herri eta leku desberdinetan, beraien zapel gorriak, dominak eta erreketek jantziak eguzkitara aterez. Egia esan, gerla ostea, ni nerabe nintzela, inauteri baten tankerakoa zen, dena mozorrokeriaz hornitua, hornidura haien atzean eguneroko bizitza gris eta denontzat berdi-

na baizik ez bazegoen ere; miserableen ilusioak, nire aitak esaten zuen bezala.

Juan Mariri galdetu nionean ea zergatik asaldatu zuen ikuskizun hark, erantzun zidan gerlaren lehen egunetako oroigarri zahar eta txarrak berritu zizkiola Karlisten maskaradak. Gerora jakin nuen hogeita hamaseiko uztailaren azken egunetan Juan Mariren osaba Julian Lekuona, detenitua nonbaitera zeramatenean, nehoiz gehiago ez agertzeko, bere iloba izan zela azkeneko aldiz Oiartzungo plazan hura ikusi zuena.

Bai, Lekuonatarren etxean sosegu haundia zegoen, eta diskrezio berdina. Eta ez zen izango haserretuta eta liskartuta bizitzeko motiborik ez zutelako. Lekuonatarren bi osaba izan ziren afusilatuak; Martin Lekuona, Erreterian apaiz zegoena eta Julian, pertsona baketsu eta inolako lehentasunik gabea, bere etxetik udaletxera igoarazi zutena gehiago ez itzultzeko. Hainbatetarainokoa zen Lekuonatarren etxeko diskrezioa, nik ez bainuen jakin oso gerora arte bi osaba zirela gerlan akabatuak, eta ez Martin apaiza soilik, beti uste izan nuen bezala.

Nire nerabezaroan, Oiartzunen apaizgai mordoia zegoen, ia denak Elizalde auzokoak, hau da, *kalekuak* han esaten zen bezala. Ni familia abertzale eta katoliko batekoa nintzen, osaba bat ere bainuen apaiz, eta gonbidatua izaten nintzen, noizbehinka, apaizgaiak bisitatzeraz Donostiako apaizgaitegira, bereziki Julen Lekuona, adinez ni baino urte batzuk helduagoa, baina oso amultsuki hartzen ninduen. Horren ondorioz, adiskidetasun leiala eta oso pedagogikoa sortu zen bion artean, nik erreferentzia eta irakaspen asko jasotzen bainuen berarengandik.

Julenen bitartez hasi nintzen ni Lekuonatarren etxean sartzen, goiko kaleko etxe erpin hartako bigarren solairuan. Eta beti oso ongi sentitu nintzen, goxoki onartua. Urte haietan, Juan Mariren nortasuna pixka bat mitikoa zen, osaba Manuelena zen bezalaxe. Don Manuel Lekuona gerla urteetan Lasarteko Brigidetan kapilau izan zen, erdi-ekzutuan bizituz. Gero Calahorrako gotzaitegian ba-



*Juan Pablo Arregi, Fausto Goldaraz, Xixario Zalakain, Xabier Lete eta Julen Lekuona
(1960~).*

bestu zuten, zenbait urtez. Gure urte haietan Andoainen bizi zen, Arregitarrekin, eta herrira oso bakan agertzen zen. Haren bizimodua, beraz, pixka bat urruna zen herritarrentzat.

Juan Mari denek hurbilago sentitzen genuen, hala ere, Juan Mari, behin apaiztuz gero, ez zen Oiartzunen asko bizitu. Lehenik Erromara alde egin zuen, teologia ikastera eta doktorantza egitera;

gero, Añorgan egon zen apaiz, eta geroago Donostiako apaizgaitegian irakasle. Beraz, beti pixka bat urrun zegoen gure eguneroko bizilekuetatik.

Baina apaizen joan-etorriak oso normalak izaten ziren, batez ere behin apaizten zirenean. Destinoa ematen zieten, eta behin destinoa hartuz gero apaizgai denboretako presentzia amaitu egiten zen. Bazen egun bat, urterokoa, apaizgaien bizitzan oso berezia, abenduaren zortzian Maria Sortzez Garbiarena, hau da, *Kontzeziyo* eguna. Egun haietan Seminarioa ospatzen zen, eta apaizgai denak herrira etortzen ziren, ez ikasleen jantzi normalekin, apaizen sotanaz baizik, gainetik beka gorri bat zeramatela.

Baina gero, benetan apaiz egitean eta meza berria ematen zutenean, herrietan beti oso handia eta gogoangarria izaten zen igandereren batean, destinoa ematen zieten eta herritik desagertzen ziren. Batzuek suerte hobea izaten zuten, eta Erromara teologia ikasketak zabaltzera bidaltzen zituzten; baina gehienek lehen destinoa Gipuzkoako herri txikiren batean izaten zuten: Ataungo Aia, Elkano, Garin eta horrelako tokietan. Antza denez, Eliz Barrutiak orain baino apaiz ugariago zuten, eta orduko gotzain tradiziozale haiek, Font i Andreu, Bereziartua, Argaia, ez zuten nahi izaten beren apaiz gazteak herri *handietako* modernitatearekin kutsa zitezen.

Andoni Lekuonak ere lortu zuen, herri txiki batetik pasa ondoren, Parisera soziologia ikastera aldegitea; baina Julen Aizpurutxora destinatu zuten. Horrela ziren gauzak urte haietan; eta gero harritu egiten zen jendea, handik urte gutxitara, apaiz gazte haietatik asko erreboltatu eta sekularizatu zirenean, edo politika erradikaletan kokatu. Sartoris Koronelak Willian Faulkner-en nobela batean errepikatzen zuen bezala: *Harrigarria, benetan*.

Lekuonatarrekin jarraituz, esan behar dut nire heziketa, hizkuntzaren erritmoen ulerpena eta beste hainbat ekarri, ezin litezkeela ulertu gaztetako kontakizun, iruzkin argigarri, bertso eta kantu haiek gabe. Mundua oraindik ez zen batere handia, gerora hasi zen handia egiten, irakurtzen eta zerbait bidaiatzen hasi ginenean; gure

unibertsoa ez zen zabala, baina, egunerokotasunaren esparru hertsietatik haratago, lurralde berriak eraikitzeko balio zuten ipuin eta kontakizunetan oinarritzen zen unibertso txiki haren hedapen mitikoa.

Lekuonatarren etxean kontaktzen ziren historien arabera, berdin izan zitezkeen mitikoak erromatarren garaietako Arditurriko meategiak, Berdabiyoren bertsuetan aipatzen zen Trabuko doilorra, Oihanleku inguruetako paisaiak eta jendeak, edo Andonik eta Juan Marik Paris eta Erromatik euskarara itzulita ekarritako abestien gorabeherak. Kontakizunaren indarrez handitzen eta arretagarri bihurtzen ziren berez txikiak izan zitezkeen izaki, pertsona eta gune erreferentzial guztiak. Nik ez dakit izena duen orok baduen izanik, baina kontagarri den orok baduela entitatea, hain zuzen kontatua izanak ematen diona, hori ziur.

Astrofisikoek esaten dutenez, unibertsoaren sakonak baditu erradiazioa eta hotsa, edo murmurioa hobeki esan, Lekuonatarren etxean ere euskera eta herri kulturaren sakonko hotsak nabari zitezkeen. Etxe hartan herri-jakintza baten adierazpen kultura nabari zitezkeen, irakurketen bitartez kultura unibertsalago batean txertatua, eta niri nahasketa hark on handia egin zidan, han ohartu nintzelako berdin baliagarri eta erabilgarri zitezkeela euskera, nola latina, espainola, italiera eta frantsesa; batek maite zitzakeela bertsolariak bai, baina berdin Orixe, Fray Luis de Leon edo Georges Bernanos (Juan Mari Lekuonaren irakurgaietatik bat), norberaren nor izatea eta erregistroak gehiegi bortxatu gabe.

Beraz, batzuek aldarrikatu izan duten euskalduntasun soil eta *nazional* hori, jatorrizko izateari eta nortasunari atxikia, bere horretan aski eta bakar, nik ez dut inoiz sentitu eta bizitu. Eta hori, jakintzaren eta *poiesis* guneen zabalpen hori, neurri handi batean Lekuonatarrei zor diet. Funtsean eta sustraiez lehenik euskalduna izanik, kulturaren bitartez beste esparru zabalagoetara eramán nindutelako.

Nik ezagutu nuen Juan Mari, gizon orekatua eta urduritasun neurotikorik gabea zen. Esango nuke beti eduki zuela garbi zer zen



Manuel Lekuona eta Juan Mari Lekuona Donostiako apaiztegian.

eta zertan ari zen: apaiz, teologia ikasle, poeta, unibertsitate eta seminarioko irakasle, euskaltzain. Urrats guztiak eman zituen keinu handirik eta oihurik gabe. Beste ezaugarri bat ere bazuen niri asko gustatzen zitzaidana, politikaz eta, batez ere, alderdien politikaz, ez zuela inoiz hitz egiten. Juan Mari Lekuona zer zen jakiteko, kul-

turaren abertzalea alegia, ez zegoen esplizituki haren pentsaeraren zehaztasunetan gehiegi sartu beharrik. Hala ere, behar zenean bazekien hitz egiten, bazekien bakoitza nor zen aztertzen eta ondorio zehatzetara ailegatzen. Ez zen dena ontzat ematen duten horietakoa.

Uste izatekoa da Juan Mari Lekuonak une txarrak pasa zituela bere osaba Manuelek Euskaltzaindiaren presidentzia galdu zue-
nean. Ohorez eta ospez Euskaltzaindiaren burura eramana izan zen gizon batentzat oso gogorra baizen kritika bortitzen erdian kanporatua izatea. Ziurrenik, egoera hark kontraesan bortitzak sortuko zizkion Juan Mariri, euskera batuaren aldekoa izanik bere osaba leial errespetatzen baitzuen. Nola nahi dela, nik ez nion gertakizun hartaz hitz garratz bat entzun. Badakit, bestalde, bazekiela bere osabari kontra egiten ere. Berak kontatu izan zizkidan desadostasun batzuen xehetasunak. Hala ere, azkenera arte elkar maitatu eta errespetatu zuten.

Askotan deigarri egin zaidan beste zerbait ere bazegoen: Juan Mari, pertsona zelaia eta aldarrikapen handirik gabea izanik, zeinen poeta berezi, sakon eta konplexua zen. Nik dakidanez, Juan Mari Lekuona inork ez zuen ezagutu publikoki bere poetikak era sutzuan eta dialektika argudiatuekin defenditzen. Bere lan osoa, *Ibilbidea*, argitaratu ziotenean saiatu zen Juan Mari bere poetikaren nondik norako sinbolikoak, ikonikoak eta estetikoak zehazten. Eta nik uste dut pasa dela euskal poesiaren ondarera halako itzal misteriotsu batez inguratua, bere obrak mereziko zukeen errekonozimendu intelektual eta artistikorik erdietsi gabe. Batez ere gazteen artean. Egia da izan dituela Jon Kortazar eta Amaia Iturbide bezalako krikitari sakon eta alde berean leialak. Baina Lekuona ez da, ohiz, euskal literaturaren historietan txinparta asko atera dutenetakoa. Juan Mari Lekuonaren baitan, herri literatura eta, oro har, euskal literaturarekiko magisteritzaz kanpo, bazegoen halako pribazitate intelektual oso dotore bat, irakurketa, hausnarketa eta humanismoz osatua. Eta uste dut izate pribatu eta gogoetatsu hartatik

bakarrik sor zitezkeela euskal poesiak eman dituen fruiturik berezietakoak (garaiaren moda, gustu, joera eta ebazpen guztietatik haratago leudekeenak). *Mimodrama eta Ikonoak*, adibidez, euskaraz idatzi izan den poesia arraroenetakoa izan da, euskal mitologiak, antropologia estetizatuz eta antzinakoen portaera psiko-kosmogonikoz jantzia.

Juan Mari Lekuona izadizalea zen, eta izugarri maite zituen lurra, mendia eta oihanak. Maite zituen eta arnasten zituen, bai fisikoki eta bai estetikoki, naturaren erdian ibiliz zabaltzen zitzaizkiolako zentzuak edermenera. Bere izate psikikoa eta izpirituala elikatua zegoen aspalditasun oso urrun batetik zetorkion oihartzun telurikoekin. Gerora idatziko zuen poesian adierazi zuenez, gaztetatik zegoen bere baitan naturaren osagarrien arteko lotura estu batetik sortutako barne-haragitze bat, hausnarketara eta isurtze estetikoetara itzulia:

ludia nigan eta ludian ni koinonian

Lekuonarentzat izadiaren baitan etengabeko epifania bat zegoen, agertze bat, argitze bat, atal eta xehetasunetatik osotasun esanguratsura zeramana. Antzinako greziarrek esan bazuten ezagutzaren eta galderen sorrera *entusiasmoan* zetzala, aldarrikatu daiteke Lekuonaren jakituriaren sorrera miresmenetik zetorrela. Juan Mariaren mendian ibiltzea ederraren izendatze etengabe bat zen, fisikoki eta izpiritualki elikatzen gaituzten atal eragingarrien taxonomia bat. Nik harekin, mendirako zenbait irteeretan (oso preseski oroitzen naiz Oiartzundik Igantzira eginiko ibilaldi batez), ez bakarrik ikasten nuen lurraldea orografikoki irakurtzen, aberriaren paisaiak hausnartzen ere.

Lurra eta gizakumea poetaren begirada izendatzailean bat egiten zirelako, oso urrutitik zetozen ezagutzen mintzaireren bitartez. Ez ziren mendiak, oihanak, errekek, bailarak, gailurrak, hegalak, ortzi-lerroak eta iturriak bakarrik, haiek jasotzen zuten eta elikatzen zuten gizateria baizik (apala, ezkutukoa eta sakabanatua izan arren, ez horregatik gutxiago *lurraren habitataile poetiko*, Holderlinek

adierazi zuenez). Susmoa dut Lekuonarentzat lurra eta gizonaren arteko lotura eta konplizitatea zela, hain zuzen, *aberria*; eta benetako *poiesisa*, biziguneen eraikuntza bat zela, gizakumeak, apal baina lehiatsu, zortearen ondorioz tokaturiko kokaleku zehatz batean gauzatzen zuena.

Juan Mari Lekuonaz pentsatzen dudan bakoitzean, sentimendu sakon batek betetzen nau, herri baten izaeren iraganera naramana eta, une berean, iraunkortasunaren oihua nire izatearen zoko bakoitzera barreiatzen duena. Badira lurraldeak, badira sentiguneak, badira ikus-izpiak, badira eresiak, badira paisaiak, usain eta zantzuak nehoiz behar bezala adieraziko ez ditugunak. Gure izpiritua-ren gordeleketan eta gure oroimen hunkituenean daude, eta arnastuak sentitzean ere (nonbaitetik letorkeen argi batek ukituak) ez gera heltzen haien esatera; beti hitzaren atarian geldituko bagina bezala, misterioaren adierazpena ezin lorturik.

Juan Marik bazekien poesia distira bat dela, ulermenaren gunea (zerbait sakonkiago adieraztera garamatzana), izpiritu arnastuaren eraginez kantu eta kontakizun bilakatua. Eta poesia, hitzez gauzatzen den neurrian, antzinatik letorkeen zerbait dela; ororen ukitu bizi-emalez osatua izan den adierazpen eta lanabes. Hitzek diotena ez dute gure men mugatuen indar eta gaitasunetatik esaten, jasotako oihartzunetatik baizik. Alde horretatik, hizkuntzaren erabiltzaile ausarta eta era berean apala zen Lekuona; bazekielako zioenaren ardura oso berea eta bakarra zela, baina, era berean, jasotakoaren gordailu izanik. Beraz, transmisioaren kontzientzia eta ardura zorrotza bizitu zuen Juan Marik poeta eta irakasle bezala.

Gaztetan, Juan Mari Lekuonak bazeraman bere barruan aldaketaren *pathos* dramatiko baten kontzientzia. Poeta zen heinean, eta atxikimenduetatik sortutako urraduren zauria bere haragian eta izpirituan bizitzen zuelako, galtzear zegoen mundu baten aipamena era melankoliatsu eta aski etsiperatuan irteten zitzaion. *Errota zabarra* ez zen beretzat antzinasun sinboliko baten eresi edo ikur erretorikoa; ez zen erresistentzia batetarako gudu-mezua ere (*salba de-*

zagun lehenagoa, bestela gureak egin du). Errota zaharra, artzain bizitzaren eta nekazari kultura baten pareko, bere esperientziatik jasoa eta bere sentsibilitate estetikoan txertatua. Baina une batean, ziurrenik Erromatik atzera eta aurrera zebilela, ohartu zen errealitate hura dena gainbehera zihoala. Begiratu zuen, eta oraindik bazen hura (antzinatasunaren aztarrenak) desegina izatera deitua nabaritu zuen; konturatu zuen mundu baten aldaketa sakonen aurrean aurkitzen ginela, eta ez zuela luzaroan aukerarik izanen errotaren tranguaren musika iluna entzuten jarraitzeko.

Beraz, Juan Mariren hasierako poesian errealitate batzuen aztarrenkiko nostalgiaren hots eta oihartzunak badaude. Eta, hots eta oihartzunekin batera, oinazea ere badago; bera ez zen aldatzear zegoen gizarte baten bizi-kulturen aurrean neutraltasun soziologiko batekin kokatu. Juan Marirentzat, lurraldea, ezaugarri guztiekin agertzen eta zabaltzen zen zentzuen eta kontzientziaren aurrean. Beraz, pertsonarentzat eta poetarentzat min handia zegoen aldaketaren halabeharretan. Zeren, azken finean, eta bizitzaren legea izanik ere, aldatzea, halabeharrez aldatzea, hiltzearen pareko izan baitzitekeen, neurri batean.

Baina une horretan, Juan Marik malgutasun handiz, errealitate berrietan kokatzeko ahalegin bat egin zuen, eta nostalgiaren poesien ondoren *Porlandi* idatzi zuen, zalantzarik gabe Añorgako bere ingurune berriaren isladatze.

Eta nik esango nuke handik aurrerako Lekuonaren aritze poetikoek (eta hura ahalmentzen zuten gogoetek) ukitu intelektual nabarmen bat izan zutela; kontzeptuek, alegia, eta sinbolizazioek lekua hartu ziotela hasierako sentiberatasunari. Juan Mari, poesia idazten hasi zenean, Lizardiren epigonoa zen, neurri batean, beste asko izan ziren bezala. Baina bere bilakaeraren azken egoitzetara heldua zelarik, antropologia poetizatuen garatzaile zen, hizkeraren eta pentsakeraren pertinentzia oso elaboratuekin.

Batzuetan, eta ez nuke zehaztasun osoz adierazten jakingo, Lekuonaren desterruak Cesare Pavesearena oroitarazten dit. Pavese



Juan Mari Lekuonaren familia, apaiztu zen egunean, Arrasaten. Zutik ezkerretik basita, Primitiva arreba, Tiburtzi ama, Juan Mari bera, Bruno aita, Jose Luis anaia, bebean, Andoni eta Julen anaiak.

Piamonteko mendixka eta gailurrei gaztetatik izan zien maitasun liluratu Lekuonak ere bizitu zuen beste esparru eta espazio batzuetan. Gero, biak izan ziren, lantegi intelektualaren bidetik, hirira eramanak. Lekuona, neurri batean, malguagoa izan zen, eta gainera ez zen bere mendi-bazterretatik inoiz fisikoki urrundu. Pavese, aldiz, sentsualki eta mitikoki atxikia gelditu zitzaizen bere haurtzaroko paisaia berreskura ezinei; bere baitan zeramatzan beti (poesian, eleberrietan) mendixkak, errekek, ilargia, udaberriko suak, Piamonteko soziologia erdi-zibilizatu, erdi-basa, andereñoen keinukera erotizatuak (kasualki, Lekuonaren gisa bertsean); eta azkenik, iragan hura erabat berreskura ezintzat eman zuenean (eta hiritar intelektual baten ñañukeriaz ohartu zenean) bere buruaz beste egin zuen.

Lehenago aipatu dut Juan Mariren leialtasuna. Leial izan zitzaien sorterrari, familiari, hizkuntzari, sinismenari, bai eta jasotako kulturari ere. Baina bazen beste leialtasun mota bat azkeneraino praktikatu zuena, jarrera adeitsu eta errukitsuarekin, eta leialtasun



Irun Sarietako epaimahaikide (1996). Ezkerretik hasita, Patri Urkizu, Arantxa Urretabizkaia, Lourdes Otaegi, Xabier Lete, Juan Mari Lekuona eta Henrike Knörr.

hori bere apaiz ministerioari zegokiona zen. Bere bizitzaren azken urteetan Oiartzungo zaharren egoitzan meza ematen zuen igande eta jaiegunez. Hileta elizkizunetan ere ia beti aldarean izaten zen, apaiz partaide. Berak behin hitz zehatz bezain ederrez esplikatu zidanez, Elizak, beste arlo askotan zeresan soziala galdua bazuen ere, heriotzaren orduan bai omen zuen jendeak eskaturiko zeregin nagusi bat: hildakoa elizan otoitzerako errezibitzea eta, horrekin batera, hildakoaren senide, guraso, ahaide eta lagunei itxaropenezko mezu bat eskaintzea.

Juan Marik zioenez, funtzio hori, bai alderdi sozialetik eta bai erlijio alderditik, oso sakon finkatua zegoen, eta funtzio horren konplimentuak bazituen bere modu kulturalak eta une erritualak. Berak honela pautatzen zuen, liturgiaren eta usadioen arabera: Gorpua elizara hurbildu eta elizan sartu. Hileta meza ospatu eta hildakoaren alde otoitz egin. Gorpua hilerriraino lagundu. Hildakoari lurra eman, hori da, lurrera itzuli.

Psikologikoki, badago niretzat Juan Mari Lekuonaren baitan zenbait misterio. Haren nortasunean zer osagarri sakon eta ezkutu-

ko zeuden ohartzeko, bere poesia irakurri behar da, eta iruditzen zait ez dela orri hauetako nire eginkizuna irakurketa horretatik atara litezkeen ondorioen azterketa egitea, ziurrenik beste batzuek lan hori hobeki egingo dutelako. Itxuraz zirudien bezain orekatua eta, nolabait esatearren, *desatxikia* izanik, harrigarria gertatzen da, adibidez, *Oibu ilunak espiralean* liburuan emakumez esaten duen guztia. Hor daude, bizilekuen zehazte hain dramatikoez gain (emakumeak baitira inguruaren eta gorputzaren baldintzapenen pean *bizileku* horietan kokatzen direnak), emakumeen gorpuztasunari dedikaturiko poema ausart, lotsagabe eta delikatuak; era berean fisizitatez blai agertzen zaizkigunak, baina *psike* zauritu baten interpretatzaile misterioitsuak ere. Poema multzo horietan (Esku, Ile-adats, Haragizko estatua, Begitarte) greziar tragedietatik jasotako andereen ezaugarriak leudekeela lirudike, abstrakzio horien pean legokeen pertsonaia Medea edo Antígona bat oso erraz litzatekeelako, gorpuzkeraren zeinu-ataletan islatua.

Beraz, Juan Mari Lekuonak, bere poesiari begiratu, alderdi eta aurpegi asko ditu. Hasierako *Mindura gaur* lekukotasun sozialez betetako hartatik, gerora etorriko ziren poema asaldagarrietarako bidean, agertzen zaigu gizatasunez hornitua, eta ez bakarrik arlo izpiritual eta kontenplatzailean, arlo haragitsuenetan baizik. Uste dut oso zaila izan zitekeela edonorentzat, Lekuonaren kontentzio izugarri jokatu ezik, gorputzaren zeinu ia freudianoez aritzea erotikaren adierazpen esplizituetan erori gabe. Horregatik, esan dezadan, eta ez dut ezer gehituko, niretzat misterio bat dela Juan Mari Lekuonak idatzi zituen poema arriskatuenean genesisia, misterio bat diren bezala haren barne-indar eragileak. Batzuetan pentsatu nahi izaten dut emazteek barne-barnean daramaten hainbat drama sublimaturen antz emalea izan zela Lekuona, eta horretatik ikasi zuela gorpuzkeraren atal eta plegu eta tentsio bakoitza interpretatzen.

Juan Mari Lekuonak, bere azken urteetan, bi lan apal bezain eder burutu zituen; Oiartzungo kantu-altxor tradizionala (bertso, koplak, abesti, eta abar) zenbait herritarri kantaraziz eta gero dis-

kora eramanez lehena, eta Oiartzungo Kantutegi orokorraren bilduma zabala liburura eramanez bestea. Bigarren lan hori osatzeko, azken hamarkadetako oiartzuarren abesti berriak ere aukeratu zituen, Oiartzunen sortutako kantagile-kantarien emaitzak arretaz begiratzuz.

Lan horretan zabaltasun handia adierazi zuen izan baitzitekeen ikuspuntu tradiziozale eta puristago batetatik abiatuz zaharragoei bai baina berriei tokirik ez uztea. Baina Juan Mariren ustez *herrikoa* dena zen, bai aurreko mendeetatik jaso eta berdin garaikideek asmatutakoa. Eta horretan ere argi utzi zuen tradizioarekiko bere ikuskeran ez zegoela haustura edo dikotomia ezin uztarturik. Ez zuela *zaharra eta aintzinakoa* bakarrik kategorizatzen, *kultura herrikoa* deituraren pean zilegiztatzeko, baizik eta berriari ere ematen ziola tokia, tradizioaren ibai osatura gaurkoaren isurki, uharka eta erretenak eramanez.

Norbaitek esanen du hori normala zitekeela, Juan Mari herri-literaturaren ikerlari eta irakasle izanik, baina nik uste dut jokamolde



Bertsolaritzari buruzko mahaingurua (Abetxe, Lapurdi, 1991.09.20). Moderatzailearen ondoan, Juan Mari Lekuona, Laka bertsolaria, Jose Mari Aranalde eta Jon Sarasua.

horri normaltasuna Juan Mariren arreta sozialak ematen ziola, *berri kultura* ez zuelako inoiz antzinatasun mistiko eta aldaezinetik fosilizatu, gizartearen bilakaera dinamikoen adierazpenetara zabaldu baizik. Juan Mariren gizarte ikuspegia sakonki soziala zen, eta horrela, aldaketa eta mugimenduei arretaz emana. Berak ikusi zuen, gazte zenez geroztik, euskal gizartea aldatzen ari zela, funtsez eta moduz; bizitzeko, pentsatzeko, lan egiteko eta sinesteko era eta molde asko galtzen ari zirela, eta horrekin batera estetika molde batzuk, eta, bilakaera material, sozial eta ideologikoen arabera ari zirela argitara irteten bestelako joera *hiritarragoak*, alde on eta txar guztiekin.

Nik dakidanez (berari entzunagatik) Juan Marik izan zituen euskararen iraupenari buruzko zalantza sakonak ere, ez baitzuen garbi ikusten nola iraun zezakeen hain hizkuntza txiki batek hizkuntza erraldoiez inguraturik. Baina gero, urte batzuk pasa zirenean, ikusiz euskal literatura eta kulturaren nabari zela, aldaketekin batera, suspertze eta aurreratze bat, ikusiz euskera ari zela belaunaldi berrietan prestigio bat lortzen (eta askotan modernitateari lotua); eta ikusiz erakundetzearen ondorioz ari zela euskera bere esparru berriak irabazten (irakaskuntzan, komunikabideetan, administraritzan eta, oro har, gizarte-harremanetan)... nik uste dut hori dena ikusiz, urteak pasa ziren neurrian askoz baikor eta itxaropentsuago bihurtu zela euskera eta euskal kulturaren etorkizunaz.

Nik behin baino gehiagotan esan dut, eta lan hau amaitzeko berriez errepikatuko dut, eskolarik eta formazio akademiko sakonik gabe hazi eta hezi ginenontzat, jakintzaren eta gizatasun pertsonalaren lekukotza eman zutenen autoritatea (intelektuala eta etikoa) ez bakarrik garrantzitsua, baizik erabakiorra izan zela. Nik hiru eredu aipatu izan ditut: Koldo Mitxelena, Julio Caro Baroja eta Juan Mari Lekuona. Beste batzuk ere aipa ditzaket, hala nola Jorge Oteiza estetikaren arloan.

Horiek denek, gizarte batek eraiki ditzakeen balorapenez aparte, izugarritzko garrantzia izan zuten niretzat, norberaren ekarri



Juan Mari Lekuona eta Jorge Oteiza.

partikularrez gainera (bakoitzaren diziplinaren arabera), pentsatzen, aztertzen, begiratzen eta aukeratzen irakatsi zidatelako. Eta irakatsi zidatelako, gainera, euskaldun izan gintezkeela, oso sakonki euskaldun, inolako lokalismo antzu eta tribukerietan erori gabe. Irakatsi bai zidaten *fratria* batetatik pasa gintezkeela *demosera*, bidean gure funtsezko nor izateari uko egin gabe, ekarri, pentsamendu eta ikuspegi zabalagoekin aberastuz.

Drama bat bezala bizi dut nik, azken urte hauetan, autoritate intelektualez hornitutako pertsona jantzien eskasia. Egia da ni ez naitzela Unibertsitateko Departamenduetan mugitzen, eta ez dudala jakintza horien berririk. Baina gizartearen partaide naizen neurrian, begiratzen dut hara eta hona, saiatzen naiz ikasten, baina, nolabait esatearren, *maisurik* ez dakusat. Garai bateko intelektual oro-jakituak desagertu zirelako ote da?

Eta gero, hutsunearen bestelako guneak daude, gure ibilbide poetikoa argitu eta gozatu zutenen izenak iraganaren itzaletan galtzen zaizkigunean: solasak, presentziak, bizitza deitzen dugun horren partaide apalak, izenak eta izanak. Orixek Lizardi hil zenean idatzi zuen bezala, ez litzateke guk haiengatik negar egitea lotsa. Horrela, otoitz gisan esan genezake: Zuek joan zineten poeta maiteek, Bitoriano, Juan Mari, argitu gaitzazue zuen izpirituaren hegada arnastuak irabaziko zituen gailurretatik. Argitan zuek, betirako salbatuak, eta ibarreko argi-itzaletan gu, eguneroko jardun nekagarrietan tratuok...

Xabier Lete

Urnieta, 2007. urteko martxoak 19



Juan Mari Lekuona, 1953.

II

JUAN MARI LEKUONA GOGOAN

Gorka Aulestia

I. ZATIA

90eko hamarkadaren hasieran saiatu nintzen Oiartzungo Lekuona familia hurbilagotik ezagutzen, horretarako batez ere Juan M^a Lekuona (1927-2005) olerkariaren obrari erreparatu nion. Gainera, garai hartan Deustuko Unibertsitatean (Donostiako campusa) lagunak ginen eta, urte batzuetan bulego berean egon ginenez, denbora igaro ahala, eta olerkariaren beraren laguntzari esker, azterketa horretan sakonduz joan nintzen. Behin, bere bibliografia idazteko unea heldu zenean, harri eta zur gelditu nintzen Lekuona irakasleak jakinarazi zidanean, berak niri emandako bere liburu eta artikulu zerrendaz gain, bazela *Mi diario en Añorga* izenburua zuen egunkari bat, 50eko hamarkadaren amaieran gaztelaniaz idatzia. Nire poza, alabaina, berehala atsekabe bihurtu zen egunkari hori galduta zuela aitortu zidalarik. Hala eta guztiz ere, bere poesiaz egin nuen azterketa batean (*Sancho el Sabio*, 1998, 9. alea: 30) idazki horri buruzko aipamen bat egin nuen: “[...] el rico caudal de vivencias humanas consignadas en su diario escrito en castellano [...]”.

2003. urtean, bere apaiz ezteiak zirela eta, Gotzon Aulestia konpositore bizkaitarraren obrarik nagusienetako bat oparitu nion. Obra horretako hitzak *Muga beroak* (1973) bere liburutik hartuta daude. Ahalmen fisikoak gutxituta zituen arren, J.M. Lekuona azken garaian alemaniar puntualtasunez joaten zen Euskaltzaindiko

Literatura Batzordeko kideok Donostian egin ohi genituen bilera guztietara eta, hain zuzen, bera genuen buru, harik eta azken bi urteetan bizitza publikotik alde egin zuen arte. Bi urteotan batzuetan ikusi nuen eta beti bere ohiko irribarre bero eta abegikorraz hartzen ninduen, horregatik jarraitu nuen ikustaldiak egiten. Gogoan dut irailean (hil baino hiru hilabete lehenago) bere obrarekin zeri-kusia zuen opari pare bat egin niola: EEBBetan ahozko literaturari buruz argitaratutako liburu bat, non eskainia nion atal bat eta goian aipaturiko musika zuen CD bat. Entzutea, bere aurrean mahaitxo baten gainean partitura eta liburua zabalik zeudela, gustukoa izan zuen nonbait, zeren irribarre gozoa eskaini baitzigun. Azkeneko aldiz abenduaren 4an Donostiako ospitale batean ikusi nuen, hil baino ordu batzuk lehentxeago. Berriro ere miresgarria iruditu zitzaidan bere bizitzaren amaiera arte nolako duintasunez eramán zuen gaixotasun larria. Musu batez agurtu nuen azken hogeitau urteotako oroitzapenak eta bere *Muga Beroak*: 49-50 obraren pasarte batzuk gogora ekarriz.

“[...] Ni ere triste nabil
zutaz oroitzean
ezin gindezke bizi
elkarren ondoan
Bizitza legea
nai det onartu.
horrela bearra
koraiaz artu.
Berez dijoana
zertan beartu [...]”

Lau aldiz egokitu zait Lekuona irakaslearen obra aztertzea, hori dela-eta norantza aldatu eta euskaldun sinestedun, kristau, apaiz (1953-2005), Euskaltzainburuorde (1989-1991) eta unibertsitateko irakasle (1978-1997) honen nortasun aberatsaren alderdi batzuk baino ez ditut deskribatuko. Nabarmentzekoak dira; eta horregatik miretsia eta, batez ere, maitatua izan zen, bere gizatasun eta erlijio-tasun sakonak, zuhurtzia, apaltasuna, alaitasuna, duintasuna, samur-

tasuna, jakituria eta ahulenganako, familiarenganako, lagunenganako eta jaioterriarenganako maitasun berezia. Oartzungo idazleari buruzko nire aurreko lanekiko beste desberdintasunetako bat "egunkari" honen genero literarioa da. Batik bat ezaguna dugu bere obra poetikoagatik, baina oraingoan euskaldun honen prosari begi emango diot. Lehen aldiz idazten du Cervantesen hizkuntzan 30 urteko apaiz gazte baten ezkutuko sentimenduei buruz. Argi daukat *Mi Diario en Añorga*-ren egileak nik irakurtzea onartu zuela, baina niri ez dagokit oparitu zidaten altxor handi honen eduki aszetiko-mistikoa jendaurrera agertzea. Behar bada, egunen batean, eta gai horietan aditua den luma bati esker, denok egoki ezagutu ahal izango dugu Jainkoarenganako sinesmenak jotako apaiz hau.

"Au da neregana misterioa:
Jainkoa bera doaia detela
Bizi-lagun bat igan bezela.
Nere utsean maite nauela..."
(*Muga Beroak*: 84)


Ondorioz, artikulua honen lehenengo zatian egunkari honen atal batzuk azalduko ditut, soilik euskal kulturari loturikoak. Bigarren zatian, ordea, nire oroitzapen pertsonalak aditzera emango ditut, batzuk eskasak eta urrunak (1950-1953) eta beste batzuk hurbilagoak.

I - MI DIARIO EN AÑORGA

Zenbaitu gabeko eskuizkribua da, Venezuelara moja joan ziren herri horretako bi eliztarri eskainia. Egunkari honek 116 orrialde ditu, bakoitzeko 22 lerro. Egileak era honetara deskribatzen du:

...las páginas que preceden son los pequeños episodios espirituales de un sacerdote... (115. or.). Se da cuenta de muchos estados de ánimo. Se reflexiona. Se toman decisiones. Se poetizan mil detalles de mi vida sacerdotal. Todo es vivo y sincero...(116. or.)

Idazki honen kronologia eta iraupenari dagokionez, komenigarria da ondo zehaztea, zeren ez baitatoz guztiz bat Juan Luis Zabala kazetariari eman zizkionekin:



Juan Mari Lekuona Añorgako parrokiaren zegoela eginiko estudio argazkia (Donostia, 1958~).

...Nik 1957ko abendutik 1958ko abendura bitartean Añorgan idatzitako egunkari pertsonal bat nuen, erdaraz eginga, *Mi diario en Añorga*, galdutzat joa nuen arren orain aurkitu egin dut... (Berria, 2005-XII-6: 3).

Egia esateko, kazeta horretan agertzen diren hasiera eta bukaera datak honako hauek dira: 1957ko azaroaren 29tik 1958ko irailaren 12ra. Beraz, zortzi hilabete eta hamahiru egun dira, eta ez urtebetea aipatutako kazetan azaltzen den bezala.

Juan M^a Lekuona 1953ko ekainaren 29an apaiztu zen Arrasaten, eta Erroman teologia lizentziatura prestatzen bi urte igaro ondoren (1953-1955), Añorgako parrokiara bidali zuten lagunkide. Han hiru urtez zoriontsu bizi izan zen (1956-1959). Parrokiako eliztarrekiko esperientzia aberasgarri hau (apaiz honen bizitzan bakarra) oso interesgarri gertatu zitzaion geroago baliatuko baitzuen bizi izandako guztia, batez ere *Mindura gaur* (1966) obran. Bere "egunkariak" lehenengo bizipen horiek eta parrokiako lanetan sentitzen zuen poza jasotzen ditu. Aldi berean, poesia idazten jarraitzea ere atsegin izango zukeen, baina geroago Euskal Herri osoan ezagunak izango ziren abesti letrak idazteko baino ez zuen astirik, esate baterako, "Azken afariar gero Jauna", "Gaur senide au" etab. Hala eta guztiz ere, 16 urte zituela sentitu zuen poesiaren deia ez dio uko egingo, ez Gasteizko Seminarioko irakasle zen D. Pablo Bilbao Aristegi apaiz bilbotar meritu onekoaren gidabideei (honek bere adiskide Blas de Otero eta Jaime Delclaux-en poesian murgilarazi zuen), ezta sariei eta 1950-1951 urteetan *Egan* eta, geroago, *Euzko Gogoia* aldizkarietan argitaratutako poesiei ere. Baina denbora faltak

egonezina eta etsipena sortarazten zizkion eta era honetara azaltzen du:

...desde mi viaje a Portugal no he compuesto ninguna poesía en plan de poesía pura. Tan sólo letras para música. He abandonado mi inspiración particular en bien del pueblo. Mi objetivo es hacer cantar a los fieles en la Iglesia y también en momentos diversos de la vida: alegría, humor, lírica, historia, euskera... Creo que hacer cantar es apostolado. La pena es —y esto es lo que me remuerde— que tal vez debería esforzarme para no perder contacto con la poesía. La siento, la vivo, pero me falta el don de la expresividad que poseía hace dos o tres años. (8. or.)

G. Arestiren *Harri eta Herri* (1964) liburua Euskal Herriko poesia modernoaren historian oso garrantzitsua da, zeren islatzen duen literatura mota orduko gizartearekin eta 60ko hamarkadako gustu estetikoarekin bat datorren. Gainera, bi olerkari bilbotarren obren errealismo sozialaren eragina du. Olerkariok Blas de Otero eta G. Aresti, A. González, J. Hierro etab. dira. 60ko hamarkadaren erdialdean, Oiartzungo olerkaria, Añorgan bizi izandako esperientziari eta G. Arestiren poesia sozialari esker, poesia intimo eta erlijiosotik poesia existentzial eta humanista igaro zen, baina halaber kristaua izanik eta G. Marcel, Ch. Péguy, G. Bernanosen produktiotik hurbil, *Harri eta Herri* obrari darion errealismo soziala bazter utzi gabe. "Meretziz illa", "Ez neri esan", "Jainkoa il da", "Porlandi" bezalako poesia ederrak biltzen dituen bere *Mindura gaur* poema liburua nekez uler daiteke Añorgako esperientzia gabe eta bere obra kristaua irakurri gabe. Añorgan ezagutu zuen zementu usaineko gizarte industrializatu baten eta desagertzeko bidean dagoen bere haurtzaroko nekazari gizartearen artean olerkariak lehena hautatzen du. Berak ez du nahi langile eta behartsuentzat ogia, etxea, heziketa eta osasunbidea falta dituen bizitzarik, nahiz eta baserriak, euskal kulturak eta, behar bada, euskarak berak beraiekin daramatzaten balore tradizionalak galdu. Kristau batentzat ez dago salbaziorik giza arazorik larrienak eta txiroenganako ardura alboratuz gero.

Porlandi sorra:
pozik dagoit nere aitorra,
ogi-bidean pobrentzako
bera bait-degu lur emankorra...

Nere barrutia /inguru esia/
zementuzkoa det bakarrik...
Zementu-errian /ez dago kabirik,
ibai ustelean arrairik...
Baiñan obe degu /gauz asko galtzea/
eta ez pobreak /goseak iltzea...
Utziko ditut baserria ta
nentorke dana uztera,
utzi agian euskera;
baiñan iritxi bitez, /pobre guztiak
eguneroko ogia izatera...
Betor zementua.
(*Muga beroak: 73-76*)

"Jainkoa hil da" F. Nietzscheren (1844-1900) obraren eragina "Jainkoa il da" bere poesian ikus daiteke. Bertan gure apaiz gazteak jasotzen du Jainkoa bihotz askotan hil egin dela. Batzuen arabera, Bera da ezjakintasunaren eragilea, herriaren opioa eta aberatsen aldekoa:

[...] jakin-ezaren tapaki,...
lokartutzeko opio...
aberatsen maikide omen [...]
(*Muga beroak: 73-76*)

J.M. Lekuona, sinestedun, kristau eta apaiza den aldetik, ez zegoen ados existentzialismo ateoarekin, ezta ateismo marxistarekin ere; hala ere, bere "Egunkarian" atzeman daitekeenez, bere apaiz zerbitzuan onartzen du gizarte modernoak egiten dion erronka.

Al mediodía –festejando el cumpleaños de un discípulo- nos hemos reunido una media docena de sacerdotes... Para nosotros la religión es algo vital en el pueblo. Nada de opios, ni de *chanflainas*. Somos los primeros en desear auténticos progresos. Nos alegramos cuando en las demarcaciones de nuestras parroquias surgen empresas modelo, existen festejos de masas que bailan y se divierten creando auténticos ambientes de convivencia pacífica y sana. Deseamos sobre todo la formación integral de todas las personas. Gente que crea en los valores espirituales: en el amor, en la justicia, en el sufrimiento, en la generosidad. Y en el cielo... Queríamos hacer el bien sin distinciones. (*Mi Diario, 69-71. or.*)

G. Arestiren poesiaren errealismo soziala eta alde marxista gure apaiz gaztearentzat erronka izan ziren, baina berdin gertatu zitzaion idazle gazte donostiar baten lehenengo eleberrian islatutako



Xabier Irigoien, Juan Mari Lekuona eta Juan Aldasoro.

existentzialismo ateoarekin. Idazle horrek hitzaldia eman zuen gai horri buruz, hala ere J.M. Lekuonak ez du aipatzen bere "Egunkarian" ez egilearen izena –agurtu zuen arren- ez eleberriarena, ezta argitalpen horren data ere. Dena den, baieza dezakegu Jose Luis Alvarez, "Txillardegí" dela eta obra *Leturia-ren egunkari ezkutua* (1957), bere lehenengo eleberria. Lan hori euskal nobela modernoaren historian oso garrantzitsua da.

"Egunkari" honetako orrialdeetan egileak agerian uzten du bere zeregin parrokialak eta kultura modernoarekiko interesa batera eramateko gogoia. Kultura modernoari loturik eta Gasteizko Seminarioan (1943-1953) eta Erromako Unibertsitate Gregoriarrean (1953-1955 artean eta geroago beste batzuetan) ezagutu zuen giro intelektualean murgildurik jarraitu nahi zuen.

Ayer asistí al día de retiro. De sobremesa me di cuenta de que no estaba muy al tanto de los autores más destacados dentro del pensamiento católico. A la noche escuché en la Diputación una conferencia sobre "Literatura Vasca". La misma sensación: estoy al margen de lo que –por mis cualidades- bien podía haber sido mi especialidad. Saludé al autor de una novela existencialista. Opinaba él que su obra recoge la inquietud de la vida moderna. Me sentía alejado de lo que me decía, ajeno. No sé si de estas impresiones deba preocuparme. Creía yo que con cumplir fielmente las obligaciones de la parroquia quedaba uno libre; y sin embar-

go me avergüenzo de que me esté volviendo pueblerino, sin contacto con los movimientos intelectuales... ¿Qué impresión daré yo dentro de diez años si no me renuevo un poco? ¿Será éste el sacrificio que me impone el apostolado? Calculo –en mis cálculos humanos– que pude haber sido algo en el euskera. Que pude haber producido obras de literatura encontrándome en un ambiente intelectual, en un convento. Y sin embargo me dedico al pueblo. A hacerle cantar y rezar, a comprenderle, a animarle. Acepto gustoso la voluntad de Dios [...] (*Mi Diario*, 40-41. or.)

Jendearenganako zerbitzu eta hurbiltze ildo honetatik abiatuta, bagoaz egilea hobeki ezagutzen bere "Egunkariaren" bitartez. Nire iritiz, J. M. Lekuonaren izaera lotsatia izan zen, sentibera, maitakorra eta hurbila. Gustukoa zuen solas egitea, hala ere nahiago zuen beti entzun eta hitz gutxirekin parte hartu, baina kasuari ondo zetozkion hitz zehatz eta egokiak esanez. Bestetik, oso gogokoa zuen lagunekin txantxetan ibiltzea, gainera ironia finez eta inor mindu gabe. Alabaina, orduko apaizen jantziak, sotanak alegia, jendearengandik urruntzea eta bereiztea eragiten zuen, batez ere pertsona horiek ezezagunak izanda. Kontaketa honetan bere bertso xume batzuk sartu ditut bihozbera eta samurra izateagatik maitaturiko poeta baten kalitatea erakusten baitute.

Había bastante gente en el autobús de Lasarte. Casi lleno. Y he visto con cierta pena que el asiento que estaba a mi lado es el último que se ha ocupado. Al fin ha habido una muchachita que se ha resignado (sic) sentarse junto a mí no sin antes que otra persona le indicara que aquel asiento estaba vacío. Nadie quería decirse. Había gente de pie y el resto del coche iba repleto... Me he sentido solo, raro; que no inspiramos confianza [...] Venía de buscar colocación para una chica. Y -después del plante- venía ideando unos versos para el recordatorio de primera comunión de una niña. Pongo a continuación la letra para que me convenza de que –a pesar de no ser inspirada- iba dedicada al pueblo y que aquella sotana negra, que irradiaba recelo, abrigaba un corazón que sentía unos valores más subidos y los apreciaba:

Lenengo aldiz gaur artu zaitut
ai, zeñen egun pozgarri!
Aurrerakoan Zu zaitut lagun,
bizitzarako janari.
Egun honetan onetsi, Jauna,
gure etxeke danori.
Eman laguntza bizi dan arte
Gaur Zuganatu danari.
(*Mi Diario*: 81-82)

1974an J.M. Lekuonak bere burua poetatzat hartzen du *Jaunaren Deia* aldizkarian argitaratutako "Salmoen olerki alderdia" artikuluan (48/90: 149-154). Hainbat urte lehenago, hain zuzen 1958an, inguruan eragozpenak izan arren, bere bokazio poetikoa aldarrikatu zuen. Kantu bihurtzeko idazten zituen hitzak kenduta, baieztza daiteke bere poesiarako 1956-1966 hamarkada hutsean igaro zela, zeren betebeharrak ugari izan baitzuen: Añorgako zeregin pastoralak (1957-1959), bigarren egonaldia Erroman (1959-1960) eta Saturrarango Seminario Txikiko eta Donostiako Seminario Nagusiko irakasle eta aita izpiritual lana (1960-1963).

Cure olerkaria oso idazle perfektionista, zorrotza eta zehatza zen; hain zuzen, etxea eraikitzen hasi baino lehen, sorkuntza artistiko berri baterako planoak aldeztatik aurretik prestatzen dituen arkitektuaren modukoa. Adibide gisa, hor ditugu bere *Mimodramak eta ikonoak* (1990) liburuaren hiru koadernoak (zuzenketaz beteriko hiru kopia ezberdin). Sortzaile artistiko ororen antzera, isiltasuna eta astia behar zituen, baita bere baitan bilduta egon ere. Eta horixe da askotan falta zuena, bere "Egunkarian" 1958ko otsailaren 21ean agertzen den bezala. Hona hemen J. M. Lekuonak, prosaz idatzi arren, poesia bihurtzen duen pasarte hau:

Hace unos días el Párroco tuvo el acierto de comprenderme y de liberarme de una carga. Llevaba días de pesadilla interna. Una pequeña crisis que se declaró con motivo de la hora de cuaresma. Iba con retraso. Más aún: con el convencimiento de que en aquel momento era incapaz de hacerla. Sabía bien que pude con los himnos y cantos anteriores que me salieron de dentro. Pero no estaba en forma. Me faltaba algo. Perdía horas muertas hurgando en mi propia sequedad. Era un riachuelo arrasado, sin peces. Corroído por el ácido de las ocupaciones cotidianas. En un principio el párroco me atizaba el amor propio... ¡Qué alivio sentí cuando me dio a entender que comprendía mi situación! Al día siguiente salió la letra del canto como la seda... Ando falto de estudio, falto de días de recogimiento, sin el auxilio confortable del silencio y de la lectura... Como una conclusión descorazonadora le salió al Párroco: "Si sigues muchos años en una parroquia, dejarás de ser poeta..." Y esto para mí es duro. Más aún, creo que no podré llegar a este trance. Seré poeta siempre. Lo quiera yo así o no lo quiera. Nunca podré no serlo... Ciertamente que me veré obligado a llevar un camino desconocido; pero nunca me faltarán arbolados musgosos, ni cantos de pájaros ni el despertar apacible de la primavera. A mí que me gusta ver el lado hermoso y grande de los hom-



Juan Mari Lekuona, Donostiako apaiztegiko atarian (1965).

bres... No podré dejar de ser poeta. La Naturaleza me es íntima. Estoy compenetrado con ella. Por eso encuentro tanta comprensión y alivio en la montaña... Mi mal no tiene otro remedio que no sea el retiro, la lectura, el silencio, la contemplación, la reflexión hecha pluma en ristre. (*Mi Diario*: 49-52)

Bere balio literarioa dela eta, pasarterik deigarrietako bat dugu 35. eta 36. orrialdeetan tristeziari eskainitakoa. Bitxia da pasartearen hasieran eta amaieran "Egunon, tristezia!" aurkitzea; hain zuzen, gogorarazten duena II. Munduko Gerraren ondorengo Frantziako *Best Sellers* delakoetako bat: Françoise Saganen *Bon jour, Tristesse* (1954) nobela. Kointzidentzia hutsa ote da? Ala gure apaiz gaztearen literatura unibertsalarenganako interesa dugu, nahiz eta, ideologia aldetik, emakume libre eta apurtzailearen sinbolo zen 19 urteko idazle gazte harengandik urrun egon?

XIX. mendeko idazle erromantikoentzat natura, maite-sua, oinazea, heriotza eta tristezia etorri poetikoaren iturri izan ziren. Halaber, gure Oiartzungo olerkariarentzat tristezia sorkuntza poetikora bultzatzen duen bizigarria da. Baina berak ohartarazten digu horrek ez duela esan nahi bera zoriontsu ez denik. Aitzitik, J. M. Lekuona oso gizon zoriontsua izan zen, besteak beste, handizalea

izan ez zelako eta gauzarik txikienak ere (onak eta ederrak baldin baziren) berarentzat alaiagarri zirelako. Lekuona familia Gerra Zibila hastean zorigaitzak jo zuen arren, inoiz ez zuen erresumin zantzurik erakutsi. Hala erakusten du *Mi Diario*-k:

Hacer el bien, y amar porque sí: es lo único grande.

Tristeza... Buenos días. Tristeza, compañera inseparable de mi vida. Hoy nos espera el mismo camino que ayer, el mismo que otros días... Espero que me hagas compañía. Me voy aficionando a ti.; empiezo a perderte el miedo. Empiezo a comprender que no sería auténtica mi felicidad terrena si no la compartiese contigo. ¡Hermana tristeza! Sólo tú me dices la bondad de las cosas y la verdad de mis deseos. Sólo tú acaricias mi alma con una presencia fiel y constante. Tú me enseñaste a comprender la belleza de las cosas, a sentir y a gustar la huella divina sembrada en las cosas. Tú me hiciste poeta. Si no es por tí, ¿cómo hubiera sabido que el otoño vale más que la primavera? Me enseñas a ser bondadoso: a apreciar en los demás su tristeza. Yo te confundo con la alegría. Desde pequeño llenas mi vida. Y no conozco más gozo que el jugar contigo amigablemente, aceptarte, sonreírte en paz. ¡Y cuántas veces te encargaste de llevarme a Dios! Tu mano me ha conducido ante el Sagrario. Nadie me ha hablado del cielo con más claridad y valentía que tú... ¡No me abandones, tristeza, compañera inseparable de mi vida! [...] Sólo tú me haces compañía en el parque íntimo de mi soledad interior; y sólo entonces me hago cargo del gozo inmenso de sentirme acompañado. Cada vez te aprecio más. Alguno podría pensar que no soy feliz. Y no es cierto [...] Hoy cuento contigo para todo. Serás el fondo musical de mi destierro, el cielo gris que me llene de luz; la llovizna que me cause alegría, el invierno frío que me reconforte, la angustia que me llene de valor, la desgracia que me alivie mis penas. Somos amigos. Espero ser mucho más feliz desde que te he aceptado. Tu misión es tratarme con crudeza. Pero sé que cambiarás de actitud cuando lleguemos al final de mi camino. ¡Buenos días, tristeza... buenos días!. (71. or.)

Zalantzarik gabe, zorion horren arrazoietako bat izan zen familia tradizioa zela-eta betidanik bihotzean zeraman bertsolaritza aztergai bihurtu izana. J. M. Lekuona, XX. mendeko bigarren erdiko euskal olerkaririk hoberenetako bat izateaz gain -unibertsitateko irakasle lan luzean zehar- bertsolaritza eta herri literaturaren adierazpide ezberdinak maisutasun paregabeaz aztertzen jakin zuen, eta era horretan bere osaba Manuel Lekuonak hasitako bideari segida eman zion. Bere bi obrak, *Ahozko euskal literatura* (1982) eta *Ikaskuntzak euskal literaturaz 1974-1996*, literatur biltegi izugarria eta ahozko euskal literatura, batez ere bertsolaritza, aztertzeke ezin-

besteko tresna dira. 60ko hamarkadako lau txapelketa handietan (1960-1962-1965-1967) epaimahaikide izan genuen, hala ere gure apaiz gazteak, bere *Egunkarian* egiazta daitekeenez, biziki gozaten zuen Parrokiako bertso-saio xume hauetan. Gainera adierazpide artistiko honenganako zaletasuna apostolutza moduan erabiltzen zuen langileengana hurbiltzeko, baita bere parrokiara alboratzen ez zirenengana ere. Benetako Juan Mari, fina eta lagunkoia, bere idazkian agertzen zaigu:

A la noche, en lugar de la clase nocturna, tuvimos una sesión de bersolaris. Fue en la trastienda de la fábrica, donde no todo es pulcritud. Me acomodé en una barrica. Faltan cristales en las ventanas. Los bancos son de madera mal remedadas. Olía a rancho. Rondaba de boca en boca una bota. Fue una exhibición de coplaris. Confieso que allí me encontraba en mi salsa... En pocos sitios he logrado competirme mejor que con aquellos peones, emigrantes a merced de un contratista, que todas las noches concilian el sueño en barracones. Estoy consiguiendo lo que me había propuesto: que existen sacerdotes que les aprecian de veras, que están dispuestos a ayudarles en todo. (*Mi Diario*, 71-72. or.)

Hay un hombre que no pisa la iglesia y sin embargo tengo para él mis atenciones: le reservo para él los mejores originales de los "bertsolaris" porque sé que le encantan. (*Mi Diario*, 80.or.)

Bere irribarre zabalean islatzen ziren barneko zorientasun eta alaitasun horiek txikitatik antzematen zitzaizkion, adibidez, hain arrunta dugun euria bezalako fenomeno klimatologiko baten aurrean. Nola ez ekarri gogora bere *Egunkariko* zati batean B. Gandiaga lagun on eta olerkari handiaren *Elorri* liburuko "Euria" bertsoak!

... T'euria
T'ozkirri ta argia
itogin zarata
saltari ta alaia
klaustroko patio
barru ta gordean
arra t'erdi luze
edo krabeliña
zuri bat jagia
... T'euria.
(*Elorri* -2.arg-: 79)

Alde batetik, bi gizonok poesiak, erlijioak, euskara eta Euskal Herriarenganako maitasunak elkartutako bi idazle ditugu; baina,

bestetik, ikuspuntu pertsonal eta psikologikotik oso desberdinak:

Día 11 de Enero. Está lloviendo intensamente. Una lluvia intensa arreciada por el viento. Frío, y los cristales de mi cuarto empañados. Me asalta una tentación curiosa. La lluvia me alegra. Me llena de euforia. Estoy dispuesto a calzarme las albarcas, ponerme una sotana vieja y lanzarme monte arriba. No dudo que subiría cantando. No tendría la más mínima melancolía en el alma. Todo optimismo, buen humor, un gozo interno que me sacude agradablemente. Es el milagro de la lluvia. No encuentro la raíz de esta reacción... Siendo muy niño, recuerdo cómo en el balcón de casa los tres hermanos mayores, -mientras la lluvia azotaba los árboles y los tejados del vecindario- jugábamos un juego raro. Acurrucarnos en el suelo, taparnos con unas mantas y unos abrigos y contarnos cuentos de fantasía. Han sido de los momentos más deliciosos de mi vida... El susurro de las gotas, el viento bufeante es lo que más me anima en estas ocasiones. (*Mi Diario*: 27-28.or.)

II. ZATIA

Lehenengo zatian bere *Egunkariko* zenbait pasarte nabarmendu ditugu; oraingo honetan, ordea, saiatuko naiz berari buruzko nire iritziak azaltzen.

Euskal Herriko azkeneko mendeak konparatzean, badaude beti ahaztu nahi ditudan bi: XIX.a eta XX.a gogora ekartzen dizkידaten oroitzapen itunengatik. Urteei dagokienez, nire bizitzatik 2005a oso gustura ezabatuko nuke, zeren zehazki urtarrilaren batean hasiera eman bainion anaia bat galtzen eta jarraitu bainuen nire adiskiderik onenetako bi galtzen: Joxe Mari Aranalde (2005-IX-25) eta Juan M^a Lekuona (2005-XII-5). Lehenak 1950ean euskal literaturan sartu ninduen *Orixeren* obren bitartez, *Barne Muinetan* (1934) eta *Urte Guziko Meza-Bezperak* (1949), eta geroago Xalbador bertsolariaren obra ezagutarazi zidan eta haren familiarekin harremanetan jarri ninduen; bigarrenak Euskaltzaindiko Literatura Batzordearekin lan egin eta kidea izateko gonbidatu ninduen eta, aldi berean, azkeneko hogeitun urteotan (1985-2005) nire gidaririk hoberena izan zen, baita nire adiskiderik hoberenetako bat ere, arlo akademikoan zein pertsonalean. Aitortu behar dut kostatzen zaidala Lekuona irakasleari buruzko nire sentimendu pertsonalak azaltzea, baina ondo dakit bere omenezko liburuan parte hartzeko gonbidatu guztien artean bere irudi aberats eta poliedrikoa osatuko dugula.



Gasteizko apaiztegiko futbol taldean. Goiko lerroan eskuinean, Juan Mari Lekuona.

1.–J. M. Lekuonari buruzko oroitzapen urrun eta aldizkakoa daukat, Gasteizko Seminarioan elkarrekin egon ginen garaikoa. Urruna esan dut, zeren mende erdikoa baita (1950-1953); eta aldizkakoa, inoiz ez baikinena pabilioi berean elkarrekin egon bera (1927) ni (1932) baino bost urte zaharragoa zelako. Hala ere, nire oroimenetik sekula ezabatu ez diren bi oroitzapen gordetzen ditut; lehenengoak zerikusia du futbolarekin, eta bigarrenak kantuarekin, hain zuzen gregorianoarekin. Bera hil baino lehenago Eusko Jaurlaritzak *Bidegileak* sailean eskaini zion liburutxoa, (48. alea) irakurri nuen. Bertan topo egin nuen J. M. Lekuona alde batean agertzen den argazki batekin. Urte horretan txapeldun geratu ziren eta kopa lortu zuten. Bere 62 kiloko irudi arinak irribarre atsegina erakusten du, berarekin hitz egiten zuen oro hurbileko sentiarazten zuena. Guztiaz ondo oroitzen naiz, zeren birritan jokatu bainuen bere kontra futboleant. Urte batzuk geroago, oroitzapen urrun haiek gogorarazten nizkionean eta Bartzelonako garai hartako Basora jokalaria internazional, trebe eta txikiarekin konparatzen nuenean, bere irribarre bereziaz alaitasuna agertzen zuen. Ikaragarri gozatzen

zuen bere taldekide zaharrei buruzko nire iritziak azaltzen nizkionean, adibidez, Soraluzen jaiotako bere adiskide Berikuaren kalitate aipatuta.


2.–Nire beste oroitzapen batek kantu gregorianoarekin du zerikusia. On Jose M^a Zapirain apaiz donostiarra *Schola Cantorum* eta gregorianista taldearen zuzendaria zen. Berak Radio-Vitoriak igandero ematen zituen mezetako kantuak zuzentzen zituen. Baina, bartzuetan faltatzen zen, eta Oiartzungo gure teologo gaztea, taldeki-dea zenez, bi mailako eskailera txiki batean igota, 600 apaizgaiz osatutako abesbatza zuzendu beharrean egoten zen, eta baita egoki egin ere. Kantu, poesia eta bertsolaritzarako zaletasunak txikitatik sortu zitzaizkion; alde batetik, Lekuona-Berasategitarren tradizioak eraginda eta, bestetik, orduko apaizgaien artean ohikoa ez zen bere gaitasunagatik. Behin baino gehiagotan entzun nion bera *Orixeren meza* liburuaz alfabetatu zela: *Urte guziko Meza-Bezperak* (1949). Dena den, ordurako J. M. Lekuonak ondo zekien bere herriko hizkuntza, euskara, eta euskaraz idatzi zuen bere produkzio poetiko osoa.

3.–Hurbileko oroitzapenen artean berak zuzendutako nire doktorego tesiari loturikoak daude. Gogoan daukat tesi horren defentsarako Renora (Nevada) egin zuen bidaia, eta bereziki gogoan daukat 1990etik aurrera igarotako urteak, bai Deustuko Unibertsitatean (Donostiako campusa) bai Euskaltzaindiko Literatura Bartzordeko bilerak, non bera buru izan genuen.

80ko hamarkadaren erdialdean erabaki nuen Nevadako Unibertsitatean euskal literaturako doktoregoa egitea, 1979an hasi nuen euskara-ingelesa hiztegiaren proiektua alboratu gabe. Literatura frantses (1978) eta espainiarreko (1979) nire bi lizentziatura amaitu ondoren, bide horretan jarraitzeko asmoa hartu nuen, baina euskal literaturaren barruan. Hasieratik oso argi nuen nire doktoregoa tesiaren gaia bertsolaritza izango zela. Administrazioak eskatutako asignaturen kredituak bukatuta, W.A. Douglass-ek, PhD Tutorialaren zuzendariak, eskatu zidan Renora eramateko nire tesiaren zu-

zendari gisa literaturan hoberentzat edo hoberenetakotzat jotzen nuen aditu bat. Ez zait ahaztu hasieran pentsatu nuela bi irakasle gipuzkoar egokiak zirela: J.M. Lasagabaster eta J.M. Lekuona. Denaren den, kontuan hartuta nire tesiaren gaia oso berezia zela, bertso-laritzea hain zuzen, Oiartzungo olerkaria hautatu nuen.

Renoko "Doktoretza Tutorialaren" betekizunetako batek doktoregia urtean zenbait hilabetetan tutorearengandik hurbil igarotze-
ra behartzen zuenez, udako hilak aprobetxatzen nituen Euskal Herri-
rira joan eta nire tutorearen orientabideak jasotzeko. Lekuona irakasleak gonbitea atsegin handiz onetsi zuen eta lehen aldiz Donostiako Seminarioko bere bulegoan hartu ninduen. *Abozko Euskal Literatura* bere liburuan egin zidan eskaintza dela-eta, eguna gogoratzen dut: Gorkari, San Antonio egunean, elkar lanerako. Juan Mari. 1985. Horrela hasi zen sortzen hogeitaz urtez iraun duen benetako adiskidetasuna. Nire lehenengo iritzia berari buruz on ona izan zen; egia esateko, espero nuena, zeren ongi ezagutzen bainuen apaiz onbera honen ibilbide eredugarria. Lehengo bera izaten jarraitzen zuen, kilo batzuk gehiago hartuta, baina izaera berberekin: lotsati samarra eta eskolan ikasten ez diren sentiberatasun eta heziketa berezietan jabea. Oso gizon erlijiosoa zen, Bibliaren irakurle sutsua, Jainkoaren ideiatik abiatuta edertasuna bilatzen zuena; gizakiaren maitale, batez ere gogoko zituen txiroak, gaixoak eta zaharrak eta beraiei eskaintzen zien igandeko meza. 60ko hamarkadaren amaiera aldean sekularizazioak seminarioak astindu zituen arren, Juan Marik beti tinko eutsi zien bere printzipio erlijiosoei. Bere bizitzako une batean, Gipuzkoako elizbarrutiko prelatuaren iritziarekiko desadostasunagatik, Donostiako Seminarioko aita izpiritual postua utzi behar izanak ez zion galarazi Nazaretako Jesusen doktrina ebanjelikoaren jarraitzaile fidela izaten segitzea. Berau zegoen gogoeta eta otoitz ordu lasai eta luzeei esker gordetako bere fede kristauaren hondoan. Ez da harrizkoa B. Gandiaga olerkari frantziskotarrak, hil baino egun batzuk lehenago (2001-II-21), Arantzazuko Santutegitik deitu izana. Biok apaiz eredugarriak izan ziren, erlijioari buruzko uste sendokoak, adiskidetasunak eta elka-



*Fernando Larruquert, Bitoriano Gandiaga eta Juan Mari Lekuona Oñatiko
Unibertsitatearen aurrean (2000).*

rrenganako mirespenak batuta zeudenak. Olerkari gipuzkoarrak honela deskribatu zuen bizkaitarra: Euskal poetak izan daitezke onak, oso onak edo Gandiaga.

4.–Renon tesia defendatzeko eguna hurbiltzen ari zen eta, 1987ko uztailaren bukaeran, Donostiako erietxe batean hil zorian zegoen bere osaba Manuelez arduratzen zen bitartean, nire lanaren lehenengo kapituluak zuzentzen zituen. Erromako egonaldi luzeez eta, bere doktoretza zela-eta, Portugalera egindako bidaia labur batzuez gain, J. M. Lekuona ez zen mundutik ibilitako pertsona. Baina gertakizun hartarako itsasoz bestaldera joan behar izan zuen. Berez horrelako bidaiak nekagarri suertatzen dira edozein bidaiari-arentzat eta, kasu honetan, gure Oiartzungo olerkariarentzat are gorragoa izan zen bertako hizkuntza ez jakiteak eta esperientziarik ezak eraginda. Abuztuaren amaieran New York-etik San Francisko-ra TWA aire konpainian egin zuen hegaldia, eta bera hartzera nire emaztea eta biok aireportu kaliforniar horretara joan ginen. Berandu zen, ordurako gaeuz, eta biok adi-adi geunden hegaldi hartako irteera ateari begira. Harrituta geratu ginen hegaldiko azken bi-

daiaria irteten zela ikustean eta Lekuona irakaslea ez zela inondik agertzen. Azafatari galdetu genion ea TWA-ak irteera ate bat baino gehiago zuen eta baietz erantzun zigun. Berehala konturatu ginen zer gertatzen zen eta bidaiari etorri berriek maletak hartzen dituzten tokira arineketan urreratu ginen. Hura poza! Hantxe zegoen Juan Mari, lasai, bere ohiko irribarreaz, gu heltzen ikusteaz pozturik. Gure kotxean lau orduko solasaldi atsegingarria egin ondoren, goizaldean Renora iritsi ginen, nekatuta baina alai. Inoiz ezingo diot behar bezala eskertu nire doktoretza tesia defendatzeko mahaian egoteko egin zuen ahalegina.

Gogoan daukat gurean bi aste igaro zituela, eta denbora hori erabili genuen nire tesia zuzentzeko. Orduan hurbiletik ikusi nuen bere giza maila eta ohartu nintzen jakituria handia zuela. Batzuetan, gure etxeko lorategian zuzentzen genuen tesia eta, beste batzuetan, Renoko Unibertsitateko liburutegi berrian. Nevadako basamortuaren edertasuna eta eguzkiaren argitasuna zirela-eta lili-ratuta geratzen zen, eta harritu ere egiten zen unibertsitatean zeuden ikasteko gune zabalak ikusita. Dena arretaz begiratzen zuen, xehetasunik txikiak galdu gabe. Bitan gogo biziz jarraitu zuen Renoko zeru urdina zeharkatzen zuten dozenaka globo koloreanizten hegaldiaren ezohiko ikuskizuna, alboan 2000 metro baino gehiagoko Mount Rose mendia zegoela.

Ikusi genituen toki harrigarrien artean, gogoratzen dut Renoko Pyramid Lake-ra joan ginen eguna. Egun batzuk lehenago Tahoe laku ederra ikusi genuen (Kalifornia eta Nevada artean, jendez gainezka dagoen turismo gunea). Arratsalde hartan ez nuen harengan harridura zantzurik sumatu. Baina Pyramid Lake-ra bidaiatu genuen egunean erreserba indiar batera eraman genuen, eta alderdi eder eta bakarti hartako taberna-etxola bakarrera kafe bat hartzera joan ginen. Mahai batean elkarren aurrean eserita geunden eta, halako batean, konturatu nintzen nire elkarrizketari ez ziola jaramonik egiten eta nik hautematen ez nuen zerbaiti so zegoela. Atzera begiratu eta zimur sakonez ildaskatutako aurpegia zuen eta alkoholaren

eraginez sorgortutako agure indiar bat ikusi nuen. Urte batzuk geroago aitortu zidan *paite* indiar haren ikuspena izan zela zirrararik handiena egin ziona. Orduan gogoratu nuen kontatu zidala Pasai Donibanen bere adiskide Bitoriano Gandiagari antzeko pasadizo bat gertatu zitzaiola Gipuzkoako txoko eder horretako balkoietan eskegita zegoen arroparen kolore ugariak ikustean. Olerkari bizkaitarra txundituta geratu zen ikuskizun haren aurrean, Juan Mariren moduan Renon.

Azkenik, nire tesia defendatzeko eguna heldu zen: 1987ko irailaren 17a. Bezperan galdetu zidan ea joan behar genuen jaka eta gorbata jantzita. Juan Mari azaldu behar zuen ekitaldiaren garrantziaren arabera janzten zen gizon dotorea zen. Lasaitu nuen esanez amerikarrak janzteko oso informalak zirela; baina, bada-ezpada, etxetik irteterakoan geure gorbatak jakaren poltsikoan sartu genituen. Izan ere, epaimahaikide bat, Nelson Rojas txiletar katedraduna, jakarik gabe aurkeztu zen mahuka motzeko alkandora bat jantzita. Orduan, Juan Mariren zalantza guztiak desagertu ziren eta lasaiago geratu zen.

Urte batzuk geroago aitortu zidan Renon, Amerikara egin zuen lehenengo eta azken bidaian hain zuzen, egun ahaztezinak igaro zituela. Pozik ikusi zuen bertan zegoela Euskal Herritik kanpoko liburutegirik hoberena. Han aurkitu zituen bere jaioterrian ikusiak ez zituen hainbat dokumentu. Egun horietan handik gutxira II Nazioarteko Euskal Biltzarrean euskaraz irakurri behar zuen hitzaldia ere prestatu zuen. Hitzaldi hori geroago *Congreso de Literatura* (Madrid, Castalia. 1989: 495-525) liburuan gaztelaniaz argitaratu zuten: "La lírica popular vasca en el siglo XVIII". Euskal Herrirako bidaia erosoago gertatu zitzaion elkarrekin egin baikenuen. Hala ere, ez zitzaigun ezustekorik faltatu. Oso goiz altxatu ginen eta Renon lehenengo hegazkina hartu genuen San Franciscora joateko eta, geroago, New York-era. Gure hegazkina aireratzeko prest zegoen, baina hegazkinean sartzeko aretora iristean, 500 lagun inguruko talde handia zegoela ikusi nuen. Denak urduri zeuden libre gera-



Juan Mari Lekuona, Mertxe Renobales eta Iker Aulestia, Oiartzunen 1988ko uztailaren 30ean. Euskaltzaindian sarrera bitzaldiaren egunean.

tzen ziren hiru tokietako bat lortzeko. Ikuskizun horren aurrean Juan Mari lasai zegoen; ni, ordea, ez oso, zeren bidaian hainbeste nekatu ondoren ez bainuen onartzen gaua New York-eko aireportuan igaro behar izaterik. Nire urduritasuna handituz zihoan Renon eman ziguten erreserbaren agiria galdua nuela ohartzean. Nire adiskideari azaldu nion eta ez zen larritu. Niri jarraitzeko esan nion eta jende taldea zeharkatuz azken ateko kontrolera hurbildu ginen. Arduraduna ia bi metroko gizon beltza zen. Oso hizkera atseginean errepikatu zidan arratsalde hartan askotan erabilitako leloa: "Ez dago eserleku librerik". Nik tematzen jarraitzen nuen eta, azkenean, hiru eserleku baino ez zirela geratzen erantzun zidan, horietako bat pilotu madrildarraren alabarentzat eta beste biak urrutitik zetozen bi pertsonarentzat. Eskatu nion bi pertsona horien izenak ordenagailuan egiaztatzeko. Eta bai horixe, gure izenak ziren. Gu txitan sentitu dut holako lasaitua bizitzan!

5.–Urte batzuetan unibertitate berean irakasten eta baita bulerago berean ere elkarrekin egotea aukera ezin hobea izan zen niretzat hurbilagoetik ezagutu eta gure adiskidetasuna sendotzeko. Mo-

mentu onetan zein ez hain onetan beti egon zen nire ondoan, eta, besteak beste, kontatzen zizkidan Donostiako Seminarioko eta unibertsitateko irakasle bizitzaren gorabehera batzuk. 1989ko udazkeneko goiz eder baten oroitzapen berezia daukat gogoan. Goiz hartan Donostiako Aquarium-aren gaineko terraza batean biltzeko geratu ginen. Berak *Mimodramak eta Ikonoak* (1990) liburua-
ren probak zekartzan. Poesia batzuk irakurri zizkidan: "Alegoria", "Racconto", "San Martin Txiki", "Barandiaran", etab. Ni harrituta nengoen eta halako batean esan nion: "Juan Mari, hire poesia ulertzeko Pl. Mujikaren hiztegi handiak behar ditugu alboan". Berak irribarre egin zuen. Zoriontsu ikusi nuen aita baten moduan semea jaiotzean.

Liburu hori maitasun bereziaz gordetzen dut, besteak beste, egindako eskaintzan hain atsegingarri zuen gure lorategiko urkiari eta bi hilabeteko haurdunaldia zeraman nire emazteari buruzko aipamenagatik: Gorka eta Mertxeri: urkia berde, Iker bidean zen. Renoko egunak eta betiko adiskidantza gogoan. Juan Mari. 1990-VI-19.

Gure Donostiako lanaldiaren unerik onenetako bat heltzen zitzaigun Juan Marik, hain ohikoa zuen jarreran, hots, bi eskuak mahaiaren bazterrean jarrita, kafea hartzera gonbidatzen nindue-
nean. Kafetegiaren ondoko areto batean sartu eta solasaldia izaten genuen. Sarritan bere poesiari buruz nik egindako lantxoak irakur-
tzen zituen edo, batez ere, beste edozein idazleren obra. Arreta eta interes berberaz entzuten zekien. Azkeneko urteetan bere klase or-
du bakarra eman eta gero, nekatu samar ikusten nuen. Bere erreti-
roaren ordua iritsia zelako ustean zegoenean, bere asignatura har-
tzeko gonbitea egin zidan, eta nik gustura onartu nion. Baina, elizbarrutiko administraziora egin zuen ikustaldi baten ondoren, berehala etorri zitzaidan esateko irakaskuntzan beste bi urtez ja-
rraitzeko gomendioa eman ziotela. Antza denez, Unibertsitateak urte batzuetan ez zion beragatik ezer ordaindu Gizarte Segurantzari eta erretiro egokia lortzeko irakaskuntzan denbora gehiago aritu behar zuen. Adierazi nion gauza batzuk ulertzea kostatzen zitzai-

dala, baina albisterik onena zela etorkizunean bulego berean elkarrekin jarraituko genuela.

1992an honako izenburua zuen artikulua idatzi nuen: "Juan Mari Lekuona: poesia landuaren eta herri literaturaren artean" (*Mundakiz*, 1993, 45. alea: 37-58). Aurrera nindoan heinean biziki interesatzen zitzaidan puntu batera heldu ginen: bere egonaldia Erromako Unibertsitate Gregoriarrean eta doktoretza tesia: *Diario Ascético Pastoral de Fray Bartolomé de los Mártires OP (1514-1590)*, Erroman latinez defendatua eta 1966an gaztelaniaz argitaratua. 1992ko abenduaren 11n (nire urtebetetze eguna) Juan Mari bulegoan azaldu zen opari eder hau zekarrela. Azalean idatzita dago: "Auctore Juan Maria Lekuona. Dissertatio ad Lauream in Facultate Theologica Pontificiae Universitatis Gregoriana. Romae, 1966". Barruan eskaintza labur bat du: "Gorkari, urtebetetzean oroigarri. 1992-XII-11. Juan Mari". Berriz portaera sotileko gizon adeitsu hark dendentan nekez aurki daitekeen liburu bat oparitu zidan. Liburu horrek 39 urteko apaiz gazte baten ahaleginak jasotzen zituen, bere bizitza akademikoaren garai garrantzitsu batean.

6.-Euskaltzaindian egiten genuen lanak hilero elkar ikusteko aukera ematen zigun, eta, aldi berean, berak zuzentzen zuen Literatura Batzordeko beste kide batzuekin eguna pasatzen genuen. 1989-1990 ikasturtean Deustuko Unibertsitatean (Donostiako campusa) irakasle sartzean literatura egitasmo bat aurrera eramateko gonbitea jaso nuen (Euskal Herriko unibertsitateetako euskal literaturako irakasle guztiei luzatua). Gonbitea onartu egin nuen, batez ere 14 urtez kanpoan izan ondoren, neure lurrean finkatuz joateko, baita lagun berriak ezagutzeko ere. Orduetik gaur arte hamabost urte eman ditugu elkarrekin lanean. Hau ere aukera paregabea izan nuen Lekuona irakaslea hurbilagotik ezagutzeko. Gainera euskal literatura eta metrikari eta hainbat gairi buruzko bere lan zoragarriak ikusi ahal izan nituen. Lan bat aurkeztu behar zuen baikoitzean garbi antzematen ziren Gasteizko Seminarioan eta Erromako Seminario Gregoriarrean izandako ikasle esperientzia luzea,



Juan Mari Lekuona Euskaltzaindiaren Donostiako ordezkariaren aurrean.

txikitatik Oiartzunen pilatutako ahozko literaturari buruzko ezagupenak eta bere sorkuntza poetiko zoragarria. Zeregin komuna duen edozein giza taldetan bezala, batzuetan eztabaida sortzen zen. Orduan, gure lagun eta jakintsu apal haren hitz zuzena (“*primus inter pares*”) inposatu gabe nagusitu egiten zen. Behin bakarrik ikusi nuen urduri eta bero samar. Lagunetako batek, bere ustez, neurria gairiditu zuen historiaren garai bateko Elizaren kontra egin zituen erasoetan. Baina, orokorrean, bere izaera beldurri samarraz eta, batez ere, bere ontasunaz, pertsonen arteko borroka saihesten zuen, ez zuen inortaz gaizki hitz egin nahi eta zuzentzeko zuhurtasunik handiena erabiltzen zuen. Norbaitek esan zuen “gizon artean bizi izan zen aingerua izan zela”. Behin baino gehiagotan pentsatu izan dut beraren eta bere osaba Martinen artean (Francoren tropek hila) egon daitezkeen paralelismoetan. Pentsamendu hori etorri zait irakurri ditudanean Martin Lekuonari buruz Mateo Múgica apezpikuak *Imperativos de mi conciencia* (1945) eta José de Artechek, Musituko (Araba) eta Errenteriako (Gipuzkoa) apaiza izan zenaz *El abrazo de los muertos* (1970) liburuetan egindako iruzkin laudatzaileak.

Liburu berri bat argitaratzerakoan, arau batzuk zituen: bere liburuaren argitalpenak ez ziren 1000 aletik pasatzen eta saldu arte hamar urtez itxaroten zuen hurrengo liburua argitaratzeko. Urte batzuk igaro ziren *Mimodramak eta Ikonoak* kaleratu zenetik eta etorkizuneko bere asmo poetikoei buruzko galderak egiten hasi nintzaion. Behin aitortu zidan prestatuta zuela bere azken poesia liburua eta gaia Jainkoa, basamortua, bizitza erlijiosoa, otoitza etab. izango zela. Batzuetan indar faltan zegoela ikusi eta egitasmo horretan jarraitzeko animatzen nuen, gaixotasunak geroago ahalegin intelektual oro galaraziko ziola une horretan jakin gabe. Bestetik, ez dakit zer utzi zuen idatzita poesia liburu berrirako, baina uste dut (sorkuntza poetikoari ekin baino lehen egin ohi zituen aurre-*tiatzko "planoez"* gain) ez zuela gehiago egiteko astirik izan.

Horrela pentsatzeko beste arrazoi bat ere badago. Juan Mari bere jaioterria biziki maite zuen, eta argitaratutako azken liburua egiteko hitz eman zuen, hori zela-eta urtebetez lan handia egin zuen: *Oiartzungo Kantutegia* (1999). Liburu honetako eskaintzak ahazten saiatzen nintzen zerbait sumatu eragin zidan. Behin esan zidan zorabio moduko batzuek ez ziotela autoa gidatzen uzten. Obra hau, eskaintza barne, adiskide berezi baten testamentu ederra bailitzan gordetzen dut: Gorka: aspaldiko harremanak ditugun arren, euskal poesiari buruzkoak, nire azkeneko liburua gogoangarri hariezadazu. Juan Mari. 1999-X-17.

Artikulu honen hasieran ohartarazi dut apaiz eredu garri honen bizitza erlijiosoaz ez nuela idatzi nahi eta, horregatik, ez naiz sartu gai horretan. Hala ere, lana bukatzeko, emadazue baimena Juan Mari apaizari buruz idatzeko. Inoiz ez zuen bere apaizgoa harrokeriaz agertu, baina sakonki bizi izan zuen: bere herriko ospitalean 30 urte baino gehiagoz igandeko Eukaristia ospatuz, opor hilean apaiz lagunak ordezkatuz, azken urteetan Astigarragako (Gipuzkoa) moja komentu batean X. Lete eta Joxean Artze euskal olerkariekin batera Aste Santua ospatuz, Belloc, Estibalitz eta Arantzazuko monastegietan liturgia testu latindarrak itzultzeko bileretara joanez, Lourdeseko Ama Birjinaren harpera ia urtero bisita eginez

(han noizbait negarrez ikusi zuten herriko kanta entzutean), bere etxean Meza emanaz, testu biblikoez hausnartuz, Errosarioa errezatuz, etab. Gure Juan Marik inoiz ez zuen egin euskararen aldeko defentsa teorikorik ez egoera klerikalaz, baina apologiarik hobere-na euskaraz idatziz eta apaiz bokazioa sakonki biziz egin zuen. Goian bego!

Gorka Aulestia

Gasteiz, 2006-XII-5



Vatikanoko San Pedro plazan, iturriak eta obeliskoa erdian.


BIZIAREN LABURRA

Erromako iturriak,
oparoak, ur garbiak...
Eske egin dit biziak
– "Zergatik gaude
egarriak?"

Erromako piñu gotor,
ostro ilun, tristurakor...
Biziak badu bere zigor:
aren atzena
laster dator!

Erromako bakar-harri
Plaza erdian edergarri...
Biziak nauka ameslari:
ederra dala,
iraungarri.

Ene bizi, goi ta beheko
atsedenikan gabeko:
ez nago amur emateko,
jaio baino lehen
zu uzteko!
(Roma, 1960-III)



Juan Mari Lekuona Saturrarango Apaiztegi txikiko ikasleekin.

III

JUAN MARIEN ESKOLAN

Anjel Lertxundi

Sentitzen badut
berriz haren kanta
(errotaren tranka)
barne-minduraz nagoke berriro...
(*Errota zahar*)

Oroitzapen baten edertasuna bat-batekoa izan daiteke, itsasoa kolpean zakartzen duen denborale lehertu berri baten antzekoa. Saturraran aipatze hutsa galga horretako edertasunaren ispilu da bertako apaizgaitegian ikasi genuen askorentzat: itsasoa uluka, haitz zorrotzak zerua urratzen, basa hondartza harritsu...

Oroitzapenek dakarkiguten edertasuna, ordea, hori baino pausatua izan ohi da gehienetan. Nareagoa. Lipar eder askoren sorta. Saturraranen pasatu nituen bi urteetako nire oroitzapenak gehiago du bigarren galga horretako eder minetik. Memoriak egun argitsuetako urrez itzultzen dizkit, baiki, oroitzapen gehienak, baina, ederrak eder, nostalgiak toki gutxi du nire atzerako begiradan. Arrangurak, berriz, batere ez. Bai, mingarriak behar zuten izan orain txantxetan kontatzen ditudan orduko heziketak umotutako pasarte batzuek, baina nork bere ukenduak ezartzeko eskubidea baitu memoriari buruzkoetan, gure apeten araberako musika jartzan ahalegintzen gara egun joanei. Bestela, zoratzekoa litzateke oroitzea; areago, kontu mingarrien gainean egina baldin bada oroitzeko ahalegina.


Hamaika urte nituen Juan Mari Lekuona ezagutu nuenean. Irakasle izan nuen eta, ez da dudarik, eguneroko tratua izango genuen giro itxi estuko elkarbizitza hartan, baina Juan Mari oso gutxitan ageri zait Saturraranen egin nituen bi urte haietako koadroetan. Memoriaren zirkiluetan barrena atzera-aurrera ibili arren, ezin ditut zehaztu ez lehendabizikoz ikusi nuen eguna ez nondik norakoak. Nire gaurko Lekuonak leku gutxi du bi urte haietako albumean, nire orduko memoriaren bilduman oso argazki bakanetan dago gero hainbeste eragingo zidan irakaslea eta laguna.

Apenas ginen egokitu elkarrekin, ez dut gogoratu beharrik euskarak enkontruaren adiera ere ematen diola egokitu hitzari.

Utziko ditut baserria eta
Nentorke dena uztera,
Utzi agian euskara.
(Porlandi)

Hor ikusten dut neure burua Zabala-Aranaren gramatikaren aurrean. Txundituta nago, lehendabiziko aldia baita euskara ikusten dudala eskolan eta gramatika baten kanonpean. Txundituta, halaber, euskararen kanoneko orden alfabetikoa ez delako gaztelaniarena, sabindarrek asmatutako ordenamenduaren araberkoa baizik.

Euskarazko nire lehen eskola haien oroitzapenak ez du gozo handirik, eta nork irakasten zigun euskara ere, duda egiten dut. Nolanahi ere, egun batez —oporak hartu eta etxera itzultzeko bezpera zen—, Lekuonak, ez dut gogoan zergatik, ehun orri ere ez zituen liburutxo bat oparitu zidan. Azal horixkan, arbola berde bat. *Euskal kantak* zuen izena Euskaltzaindiko argitalpen hark. Iltzatuta geratu bazait memorian, etxean gertatu zitzaidanagatik da: liburuan jasotako kanta tradizionalen bat abesten hasi ginen senideak. Aitak, liburuxkari begiratu zorrotz azkarra zuzendu eta gero, "na-



*Saturrarango Seminario txikian gramatika irakasle eta prefektu izan zen
Juan Mari Lekuona 1960 eta 1963 artean.*

zionalistena da!" bota zuen sententzia. Auskalo zer ulertuko nion aitari, baina liburu apal hartan zeuden kanta ederrak baziren bereak ere. Gure aitak damu zuen, ordea, gaztelania ez jakitea eta etekin gutxikotzat zeukan euskara. Ia berrogeita hamar urte pasatu dira ordutik. Nago ez dugula gainditzen asmatu anekdotak erakusten duen euskararenganako aurriritzia; nago, halaber, euskaltzaleok ez diegula zorrotz begiratzen euskarari eransten dizkiogun euskaltzaletasunaz harantzagoko balioei.

Euskaltzaindiko liburutxo bat, beraz. *Alos Torrea* bezalako kantuak ere irakasten zizkigun... Orain dakigunarekin, aise osa deza-kegu nik eta nire inguruak ez zuten humus hura: osaba, euskalari ezagun, biblioteca ondo hornitua etxean, harreman estuak garaiko euskararen inguruko mugimenduekin; ondo ezagutzen zuen euskal tradizioa... Orduan, ordea, nik ez nekien deus antzeko kontuez. Hala ere, bada kontu bat nire orduko sena xaloak sumatzen zuena: Lekuonak, euskara maitatzeaz gainera, bazuen euskararekin beste zerbait, eta da letren grina. Idatzi ote zuen ezer Saturraranen egon zen urte laburretan?

Gaztelaniazko literatura irakasten zigula, bai, gogoan dut hori: Lekuonari zor dizkiot, adibidez, figura literarioari buruzko zimentarriak. Eta ondo gogoan dut handik urte batzuetara aipatu nion kontu bat ere: Juan Marik bazkal ondorengo atsedeneren ondoren ematen zuen literatur klaseetako bat; eta horra non denok hain gozoa eta hain adeitsua ezagutu dugun gizonak pipertuta ematen zingun eskola. Siesta laburregiari egozten genizkion guk bazkal ostee-tako petralkeria haiek. Orain, ordea, badakit bazegoela zerbait gehiago ere. Lekuonak —inoiz berak ere aitortu duen kontua da— desterruan sentitzen zuen bere burua Saturrararen. Añorgako parrokiatik kendu zutelako, hori da argibiderik naturalena. Baina egingo nuke desterrutzat zeukala hamaika hamabi urteko mutilen artean jardun beharra ere. Hura ez zen bere egitekoa, ez zegoen bere tokian:

Sagaratuaren leku,
ez aldare aurrean,
baizik munduan duzu,
hor, gizartean...

Poeman aipatzen den mundua ez zegoen, jakina, Saturrararen. Hona Lekuonak dioena bertso batzuk aurrerago:

Egunsentian
nahi nuke nigandik irten
inoiz galdezka,
inoiz azalduz sinesmen-kezka,
sagaratua non aurki,
korapiloa non eten...

Ez, Saturraran bezalako mundu itxi bat ez zen arragorik goriena, ez behintzat sinesmen-kezka zuen batentzat, sagaratua aurkitu eta korapiloa eteteko. Bazkalondo batez (bere familiarteko batek kontatu zidan anekdota), susto txiki bat izan omen zuten Saturrango apaiz-kideek: Lekuona falta zen, ez zuten inon aurkitzen. Haren gelara joanik, Lekuonaren sotana ikusi omen zuten ohe gainean. "Bainatzera joan eta ito egingo zuan!", eta horrelako izugarri-

kerien kabutan, alferrik jardun zuten lagunaren bila. Lekuona gau betean itzuli zen apaizgaitegira, Ondarroako moilan eta herrian —*bor, gizartean*— atzera-aurrera ibili eta gero. Gugandik ihesi, zergatik ez.

Oraindik entzuten ari naiz Lekuonak behin egin zidan aitortza:

"Ito egiten ninduan Saturraranen, ito!"

Mindura berriko oinaze zaharra
dauka munduak:
Erdi beharra.
(*Azken triptikoa*)

Donostiako apaizgaitegian egin nituen lehendabiziko hiruzpau urteei Saturrarango espazio naturala falta zaie nire memorian eta, aldiz, diziplina sobratzen. Gainerakoan, galga bertsukoak zaizkit bitako egonaldiak eta oroitzapenak. Baina Humanitateak bukatu eta Filosofiako ikasketak egiten hasi nintzenean, giroa aurreko urteetako baina askeagoa begitandu zitzaigun laster: Anton Artamendi agertu zitzaigun Paristik datorren artista filosofo baten gisa, Heidegger eta Beckett besapean zekartzala; Jesus Altunak eboluzioaren atea zabaldu zizkigun eta Teilhard de Chardin ezaguturazi; eta bertan topatu nuen, ostera ere Juan Mari Lekuona. Berrero, irakasle; berehala, lagun.

Ni eta nire ikaskideak ez ginen jada ume, irakasleek ordu arte ez bezalako begirunea eskaintzen ziguten, eta, jakina, geure heldutasunezko merezimenduei egozten genion jarrera aldaketa: hasita geunden geure buruak aintzat hartzen gazteek bakarrik dakiten modu nartzisistan.

Nolanahi ere, garaiak eta giroa ez ziren, ez, aurreko urteetakoak, baina gure gaztetasunak guk uste baina zerikusi gutxiago zuen hartan: ordurako abian ziren Vatikanoko II.ak ekarritako berrikuntzak; elizak eta kristautasunak eguneratu beharra zeukaten; ordu arte ia etsai gisa hartzen genuen mundua gero eta hurbilago ikusten hasi ginen,

eta ez goitik behera. Tituluren bat eman beharko banio garai haren kontakizunari, *Eztandaren egunak* ez litzateke txarra, eztanda sekulakoa egin baitzuen ordu arteko gure munduak: eztanda egin zuen apaizgaitegian, eztanda elizan, eta eztanda egin zuen, oroz gain, gure barne-muinetan. Askatasun pertsonalaren ideia bere baztertxoa hartzen hasi zen gure adimenean (ondo iltzatua dut gogoan zer nolako zirraraz aztertu genuen gaur hain arrunt ohikoa egiten zaigun askatasun erlijiosoaren gaia). Askatasunak, ordea, bazituen ni orduan jabetzen hasi nintzen beste alde gero eta deigarriago batzuk ere: intelektuala eta politikoa azpimarratuko nituzke.

Lekuonari dagokionez, umeen artean ez bezala zegoen nerabe eta gazteokin: lasaiago eta emankor. Ez zen beharbada *borroka latzak* gertatzen ari ziren toki batean egongo, baina bai, ordea, *erdi beharrrak* hartuta. Nabarmendu egiten zitzaion bai euskal literaturaz ematen zizkigun eskoletan, baita eguneroko tratuan ere. Lekuonak harreman bereizia zuen poesia eta artea gustatzen zitzaizkigunokin (orduan gusturago ekiten nion nik antzerkiari eta poesiari narrazioari baino, hala dira kontuak), eta nire zaletasunei esker, bion arteko harremana sendotzen hasi zen, kontu hauek gertatzen diren moduan hasi ere: natural-natural; Goetheren harako hautapen-ahaide-tasunen legeen arabera, alegia.

Bolada batez erromantze zaharrak esplikatu zizkigun klasean, eta nik, hamazazpi urte izango nituen, lan bat egin nion *Bereterretxeren kantoriari* buruz. Handik hogeit bat urte geroago, Seminarioan zeukan bulegora bisitan joan nintzaion batean, karpeta urdin bat ireki eta sei folio erdi eman zizkidan. "Begira zer aurkitu dudan nire paper zaharren artean". Nirea zen folio erdi haietako letra txiki-txikia, nirea baita ere Bereterretxeri buruzko lana. Altxor baten gisa gordetzen dudan opari bat izan zen hura, ez bakarrik guztiz ahaztuta neukan gazte-gaztetako lan bat itzuli zidalako: nik ondo dakit, eta irakurleak aise imajinatuko du, zer adierazten duen hainbat urtez eta *bere paper zaharren artean* nireak ere gorde izanak.



Juan Mari gitarrarekin abesten apaiztegian.

Jose Migel Barandiarani eta Jorge Oteizari: sinesteen kulturaren eta euskal estetikan
—zeini berea— zor diedana eskertuz.

(Mimodramak eta ikonoak)

Oteizarena izan zen garai hartan bizi izan genuen beste ezta-
detako bat, eta ez txikiena. Lekuonari ez zitzaion gustatu Oteizak
Quosque tandem... obran osaba Manuelen *Literatura oral vascan* gehie-
gizkoa omen zen latin-giltzari ematen zion egurra. Seguru asko
egurra emateko modua zen gustatu ez zitzaiona, Juan Mari Lekuo-
nak oso ondo ulertu baitzuen, eta baita oldoztu eta digeritu ere,
Oteizak zekarren iraultza.

Honela dio Oteizak *Quosque tandem...* saioan:

Cultura latina (religión, idiomas, arte, estilo) es la historia moderna de los
pueblos en íntimo contacto con el nuestro. También es nuestra historia, pero no-
sotros estamos dentro, tenemos dos almas (dos historias, 2 culturas vivas) y aun-
que sólo creemos viva la última, su historia no se explica con ella sola si no conta-
mos con nuestro estilo (intrahistoria) que no se ha borrado todavía.

Badira Oteizaren oihartzunak Lekuonaren garai hartako poetikan. Baina hamarratz jaunak baratze-baratze egiten baitu amarau-na, Lekuonaren *Mimodramak eta ikonoak* obran ikusiko dugu, ia berrogei urte geroago, horren aitortza ezin aratzagoa, atal honen atarirako hautatu dudan Lekuonaren eskaintza. Oteizarenganako zorraren kitapena ez dator, ordea, bakarrik, Barandiaranenari diogun zorrari lotuta baizik.

Tenemos dos almas dio Oteizak, eta bi arimak izan ditu kontuan Lekuonaren poetikak ere: *historiarena* eta *intrahistoriarena*, Oteizaren hitzekin esateko.

Lekuona izan zen Oteiza esku artean jarri ziguna: guk liburua irentsi genuen, bi arimei buruz eztabaidatu genuen, gero eta garbiago ikusten genuen gure *intrahistorian* sakondu beharra. Baina, Oteizak ez bezala, guk euskara bera genuen geure *intrahistorian* ibiltzeko biderik eta bide-makulurik behinena. Oteizarik gabe nekez uler daiteke multikopista batean botatako *Mindura gaur* argitalpen apalaren goranahi estetikoa, egia da, baina argitalpen harekin plazaratzen ari ginena *intrahistoriaren* fruitua zen, horra esana: Oteizak teorian esaten zuenak praktika begi-bistakoa zuen Lekuonaren lanean, gure lehendabiziko ahaleginetan.

Lekuonak bere lehen poemen argitalpena gure esku utzi izanak esan nahiko du zerbait gure arteko harremanaz, Lekuonak gudan jarri zuen konfiantzaz, bizi genuen konplizitate artistiko euskaltzaleaz. Eta fruituari dagokionez, multikopistan botatako liburuxka (apala izan arren, kolorezko paperean ia Oteiza imitatzen zuen azal batez argitaratua) metafora ezin hobea da orduko euskal kulturgintzaren egoerarena ere. Hark guztiak ezaren praxian hezten gintuen, bai, baina goranahi estetikoari uko egin gabe. Hasiak geunden etekinak ateratzen premiari. Multikopistan argitaratu genuen Lekuonaren liburuxka arte noblea zen: horrek harrotu gintuen. Bestalde, *Mindura gaur* liburuxkak ez zuen zerikusirik Lekuonak berak, urte batzuk geroago, *Ilargiaren eskolan* liburuko *karrosa* batean salatu zuen paper *couché* batez argitaratutako kultur subentzionatuarekin.



Juan Mari Lekuona Jorge Oteizaren etxean Zarautzen.

Liburuxka kaleratu (?) eta handik gutxira, bertako poemen erdal itzulpena eskatu zioten Aguilar argitaletxetik urte hartako gaztelaniazko eta *bizkuntza periferikoetako* poesiaren antologia baterako. Nire esku utzi zituen poemok, nik erdaratu nitzan. Lehendabiziko aldia zen halako eskari bat jasotzen nuela, ez nuen neure burua gai ikusten, baina ez nuen atzera egiteko adorerik bildu. Itzulpenari ekin nion. Lotuegia irteten zitzaidan batzuetan, libreegia bestetzuetan, baina Lekuonak, bide errazean akuilu eta aldatsetako neketan gantzura, arazoak leundu zizkidan, beti ere libertaterik kendu gabe. Behin lana bukatutakoan, bazkaltzera gonbidatu ninduen Donostiako Parte Zaharreko *Alejandro* jatetxera. Tripakiak eskatu zituen, Rabelaisen testuetako plater nagusiarekin ospatu behar genuela-eta itzulpena onik bukatu izana. Jaten hasi bezain laster, ordea, gorri-gorri jarri zen, izerdi patsetan, ondoezak emateko zorian.

"Ikaragarri gustatzen zaizkidak, baina alergia zioat piper-minari", esanez lasaitu ninduen. Gero, tripaki-platera garbitu zuen.

Handik hogeita hamar bat urtera, Euskal Herriko Unibertsitateak *Ibilbidea* izeneko Lekuonaren emari poetikoaren bilduma argitaratu zuenean, nik egindako *Mindura gauren* itzulpena onetsi zuten, Lekuonak berak hala eskatuta. Nire harridura eta esker ona agertu nizkion, baina nago oso motz geratu nintzela.

Harri eta herri liburuak zabaldu zidan ibilbide poetikoa (...). Arestiren molde poetikoa arraia zenez, gure aurrekoek erabilitako joera baino hurbilago zegoen herri poesiatik.
(*Ibilbidea*)

Lekuonak bere testu horretan darabilen *herri poesia* espresioak bitarikoak du zentzua: herri tradizioaren araberako poesiaz ari da poeta (hotsaz, noski), baina baita garai hartan nagusi zen poesia sozialaren joeraz ere (deiadarraz, alegia). Hor ikusten ari naiz Lekuona tarimaren gainean eta Arestiren liburua eskuetan duela. "Hona herri poesia, tradizioa eta modernitatea uztartzen dituen; hona Arestiren ekarri interesgarria". Hitzak ez ziren horiek izan, jakina. Berdin dio: garai hartatik datorkidan kontu bat da Arestiren ekarriari buruzkoa. Eskoletako batean, Arestiren liburuaz mintzatzen ari zitzaigularik, poemaren bat edo beste irakurri zigun horretarako zuen jaidura gozo hain bere harekin. Ez nuen onik izan harik eta Donostiako kalera jaitsi, liburua erosi eta irakurri nuen arte. Laster, Arestiren beraren *Euskal Harria* etorri zen. Gogoan dut "Eta zu, Treberis, benedikatua izanen zara munduko hiri guztien artean, zure sabeletik jaioko baita..." poemaz hitz egin genuela. Gainjartze marxista, kristau klixe baten gainean. Garaiak aldatzen ari ziren; ordu arte guk besterik uste izan bagenuen ere, mundua ez zegoen ondo egina; *krisia* hitzak arrakasta oparoa zuen; apaizgaitegia husten hasi zen gero eta lasterrago...

Askotan galdetu diot neure buruari nola bizi izan ote zituen Juan Marik —eta nola bizi izan ote zituzten irakasle genituen apaizek— garai haiek. Lekuonak hitz telegrafiko batzuk idatzi zituen horretaz *Ibilbidea* liburuaren hitzaurreako:

Seminario Nagusiko hezitzaile-taldeko geure karguak Apezpiku jaunaren esku utzi genituen. Dimisioa onartu zitzaigunean, nik neuk Erromara joatea erabaki nuen, nahiko aurreratuta neukan tesis doktora bukatu eta defendatzeko.

Beste hitzik ez orduko krisiaz, bera hezitzaile izanda apaizgaitegia hustu zuen egoeraz. Eta Apezpikuak Lekuonaren-eta dimisioa onartu bitartean, literatura izaten genuen guk hizpide nagusi. Bere krisia bizitzen ari zen Lekuona, ni neurea, eta literatur solasaldietan hartzen genuen biok babes, ezin dut beste modu batean espresatu orduan gertatu zitzaiguna. Horretaz gainera, "eliza pobrea, denontzat hobea" kantatzen genuen guk, nik gero eta etsipen harroagoz eta baita su apalagoz ere. Behin, Julen Lekuona etorri zitzaigun errezitaldi bat ematera. Bukaeran, Juan Marirekin egon nintzen. Julen gugandik hurbil zegoen jendearen onespentak jasotzen, eta Juan Marik, anaiari begiraturik, hala esan zidan irribarre ironiko batez: "Orain arte Manuel Lekuonaren iloba ninduan; orain, berriz, Jule-nen anaia nauk". Ez nion ezer erantzun; niretzat, ordea, guztiz alderantziz zen: Juan Marik bazuen Manuel izeneko osaba bat



Irun Sarien epaimahaikideak: Ezkerretik hasita, Joxe Auxtin Arrieta, Anjel Lertxundi, Juan Mari Lekuona, Santiago Aizarna eta, bizkarrez, Jose Antonio Mujika.

Euskaltzaindian, Juan Marik bazuen Julen izeneko anaia bat kantaria... Nago urteak aurrera nire pertzepzio hura ari dela gure herrian nagusitzen.

Kontu jakina da gazte bat idaztera daraman lehen bultzada mimetikoa izaten dela gehienetan. Ni, gorago esana dut, poesiaren eremuetan ibiltzen nintzen sarrien, eta nire mimesirako joerak oso hurbil zuen eredu imitagarrietako bat: Lekuonarena. Baina banuen ispilu gehiago, haietako asko Lekuonari esker ezagutu nituenak: Lizardi eta Orixe; García Lorca, Blas de Otero eta León Felipe, Claudel eta baita *Kantiken kanta* ere... Lekuonari esker ezagutu nuen Bernanos edo Leon Bloy-ren prosa, askotan hitz egin nuen berarekin Charles Moeller-en *Literatura del siglo XX y Cristianismo* saioko lau liburuetan ageri zen hainbat autorez, Camusi buruz batez ere. Orduan ikasia dut Camusen hura, gero nire bizitzako gorabeheretan oso kontuan eduki nahi izan dudana hausnarketa: "Gizakiarengan kontu miresgarri gehiago dago beti, arbuiagarria baino". Ikusita-koak ikusita, zaila da muturreko egoeretan esaldiari eustea, baina, eragozpenak eragozpen, esaldiko hausnarketa ez da bide-makulu kaskarra liskar-giroetarako.

Egin beharra dut Bertolt Brecht-en aipamena ere: idazle alemanak orduan eragin zidan zirrara hor geratu zen jasota nik ere multi-kopistan argitaratu nuen *Gaurko literatura* saiotxoan. Imajinatzen ari naiz Lekuonak nire ausardiari eskainiko zion irribarrez mozorro-uriko zirkin ironikoa.

Baina luze joko bailidake zor guztien zerrenda egiteak, balia dezadan oroitzapen bat orduan hain ugariak izaten ziren joan-etorri literario ia klandestinoen berri ere emateko. Behin, karpeta urdin puztu samar bat luzatu zidan Lekuonak. Karpeta zabaldu nuen. Folioak eta folioak, makinaz idatzita. Han ageri ziren poemek harapatu egin ninduten. Nik artean izenez ere ezagutzen ez nuen batena zirela esan zidan Lekuonak: horrela izan nuen Joxe Azurmendik handik pixka batera *Hitz berdeak* izeneko liburuan bilduko zituen hainbat poemen berri.

Barru marmar honetan
Ez dezaket segi.
(Lo hartzen dudanean).

Azken bi oroitzapen. Biek apaizgaitegiko kapera dute agertoki, eta Juan Mari, berriz, protagonista. Ez zen elizkizunetan-eta gehiegi aritzen. Gogoratzen dudanaren arabera, ez zen gehiegizko debozioen eta pietatezko manifestazioen zalea, sotila zen eta forma apalak maite zituen, uste dut —interpretatzen ari naiz— ez zela batere eroso sentitzen erlijioaren manifestazio publikoetan. Behin, arratsaldea zen, *platika espirituala* deitzen genion jardun haietako bat eman behar izan zigun. Apaizgaitegitik oso hurbil, mendipean, *Etxe Maite* putetxea zegoen. Ikasleok askotan hitz egiten genuen hartaz. Ahapeka ari baldin baginen, etxe hartako joan-etorriek morboa eragiten zigutelako; fanfarroi zantzoka ari baginen, gure buruak han beheko koitadu haienen guztiz gainetik ikusten genituelako... Kontakizun dudan arratsalde hartan, *hor behoko* prostitutak aipatuz



Juan Mari Lekuona osaba Manuel ondoan meza ematen, beste lau apaizekin batean.

ekin zion jardunari. Gogor jardun zitzaigun: ez ginela haiek baino gehiago; zoriak desberdintzen gintuela, ez beste ezerk... Bihotza golkoan entzun genion, ez baitzen batere ohikoa *sagaratuaren alda-rean* mundukoak ziren hain kontu *baldarrak* aipatzea. Oinarrian, *Me-retriz hila* poemako lerro nagusiak jorratu zizkigun, ez besterik, bai-na guretzat ez zen gauza bera kontuok poema liburu batean irakurtzea edo *sagaratuaren aldare* aurrean.

Sagaratuaren aldarea du agertoki bigarren oroitzapenak ere. Juan Mari meza ematera irten zen meza-jantzi guztiekin. Nik konkrezio handiko hausnarketen bidez hartu izan ditut nire bizitzako erabaki nagusiak (narraziora emana izan ni!), eta kontuan izanda apaiz izateko prestatzen ari nintzela, galdera batek egin zidan zirrara: "Aitor ezak behingoz: guztiz deserosoa egiten zaik hire burua meza-jantzien barruan imajinatze hutsa". Hala erabaki nuen apaizgaitegia uztea. Krisirik gabe, bat-bateko burutazio baten eraginez? Gorabeherok ez dira, ordea, sinpleak izaten, eta gogoan ditut Lekuonak eta biok behin izan genuen elkarriketa bateko puntu nagusiak. Idazlea testuari zor zaiola, literaturaren autonomiaz eta antzeko gaien inguruan ari ginen. "Eta testuan isuri nahi duzuna ez baldin bada elizaren gogoko edo ez baldin badator bat fedea bizitzeko modu tradizionalarekin?". Galdera hori egin nionerako Lekuonak bazekien —nik baino askoz ere lehenago, ez dut horren zalantzarik— apaizgaitegia husten ari zen *sekularizazio* izeneko gaitzak jota nengoela neu ere.

Andu Lertxundi

Zarautz, 2007ko maiatzak 10



Jorge Oteiza eta Juan Mari Lekuona.



Oartzungo plaza ondoko Putxutx-erreka kalea.

ETXE BAT ERRETZEN PUTXUTX – ERREKAN

Lagunak eman didate
gaur enkargoa
era zaharrea bertoak
paratzekoa.
Ekin zaiogun lanari
umorez bertoak jarri
Oiartzungo bonbero fin
eta zintzoeri.

Preparazio handiko
pertsonek dira:
zerbait egin behar eta
kalian jira.
Esku bonbak harturik,
ez dute lots handirik,
Kastroko iturria
ezin pasarik!

Hoiek prest egonagatik
hau desgrazia!
Bonberoena fama ona
galdu zen iya.
Su-ekilak goiz batean
eguna hasteko aurrean,
etxe bat zela erretzen
"Putxutxa" kalean.

Noizbait ere lanean
ziraden hasi.
Han ez zegoen morroirika
denak nagusi.
Eñañi zen direttore,
hau zuzen eta dotore,
ezin bilatu hoberik
propio nahita ere!

Denok ongi jakinagatik
gauzaren berri,
uste ez zen petardua
hona etorri.
Bonbak hasi ziraneke
lehertu ziren instanteko.
Urik gabe, hau giroa
sua itzaltzeko!

Lo egin zazute trankil,
Oiartzuarrak,
ez dituzute behintzat,
zaindari txarrak.
Serenoa eta bonberuak
elkar uztarriztekoak:
bat beti lo eta besteak
horren antzekoak!

*(Oiartzun, sutea gertatu zen 1945eko uztailaren 24ean, Santiago bezperan.
Bertoak jarri nituen 1946an, gero 1950 inguru zuzenketak sartuz. Aurten,
2004ean, euskera batuko zuzenketak sartu ditut.)*



Juan Mari eta Julen Lekuona.

IV
JUAN MARI LEKUONA,
BERTSOZALE ETA BERTSOLARITZAREN
ERAGILE

Pello Esnal

Gizaki baten bizitza eta obra aztertzerakoan, ia saihestezina da zatika edo arloka jardun beharra. Hain da poliedrikoa gizaki oro. Zenbaitetan, ordea, nabarmenago azaltzen da poliedrikotasun hori; eta orduan, Juan Mari Lekuonaren kasuan bezala, are saihestezinagoa da poliedroaren aurpegiak banan-banan aztertzetik hasi beharra; uste izanik, sarritan, gizakiaren halako ikuspegi osoa eskuratuko dugula azkenean, behin aurpegi bakoitzaren azterketa gainerakoenekin batu ondoren. Hala ere, beti izaten dugu ezkutuan halako esperantza bat: ez ote dugun aurkituko, poliedroaren aurpegiaren azala urratu eta erdi-gunera inguratuz, gizakia era osoago eta batuagoan atzematea bideratuko digun giltza.

Hemen, lantxo honetan, bertsolaritzaren mundutik ikusiko dugu Juan Mari Lekuona: bertsolaritzari begira eta emana zuen alderdia –eta bihotza– azaldu nahi nuke. Bertsozalea eta bertsolaritzaren eragilea izan baitzen: bertsozale handia eta bertsolaritzaren eragile handiagoa.

Juan Mari Lekuonaren alderdi hori atzemateko, berriz, aukera ezin hobea eskaintzen digu Euskaltzaindiaren Herri-literatura batzordeko kide izateak. Batzorde hau zuen Juan Marik batzorde-

rik kutunena, hura hil ondoren Andoni anaiak esan zuenez. Batzorde honetako hiru kide ikusten ditugu, jadanik 1960an, Euskaltzaindiak antolatutako lehen bertsolari-txapelketan: Juan Mari bera eta Antonio Zavala, epaimahaikide, eta Alfonso Irigoyen, zuzendari¹. Batzorde hau dugu bertsolaritza urte askotan izan denaren gordailu bizia; hortxe daude, maitasunez jasoak, Euskaltzaindiaren ondorengo bost txapelketak –1962, 1964-1965, 1967, 1979-1980 eta 1982koak– eta horien inguruan nahiz horietaz kanpo bertsoaren munduan sortutako mugimendu eta gogoetak. Era berean, batzorde horretan jarraitu ditugu gertu-gertutik Juan Mariren lanak eta azterketak, bai hainbat eta hainbat bileratan, bai horietan antolatutako zortzi jardunaldietan, bai egiteko horien inguruan ondutako harreman estu eta oparoetan.

Hala, Euskaltzaindiaren Herri-literatura batzordean ezagutu dut hobeto Juan Mari Lekuona bertsogintzaren eragilea; ikasi dut haren idatziak hobeto irakurtzen, azalak eta mamiak bereiziz; eta atzeman dut zeinen lotura estuz, zer-nolako atxikimenduz, maite zituen osaba Manuel Lekuona eta haren obra. Eta, hain zuzen, maitasun estu horretan ikusten ditut bai Juan Mari Lekuonaren bokazioaren iturburua, bai haren egitismo zabala –bertsolaritzara mugatzen ez dena– ulertzeko giltza nagusia, bai, hitz batean, Juan Mariren alderdi guztiak barne-muinetan batera biltzen. Hain hala, behin baino gehiagotan irudikatu izan dut Juan Mari bere-berea egiten, osaba Manueli kantatuz, Xabier Amurizak aitari egindako agindu hura, 1980ko txapelketaren azken saioko bertso gogoangarri hartan:

Nik egingo dut arbola haundi
zuk emandako hazia.

Azken batean, Juan Mari Lekuonak berak aitortu zuen zeinen kideko ziren osabaren eta bere bokazio, langintza eta gustuak².

1. Zavala, 1960: 130.

2. "Nire aurreko euskaltzain osoaren oroipena egin behar eta, egoera nahiko be-rezian ikusten dut neure burua, osaba nuenez nik lekua hartzen diodan Manuel Lekuona, gure aitaren anaia. Eta odolaren lotura ezezik, eta bokazioan, lan-

Horregatik, orain, Manuel Lekuonak bertsolaritzan egindako lana azalduz hasiko naiz; ondoren, ia berez bezala –hazitik arbola bezala– ikusiko ditugu sortzen Juan Marik garatutakoak.

1. MANUEL LEKUONA: BERTSOLARITZAREN ERAGILE

Manuel Lekuona eta bertsolaritza aipatu orduko, haren bi lorpen nagusi etortzen zaizkigu gogora. Lehenik eta behin, nola berak atera zuen bertsolaritza prestigio-ezaren leizetik eta berak ipini zituena bertsolaritza era zientifikoan ikertzeko oinarriak³. Eta bigarre-

gintzan eta hamaika gustamoldetan genuen kidesuna ezezik, badut harekin beste zerikusi bat ere, adierazgarri xamar dena: osabak zuen espezializaziotik izendatu nautela euskaltzain oso, literaturatik batez ere.”

Juan Mari Lekuonak esanak dira, Euskaltzaindian sartzean egindako hitzaldian. (Lekuona, 1989: 12)

3. Antzeko hitzak darabiltzate Gorka Aulestia irakasleak eta Iñaki Eizmendi “Basarri” bertsolariak.

Basarrik idatzia da 1975ean (Eizmendi, 1984: 133-135):

“Garai batean bertsolaririk etzan aintzat artu ere egiten.

Okerrago dana, jende ikasia, karrerako jendea, bertsolarien kontra agertzen zan. Gogoan ditugu Karmelo Etxegarai batek idatzitakoak.

[...]

Bertsolaria bere tokian dago gaurko egunez. Ondo ikusia ta guztiz estimatua da euskera bizirik dago[en] leku guztietan.

D. Manuel Lekuona apaiz jaun agurgarria izan zan lenengo eskua luzatu zuana ta irrintzi ozena egin zuana; bertsolariaren egitazko balioa ezagutu ta aitortu zuana.

Ez degu bear ainbatean iñoiz eskertuko oiartzuar seme argi au.

Liburu eder, bikain, jakingarri bat eman zuan argitara “La literatura oral vasca” izenburu edo “tituloarekin”.

Orduan asi zan jende ikasia begiak zabaltzen; ordutik asi zan bertsolarienganako begirapena.”

Gorka Aulestiak, berriz (Aulestia, 1990: 20):

“Si para los interesados en la literatura oral en Estados Unidos Milman Parry fue el gran pionero, para la literatura oral vasca, especialmente el “bertsolarismo”, Manuel Lekuona estableció las bases científicas de la investigación en



Juan Mari Lekuona eta osaba Manuel, igande arratsaldeko ibilaldietako solaskide batekin.

nik, nola berak gomendatu zion Aitzoli jokabidez aldatzea: nola ikusarazi zion, olerkigintza kultuan ez baina, bertsolaritzan zuela bere egitasmo kulturalaren giltza⁴.

éste y otros fenómenos de la literatura popular vasca. Con razón se le considera como el pionero iniciador del prestigio de que hoy goza el "bertsolarismo" en el País Vasco. En el siglo XIX y a comienzos del siglo XX, el "bertsolari" estaba completamente desprestigiado."

4. Julio Urkaregik dioenez (Urkaregi, 1987: 143-144):

"Bertsolaletasunak aldaketa bat suposatu zuen "Aitzol"en filosofian. "Aitzol"ek promozionatu zuen olerkigintza kultua minoritarismoan erori zen. Ez zuen lortu berak espero zuen arrakasta. Manuel Lekuonari jarraituz, estrategiak bide herrikoiak hartu zituen. Lekuonak eredu herrikoieiz baliatzeko gomendatu zion. Herri-olerkigintzaren bidez, herriaren izpiritua erakutsi nahi zuten. Bertsolaritza promozionatzeko ordua zen. Bertsolaritza baloratu eta horren aldeko giroa piztu. Ahozko literaturari prestigioa eman nahirik, txapelketak antolatatu zituen. Lehen txapelketa 1935ean ospatu zen, Kursaal. Bigarrena, Victoria Eugenia, 1936an. Bertsolaritza tabernatik antzokira eraman zuten. Bertsolaritza arlote-mailatik ateratzea lortu zuten, gai altuagoak ipiniz. Ahozko literaturaz baliatu, eta poesia kultua egin nahi."

Aitzolen egitasmo kulturalaz, ikus Otaegi, 1983.

Bi lorpen horien oinarri eta emaitza dira, hurrenez hurren, *Literatura oral euskérica* liburua⁵ eta 1935ean eta 1936an Euskaltzaleak elkartek antolatutako bi Bertsolari Egunak edo bertsolari-txapelketak⁶, bietan Manuel Lekuona epaimahaiko zela.

Baina errepara diezaiogun arretaz lehen lorpenari. Izan ere, gaur normala dirudi, bertsolaritzaz ari garela, literaturaz jardutea. Eta ez gara ohartzen, agian, bestelako ikuspegiz ere ekin ziezaiokeela Manuel Lekuonak bertsolaritzaren ikerketari. Izan ere, *literatura* esatean, *arte eder* diogu oro har; eta bertsoez ari garela, *poesia*⁷. Manuel Lekuonak, ordea, literaturaren ikuspegia aukeratu zuen; seguruenik, ikuspegi hau zuelako gertuen edo hauxe jo zuelako eragileena bertsolaritzari prestigioa emateko; eta, betiere, hauxe iruditu zitzaiolako egokiena bertsolaritza ikertzeko.

Horiek horrela, hiru ernamuin atzematen dizkiogu Manuel Lekuonak bertsolaritzaren mintegian ereindako haziari. Hazi hori egin nahiko du Juan Mari ilobak arbola handi. Eta *bandi* horrek

5. Lekuona, 1936.

6. Zubimendi, 1936.

7. Antonio Zavalaren hitz batzuek lagun diezagukete hori hobeto ulertzen. Zavala, 1956an, Euskaltzaindiaren gerraondoko lehen batzar irekian, honela mintzatu zen une batean, bertso-paperekiko estimazioaz (Zavala, 1996: 31-32):

"No siempre se les ha tenido un aprecio unánime a los *bertso-papel*as.

Unos, como Echegaray, los menospreciaron por "su carácter irremediabilmente prosaico [...].

[...] el pueblo –aunque a veces lo logre accidentalmente– [no] trató nunca de hacer poesía. [...]

Y si no busca poesía [...], en el bertsolarismo, verso no tiene por qué ser equivalente a poesía. [...] no deja de ser excéntrica nuestra posición de impugnar por carente de poesía a quien nunca lo pretendió."

Berrogei urte geroago, honako oin-ohar hau erantsi zien Zavalak hitz horiei (Zavala, 1996: 32):

Al terminar de pronunciar esta conferencia, se me acercó don Manuel Lekuona y, con la suavidad en él característica, me dijo: "*Poesi-kontu ortan urrutegi joan zera, poesi-mota asko daude ta*".

esan nahi du, kasu honetan, berria (gaztea, sasoikoa, gaurko garaiek eskatzen duten bezalakoa), sendoa (era zientifikoz ikertua) eta ederra (arte ederrari dagozkion tasunez hornitua). Hala, agindu hirukoitz bihurtzen da, ondorioz, hasierako "nik egingo dut arbola haundi" agindua.

2. "NIK EGINGO DUT ARBOLA BERRI"

Manuel Lekuona 1935eko eta 1936ko bertsolari-txapelketetako epaimahaiko bezala, ikusiko dugu Juan Mari Lekuona 1960ko, 1962ko eta ondorengo txapelketetako epaimahaiko. Gerra aurrean, Euskaltzaleak elkarteak antolatu zituen txapelketak; gerra ondoren, Euskaltzaindiak hartuko du lekukoa. Orduan, Aitzoli jokabidez aldatzea aholkatu zion Manuel dugu epaimahaian; orain, osabaren hazia arbola emankor egitera datorren iloba. Eta epaimahaiko izaten jarraituko du 1965ean, 1967an, 1980an eta 1982an ere; hau da, Euskaltzaindiak antolatutako bertsolari-txapelketa guztietan.

Baina ez da soilik epaimahai-lanak egitea. Txapelketak antolatu ere egin behar dira, eta gaiak eta ariketak jarri. Eta ariketak jartzean, kontuan izan behar da hauek zertarako diren. Esaterako, Juan Mariri entzun nion nola, 1982ko txapelketaren azken saioaren arratsaldeko kartzelako gaia zela-eta, giroa berotzeko ere ipini ziztuzten bi bertso-amaierak: "Arrazoirik ez degu / gutxi geraldako" eta "Oraindik bagerala / Balda da testigu"⁸. Lan horietan, esku-hartze handia izan zuen Juan Mari Lekuonak, Euskaltzaindiaren baitan.

Hori dela-eta, merezi du gogoratzea Juan Mariren beraren bi aitortza. Lehenengoa, 1962ko txapelketari buruzkoa da. Zabaldua baitago txapelketa jokatu aurretik erabakia zegoela txapela Uztapideri ematea Basarriren kaltetan, propio eta zuzenean galdetu gemon lagun batzuek behin batean horri buruz. Bera epaimahaiko

8. Euskaltzaindia, 1983: 288.



Oiartzunen Olentzerotako lehiaketa batean epaimabakide, ezkerretik hasita, Julio Barrutieta medikua, don Pablo erretorea, Juan Mari Lekuona eta Antonio Valverde "Ayalde" pintorea.

izanik, konta zezala zer gertatu zen. Xehe-xehe azaldu zigun dena, gaur xehetasunak ahaztuta badituz ere. Eta garbi utzi zigun ez zela inolako azpijokorik izan: Uztapideri eman bazioten txapela, hala uste zutelako eman ziotela.

Bigarren aitortza, berriz, bere gisa egin zigun, inork galdetu gabe. Gogoan dut noiz izan zen ere, oso oker ez banago behintzat: Euskaltzaindiaren Herri-literatura batzordean parte hartu zuen azken bigarren bileran. Ordurako, batzordekideok konturatuak geunden Juan Mariren burua ez zela lehengoa, eta bera ere ohartua zegoen, noski. Eta, pixkanaka-pixkanaka, aleka-aleka, hasia zen zenbait gai, enkargu eta kontu gure eskuetan uzten, testamentua egiten ariko balitz bezala. Horietako bat izan zen 1967ko txapelketan gertatuari buruzko bere ikuspegia: epaimahaiak Xalbador bereizitakoan txapela buruz buru Uztapiderekin jokatzeko, aretoan entzundako txistuak ez zirela Xalbadorri joak izan, ezta epaimahaiari joak ere; Euskaltzaindiari berari baizik. Aurretik ibili zirela bazterrak berotzen batzuk. Eta zenbait izen ere eman zizkigun.



Juan Mari Lekuona Urepelen, Fernando Aire "Xalbador" bertsolariaren elizkizunetan (1976).

Juan Mari Lekuonak horrelakoetan zuhurtzia handiz eta zorrotz jokatzeko erdizka ibiliko aitaren etxea defendatzeko orduan. Ondo bereiziko zituen kontu funtsezkoak eta hutsalak. Eta bazekien eskuzabal jokatu eta amore ematen ere, gai nagusiak zaintzeak hala eskatzen zuenean. Hala, txapelketa-nagusien antolatzeari Bertsolari Elkarteak hartu nahi izan zuenean, bertsolaritzari ahalik eta mesederik handiena egitea izango du goiburua.

Baina, bat-bateko bertsolarien txapelketa nagusiez gain, hor zeuden bertso-jaialdi xumeagoak eta bertsopaper-lehiaketak ere. Eta behin eta berriro hartu zuen horietan parte, jaialdiak antolatzeko eta gidatzeko eta lehiaketetan epaimahaiko lanak egiten. Esaterako, eta besteak beste, Basarri bertsopaper-lehiaketako epaimahai-kide izan zen sortu zenetik, 1985etik, hainbat urtetan.

Azken batean, osaba Manuelen lekukoa zintzo hartu izanaren ondorioak dira.

3. "NIK EGINGO DUT ARBOLA SENDO"

Juan Mari Lekuonak, osaba Manuelen bidetik, bertsolaritza ikertzea hartu zuen bere gain. Ikerketa honi esker joko du bertsola-

ritzaren sustraietara, eta sustrai horiek sendotuz saiatuko da bertso-laritzea sendotzen.

Juan Marik bertso-laritzea ikertzeari eskainitako lanetan, deigarria da zenbat oin-oharrez hornituta dauden. Juan Marik berak aitortua da batez ere metodologia landu zuela Erroman eta metodologia erabiltzen ikasi zuela doktore-tesia egiten aritu zenean. Metodologia horren ondorio eta isla dira, noski, oin-ohar ugari horiek.

Bestalde, Juan Marik hartutako bidearen erakusle ere bada oin-ohar ugari hori. Beste bide bat ere har zezakeen: bertsoak bilduz, bertsoen korpusa osatzearena, Antonio Zavalak egin duen bezala. Baina bestek egindako landa-lana baliatu eta beste "maila batean" jardun du berak.

Deigarria da, era berean, oin-ohar horietako zenbatek aipatzen dituzten Manuel Lekuonaren obrak. Interesgarria litzateke jakitea, esaterako, osaba Manuelen zenbat pasarte bildu eta aipatzen dituen Juan Marik bere lanetan. Ikustekoa izango da, era berean, Juan Mariren zenbat azpimarra, ohar eta iruzkin dauden osaba Manuelen obretan. Ikustekoa eta aztertzekoa. Ez al dira, horiek ere, ilobak osabari egindako aginduaren aztarna eta lekuko?

Ez da hau tokia, noski, Juan Mariren lana zehazteko eta xehatzeke. Hala ere, merezi du galdetzea, bederen, ez ote zuen puntu jakinen batean urrunegi eraman osabarekiko leialtasuna. Alegia, bertsoen metrikaz ari dela, ez ote zen estuegi lotu, lehen urteetan behintzat, osabak, klasikoen ereduari jarraiki, markatutako bidetik?⁹

9. Juan Mari Lekuonaren obran, tarteka-marteka azaltzen da gaia. Esaterako, honela dio *Abozko euskal literatura* liburuan, neurkeraz ari dela (Lekuona, 1982: 82): "Euskal metrikaren arazoa, gure literatur-zaleek askotan aztertu izan ba-dute ere, eta batzuetan lan ederrak eskainiz, hala ere, ikertzaile sakonekin batera hau esan behar: gaia nahasia dela egiaz, eta gauza oso mugatua dela gai horri buruz dakiguna.

Gehiago oraindik: ez datoz bat gai hau aztertu dutenak. Eta are jakingarriago dena, polemika-kutsu bat nabari daiteke eremu honen luze-zabalak aurkeztu

4. "NIK EGINO DUT ARBOLA EDER"

Eta Juan Mari Lekuonak, jakina, literaturaren ikuspegitik jarraituko du bertsolaritza lantzen. Hori argi salatzen dute bere ikerketan lanen bildumei jarritako izenburuek. Lehenengoari, *Ahozko euskal literatura* jarri zion izenburu Juan Mari berak; bigarrena, *Ikaskuntzak Euskal Literaturaz (1974-1996)* izenburuz plazaratu zuten Elixabete Perezek, Ana Toledok eta Esther Zulaikak.

Nekez irits daiteke gorago, bi obra horietan baino, literaturaren ikuspegitik egindako bertsolaritzaren azterketa. Lekuona ilobak urrutira eraman du osabari hartutako lekukoa. Zenbaitetan, urrutiegi ere bai, agian. Esaterako, Udarregiren bertsogintzaren baliabide erretorikoak aztertzen dituenen¹⁰. Baina horrelako ondorioak dakartza hartutako erabakiari kosta ahala kosta eusteak. Eta mesedegarri da, gainera, aukeratutako bidearen mugak ere erakusteko. Muga horiek ikusi eta hala ere bide beretik itsu-itsu jarraitzean dago akatsa.

dituztenen artean. Eta kritikagarri gerta ohi dira batzuentzat besteen teknika-rik-eza, edota, alderantziz, hauentzat haien sen-eskasia zarpaila."

Lehenengo lerrokada horren amaieran, Patxi Altunaren *Versificación de Dechepare* obrara bidaltzen gaitu Juan Marik ohar batez. Behin baino gehiagotan izan ginen Patxiren eta Juan Mariren eztabaiden lekuko. "Teknikarik eza" leporatzen zion Patxik Juan Mariri; "sen-eskasia zarpaila", berriz, Juan Marik Patxiri.

Polemikak polemika, neurketari eskainitako orrialde horietan dugu laburbilduta Juan Mari Lekuonaren ikuspegia, osaba Manuelek urratutako bidetik ondua (Lekuona, 1982: 82-85).

10. Lekuona, 1998: 379-403.

Hirugarren puntuak "Azterketaren emaitza zehatzagoa: hiztegi erretoriko baten ildotik"– honako baliabide erretorikoak hornitzen ditu adibidez: antifrasia, dudazkoa, epifonema, epitetoa, esaera zaharra, etopeia, ez aipatzea (praeteritio), galderazkoa, hiperbolea, hitz jokoa, ironia, konparaketa, kontrastea (antitesia), mailaketa, metaketa, metonimia, oihu-esaldia, otoi-tza (obsecratio), pertsonaiak, sententzia entzungarria, sententzia hunkigarria, sententzia jakin-garria, similiter cadens, similiter desinens, toponimia, uzkunde (concessio), zailantza (sustentatio) eta zuzendura (correctio).



Juan Mari Lekuona eta Pello Esnal Bilboko Bidebarrieta liburutegiaren atarian.

Bai: urrutira eraman du Juan Mari Lekuonak, eder-bideetan barena, osabari hartutako lekukoa. Hari honetatik, oso esanguratsuak dira bere bi lan: "Txirrita eta Basarri: bi belaunaldiren arteko tenka"¹¹ eta, batez ere, "Basarriren bertsolari proiektua"¹². Polita litzateke aztertzea zer neurritan dagoen bigarren lan honetan islatua Juan Mariren beraren egitasmoa; zer neurritan isurtzen duen honek bere ikuspegia Basarriri eskainitako lerroetan. Horrek, hala ere, ez gaitu harritu behar. Azken batean, iturburu bera dute bien egitasmoak: Manuel Lekuonaren egitasmoa.

Bestalde, Lekuonatarrek-eta hobetsitako eder horretaz jabetzeko, egoki etorriko zaigu gogoratzea, esaterako, Juan Marirekin izandako iritzi-trukaketa bat, Pedro Mari Otañoren bertso gintza hizpide. Nik, bat egin nuen Antonio Zavalak kazetari bati esandakoarekin: bertso hobeak zirela Otaño gaztearenak –hau da, Zizurkilén bizi zela jarritakoak– Otañok berak geroago –Donostian bizi

11. Lekuona, 1982: 211-217.

12. Lekuona, 1998: 364-378.

zela, "goi-mailako" kulturaz-eta jantzi zenean– jarritakoak baino. Juan Marik, ohi bezain gozo azaldu zidan bere ezadostasuna. Eta Otañoren bertso kultuak zergatik diren herrikoiak baino hobek frogatzeko, galdera bat egin zidan: Otañoren zein bertso kantatzen dira oraindik ere: gaztetan jarri zituenak ala ondorengoak?

Bertsoen kantua dela-eta, Juan Mariren ederzaletasunaz argi txiki bat eskain diezaguke, bide batez, berak bertsoak kantatzeko zuen erak ere. Andoni Egañari entzun nion, behin batez, bereizketa bat: Iparraldeko bertsolariek kantatu egiten dituztela bertsoak; Hegoaldekoek, berriz, bota. Hori horrela baldin bada, Juan Mari lotuagoa zegoen Iparraldeko joerari, Hegoaldekoari baino. Berrero ere, fintasuna lege.

Eta, azkenik, langai dugun puntu honen harian aska dezakegu orain arte askaezina gertatu zaidan korapilo bat. Antonio Zavala eta Juan Mari Lekuona entzun izan ditugu iritzi ezberdinak azaltzen, bertso paper-lehiaketei buruz. Antoniok, galdetu izan ohi du ez ote litzatekeen hobe bi bertso paper-lehiaketa mota antolatzea: nolabait esateko, bata herri-bertsolarientzat eta bestea bertsolari kultuentzat. Juan Mari, bereizketa horren aurkakoa zen. Gauza bat ez nuen ulertzen: nola izan daitekeen Zavala bereizketaren aldeko, noiz eta bere tesi nagusietako bat denean, hain zuzen, ez daudela bi literatura mota –kultua eta herrikoa–, bakarra baizik¹³. Gaur, ar-

13. Antonio Zavala honela mintzatu zen, Deustuko Unibertsitatean, *Honoris causa* doktore izendatzean eginiko hitzaldian (Zavala, 2000: 38):

"Cuando se iniciaron las tareas de recopilar de boca del pueblo materiales literarios, se creó para éstos, como ya he dicho, el término de *folk-lore* o saber del pueblo, o literatura oral o popular. Pero se trataba de una etiqueta un tanto injusta y taimada. Porque llevaba dentro un juicio de valor que marcaba diferencias y categorías. Lo uno era lo culto, lo docto, lo letrado, lo noble; lo otro, lo inculto, lo indocto, lo iletrado, lo plebeyo. Había un plano superior y otro inferior. No sólo en Oriente existen castas.

Y en esta trampa hemos caído todos o casi todos. Resulta así que durante años hemos hablado y escrito admitiendo ingenuamente tal distinción. Esto es algo de lo que yo, al menos, me siento ahora avergonzado. Porque cedíamos sin más un terreno del que no debíamos retirarnos. Hasta que al cabo de muchas



Luis Mari Larringan, Antonio Zavala eta Juan Mari Lekuona.

gi dago erantzuna. Zavalak badaki zer gertatzen ari den hainbat bertsopaper lehiaketatan: bertsolari "kultuek" irabazten dituzte lehen sariak, herri-bertsolarien kaltetan. Eta zaila ikusten du epaimahaikoen irizpideak aldatzea: normalean, bertso kultuak saritzen jarraituko dute. Beraz, bide bakarra ikusten du Zavalak –bereizketa–, berak hobesten dituen bertsoak saritzeko. Juan Mari Lekuonak, ordea, nahiago du gauzak dauden-daudenean uztea. Eta arrazoa ere argi dago: horrela gailenduko da bertsolaritza kultua, herri-bertsolaritzari bidea erakutsiz. Azken batean, horixe izan du helburu Juan Mari Lekuonaren egitasmoak.

5. AURRERA BEGIRA

Honaino iritsi gara, urratsez urrats, Juan Mari Lekuonak bertsolaritzari eraginez egindako bideari jarraituz. Osaba Manueli leku-

idas y venidas, de muchas cavilaciones y sentimientos de inconformismo, oí de labios de un amigo que no había dos literaturas, una culta y otra popular, sino sólo literatura."

koa hartu eta ahalik urrutien eraman du, kostata ahala kostata, zintzo eta leial.

Oraindik ere bada bertsolaritzan zer egina, zer eragina eta zer aztertua. Ez zaigu lan erraza geratzen, baldin eta geure aurrekoek bezain zuzen jokatu nahi badugu.

Pello Esnal

Zarautzen, 2007ko martxoaren 29an

BIBLIOGRAFIA

- AULESTIA, Gorka (1990): *Bertsolarismo*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.
- EIZMENDI, Iñaki "Basarri" (1984): *Bertsolaritzari buruz*. Auspoa, Tolosa [Auspoa: 178].
- EUSKALTZAINDIA (1983): *Bertsolari txapelketa 1982*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- LEKUONA, Juan Mari (1982): *Ahozko euskal literatura*. Erein, Donostia.
- LEKUONA, Juan Mari (1989): "Erdi-ahozkotasunaren literatur estiloaz", in *Euskera*, 34: 17-44.
- LEKUONA, Juan Mari (1998): *Ikaskuntzak Euskal Literaturaz (1974-1996)*. Deustuko Unibertsitatea, Donostia.
- LEKUONA, Manuel (1936): *Literatura oral euskérica*. Beñat idaztiak, Donostia.
- OTAEGI, Lourdes (1983): "Aitzolen proiektu kulturalaz", in *Jakin*, 29: 18-27.
- URKAREGI, Julio (1987): "Zenbait topiko 'Aitzol' zenari buruz", in *Jakin*, 45: 137-145.
- ZAVALA, Antonio (1960): *Bertsolarien txapelketa - 1960*. Itxaropena, Zarautz.
- ZAVALA, Antonio (1996): *Auspoaren auspoa I*. Sendoa, Oiartzun [Auspoa, 238].
- ZAVALA, Antonio (2000): "Doktore berriaren hitzaldia Honoris causa doktore izendapenean", in *Askoren artean: Antonio Zavalaren oboretan*. Deustuko Unibertsitatea, Bilbao.
- ZUBIMENDI, Yoseba (1936): *Bertsolari-guduak. 1935-1936*. Donostia, Euskaltzaleak. [Bigarren argitalpena: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1985.]

JUAN MARI LEKUONAREN
BIZITZA IBILBIDEA
IRUDITAN
(1927-2005)



Oiartzungo Bebeko Plazan zegoen Juan Mari Lekuonaren aitaren sortetxea: Etxe-Txiki. Behean, bere ama Tiburtzi Berasategiren sortetxea, Berinberri, amona Kontxesi maitarearen bizilekua, gudaosteko urte latzetan babesa eman zien etxea.





Berinerriko senideak (1925~). Lehen lerroan ama Tiburtzi arreba Primitiba altzoan duela. Erdiko bi gizonetan ezkerrekoa aita Bruno da, eta bere atzeko andreetan eskuinekoa, amona Kontxesi.



Berinberriko eskaileretan Lekuona anai-arreben sendiak elkarturik. Ezkerretik hasita, Aritz, Julen, Oibana eta Kontxi, Mañoli, Primi eta Juan Mari. Eserita, Jose Luis eta Itziar, Andoni, Ivonne eta Arantza, Pio, Ainara eta Enaut.



Bizpabiru urtekoa zela Juan Mari Kontxita Etxebesterekin.



Juan Mari belardian urte bete inguru zuela.



Juan Mari mutikotan, unai txiki.



Asto gainean jostari Juan Mari, lehengusu Anjel eta herriko mutiltxo batekin.



Etxetxiki inguruko zelaietan, arreba Primi, izeba Karmen, lebegusu Anjel, izeba Pilare eta Juan Mari mutikoa eserita (1932~).



Juan Mari Oiartzungo mojen eskolako ikaskideekin, lauþabost urte zituela. Lehen ilarakoen arten eskuinetik hasita bosgarrena. (1933~).



*Juan Mari eta
Andoni, mutikotan
(1941.05.15).*



*J. M. Arizmendiarieta,
Arrasateko kooperatiben
mugimenduaren sortzailea,
Juan Mari eta Teodoro
Iñarra (1940).*



Zutik, Juan Mariren senide zen Teodoro Iñarra eta osaba Martin Lekuona soldaduskan (1927). Arrasateko parrokoa zen Teodororekin egon zen 1942-44 artean Juan Mari, Bergarako apaiztegira joan aurretik. Eserita, Martin Lekuona, Errenterian apaiz zela faxistek Hernanin afusilatu zutena.



Osaba Martin, eskuinaldean eserita erdiko ilaran, Errenteriko talde batekin. Zutik daudenen artean, Andoni Korta, Bitor Idiazabal, Sabin Lasa, Andoni Idiazabal, Koldo Mitxelena, Sabin Olaskoaga, Laurentzi Inziarte. Eserita, Iñaki Etxeberria, Gotzon Albisu, Martin Lekuona, Eusebi Zubillaga eta Telesfor Loitegi.



Juan Mari Gasteizko seminarioko bi ikaskide oiartzuarrekin: Pakito Mitxelena eta Jose Luis Azkue pianista.



Gasteizko apaiztegiko ikaskideekin. Bebetik basita hirugarren iladan, eskuinetik bigarrena da Juan Mari.



Apaiztegiko futbol taldean, zutik daudenen artean eskuineko lehena.




Urte batzuk beranduagoko taldearekin, bebeko ilaran ezkerreko lehena.

Jaume Font i Andreu artzapezpikuak ordenatu zuen Juan Mari, Arrasaten (1953.06.29). Ezkerretan zutik, Teodoro Iñarra parrokoa.



Arrasateko kaleetan zehar apaiztu zen egunean, beste lau kide arrasatearrekin: T. Iturbe, J. B. San Miguel, J. M. Sarrionandia eta B. Aramburu.



Arrasaten apaiztu zen egunean senide guzietan: Primitiba arreba, ama Tiburtzi, aita Bruno, anaia Jose Luis eta, makurtuta, Andoni eta Julen gazteak (1953.06.29).



Juan Mari Oiartzunen ezkontza batean amarekin eta Andonirekin.



Juan Mari arreba Primirekin Donibane Lobizunen.



Juan Mari, apaiztegiko jantokian. Bebean, apaiz berrien taldea Donostian (1953).



Juan Mari amaren ondoan eserita, famili bazkari batean. Bebean, ezkerretara zutik, Julen eta Kontxita beren ezkontza egunean, ondoan, Ivonne eta Andoni, eserita, Primitiba, ama Tiburtzi eta Juan Mari. Alboan, Jose Rekalde.





Juan Marik kirola maite zuen: pilota, futbola eta, besterik ez bazen, ibiltzea, luze ibiltzea. Goian Añorgako talde batekin Lourdesa joan zenekoa eta behean Olitera oinez joan zirenekoa. Ezker-ezkerrekoa, Julen anaia.







*Erromako Unibertsitate Gregorianoan Teologiako lizentziatura egiten (1953-1955).
Argazkian, Julian Etxebarriarekin Vatikanoko San Pedro basilikaren kupulako begiratokian
(1961~).*



Berriro Erroman tesia egiten jarraitzeko egon zenean (1960-63 artean), karitateko moja merzedarien egoitzako atikoan gurutze batez seinalatu zion amari bere gela. 1960ko maiatzaren 14an dataturiko postala.



Erroman adiskide asko egin
zituen, besteak beste, Jose
Sebastian Laboa, Jose Maria
Setien, Jean Hiriart-Urruti
euskaltzaina, Angelo
Roncalli... Argazkian,
J. Ignazio Telletxea
Idigorasekin ageri da.





Erromako Unibertsitate Gregorianoan Teologian lizentziatu zen (1955). Gero, doktorego tesia aurkeztu zuen, idazle mistiko portugaldar bati buruz (1966).



A. Roncalli kardinala, gero Juan XXIII Aita Santua, Euskal Herrira etorri zen 1954ko udan. Goiko argazkian Añorgako Cincuentenario auzoa inauguratzen, ezkerretara, J.S. Laboa, Juan Mari eta eskuinean, J.M. Galarraga. Bebean, Pasaian, Laboa, A. Roncalli eta Juan Mari bera.



Loiolako Genezako taldearekin (1984). Bibliako itzulpen lanetan partaide zen. Argazkian, Jose Maria Setien erdian eta baren ezker-eskuin osaba Manuel eta Juan Mari.



Erljio eta kultur ekintzetan osaba Manuelen ondoan. Goian, literatura bitzaldi batean, Jose Maria Leizaolaren ondoan. Behean, Liturgiako itzultzaileen taldearekin Estibalitzen.





Juan Mari Lekuona bizlari.



Juan Mari euskal literaturaz eta bertsolaritzaz bizlari. Goian Jose Mari Aranalde eta Laka bertsolaria (1991.09.20). Bebean, Oiartzungo udaletxean, Euskaltzaindiko sarrera bitzaldian (1988).





Juan Mari Lekuona Oiartzungo udal aretoan sartzen Euskaltzaindian sarrera bitzaldia egin zuen egunean (1988.07.30). Ezkerretan P. Ondarra eta eskuinean P. Zabaleta. Ikusleen lehen lerroan Primitiba arreba.



Euskaltzain gisa eman zuen sarrera bitzaldia hasteko ulean.





Juan Mari Lekuona euskaltzain domina jaso berria den unean, J.M. Satrustegik eta L. Villasantek zoriontzen eta txalotzen dutela.






*Goian lagun talde batean aurrerantz begira, Juan Mari eta Goena psikiatra jesuita.
Bebean, Irun Sarietako epaimahaikideekin: P. Urkizu, A. Urretabizkaia, L. Otaegi, X. Lete,
J. M. Lekuona eta H. Knörr.*



Patxi Altuna bizlari zen Euskaltzaindiko ekitaldi batean, entzuleak ezkerretik hasita H. Knörr, Iratzeder, J. M. Lekuona, P. Ondarra, J. M. Satrustegi eta L. Villasante euskaltzainak.



Luis Villasante euskaltzainburua eta Juan Mari Euskaltzaindiko ekitaldi batean.



Herri Literaturako VI. Jardunaldia: Euskal frascologia", Bilbon (2000.12.29). Ezkerretik hasita, J. R. Zubimendi, P. Esnal, Alberto Zuluaga (Tübingen-eko unibertsitateko irakaslea) eta Gloria Corpas (Malagako unibertsitateko irakaslea), J. M. Etxebarria,

E. Larre, J. M. Aranalde, J. M. Lekuona eta A. Aranburu.



Juan Mari Lekuona Ensbaltzaingidiko Herri literatura azpibatzordeko kideekin, Pello Esmal eta Xabier Kaltzakortarekin eta bi bizilagunekin Alberto Zuluaga eta Gloria Corbas.



Aramizazun B. Gandiagaren bieta elizkizuna konzelebratzen (2001.02.22). Ezkerretik eskuinera, Altuna, Goena, Esnaola, Lekuona eta Aranalde.



Euskaltzaindia-BBK literatura sarien ekitaldi batean. Mabaian ezkerretik hasita, J. A. Arana Martija, J. Mancisidor, J. Haritschelbar eta J.M. Lekuona.



Juan Mari Lekuona Lino Akesolo karmeldarrearekin.



Juan Mari Lekuona bizlari.





Euskaltzaindiaren 75. urteurrenaren ospakuntzetan 1994an. J. M. Lekuona lehen ezkerretik hasita.



X. Kintana Euskaltzaindian sarrera bitzaldia irakurri zuen egunean. Ezkeretik hasita bigarrena, J. L. Davant eta J. A. Martijaren artean, Juan Mari Lekuona (1994-11-25).



Euskaltzainak Ataunen Joxe Miel Barandiaran ikustera joanak. Ezkerretik eskuinera, eserita, J. M. Lekuona eta J.M. Barandiaran, zutik, H. Knörr, J.M. Satrustegi eta Tx. Peillen. Juan Marik itzuli zuen 1988an Barandiaranen Mito del pueblo vasco, Euskal herriko mitoak eta hari eskaini zion Mimodramak eta ikonoak (1990) liburua, "sinesteen kulturari" harkiko zorra eskertuz.



Goian ezkerretik hasita, J. L. Lizundia, H. Knörr, P. Marcos, Arabako abaldun nagusi Alberto Ansola, J. Haritschelbar, J. M. Lekuona eta J. A. Arana Martija. Bebean, Gipuzkoako abaldun nagusi Eli Galdosekin.





Euskaltzaindiaren ekitaldi batetan, zutik eta eskuemetik hasita birugarrena J. M. Lekuona, J. M. Satrustegi eta J. J. Zearretaren artean.



Bizkaiko gozain Ricardo Blazquezekin, ezkerretik hasita, J. A. Arana Martija, J. M. Lekuona, J. Haritschelbar, K. Etxenagusia, H. Knörr eta J. L. Lizundia.



Elkarrizketan H. Kiñorr, J. M. Lekuona, K. Etxenagusia eta J. L. Lizundia.



Euskaltzaindia Gernikako arbolararen ondoan. Juan Mari eskuinetik hasita birugarrena, Pello Salaburu eta Alfonso Irigoienen artean.



Juan Mari Lekuona Bitoriano Gandiagarekin. Bebean, B. Gandiagaren omenezko Euskaltzaindiaren bilera, baren sorterrian Bizkaiko Mendata berrian, Literatura Ikerketa Batzordeko kideak ere partaide zirela.





Euskaltzaindia San Fermin ikastolako Najarroa Oinezen ekitaldian (2000). Juan Mari makurturiko leroan erdian, Jean Harrischelbar eta Miren Azkarateren artean.



P. Lafitteren omenezko Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra. Baionako Fakultatean (2003.09.21). Bebetik hasita, bigarren lerroan, J. M. Lekuona, euskaltzainburu orde, J. Haritschelbarren eskuinetara.



Deustuko Unibertsitatean doktore izendatu zuten egunean. Donostiako campuseko parainfoan, Manuela Alvarez eta Andoni Basabe irakasleekin batean (1992).





Deustuko Unibertsitateko ikasleekin karrera amaterako argazkia (1981). Irakasleen artean, ezkerretan, J. Urrutikoetxea, M. Azkarate eta J. L. Alvarez Txillardegi. Erdian makurtuta, J. M. Lekuona, J. Arzamendi eta J. A. Askunze, atzean, M. Alvarez, Tx. Lasagabaster, P. Altuna, J. Azurmendi, A. Colera eta J. R. Zubiaur.



Juan Mari Lekuona irakasle Deustuko Unibertsitatearen Donostiako campuseko Euskal Filologiako ikasleekin (1992).



Juan Mari Lekuona irakasle Oiartzungo ikastolako ikastaro batean.





*Juan Mari Oiartzungo Kultura batzordeko bilera batean, herri literatura proiektu batean
Antton Kazabonekin.*



Juan Mari Lekuona eta Dionisio Amundarain Donostiako Apaiztegian (2003).



Orbelaunen, Bitoriano Gandiagaren jaiotetxean, Mendatan. Euskaltzaindiaren omenaldia (2004-07-13). Ezkerretik hasita, Mendatako alkatea, R. Urresti, J. L. Lizundia, H. Knörr, J. M. Lekuona, M. Gorrotxategi eta R. Badiola. Behean, J. Kortazarren ondoan.





Juan Mari Lekuona eta Jorge Oteiza elkarrekin.





*Juan Mari Santiago Rosalia de Castro saria jasotzeko joana 2000 urtean,
J. M. Zurutuza eta Karmele Zapirainekin batean.*



Juan Mari Lekuona Euskaltzaindiaren Donostiako ordezkariitzako bulegoan. (Berria egunkaria).



Oiartzungo Pagoan emandako kantaldiaren atsedean une batean Juan Mari, Andoni, Imanol eta Julen (1998.08.11).



*Oiartzungo Pagoan emandako kantaldian Juan Mari, Julen eta Andoni elkarrekin
(1998.08.11).*



ETBko eguberrietako kantaldian harturiko argazkia 2002an, Julen, Juan Mari eta Andoni.



Oartzungo elizaren behe aldeko perspektiba, Juan Mariren gogokoena.



*Juan Mari Lekuona Aiako
Harriaren profila atzean duela.*



*Juan Mari Berinberri baserrian
berritu ondoren.*



Juan Mari Oartzungo etxean.



Juan Marik bertso batzuk eskaini zizkion Jose Maria Setien-i gotzain izateari utzi zioneko ekitaldian.



Juan Maria Uriarte Gipuzkoako gotzaiarekin, apaiztu zela 50 urte bete zituenean 2003an.



Juan Mari Lekuona prestatzen ari zen Ibaiak basamortuan liburuko lehen aipamena, Bibliatik hartua:

*“Hara zerbait berria egitera noa,
bidea irekiko dut basamortuan
ibaiak sortaraziko landa lehorrean
basamortuan ura emango baitut
eta landa lehorrean ibaiak sortaraziko”*

(Isaias 43, 19-20)

JUAN MARI LEKUONA
LITERATURA IKERLE
ETA POETA



BERETERRETXE

Haritzetik eskegi zuten zalduna. Biluzik.
Ai-hotsak altzairu, zarratatu zen gaua-
ren tenpluko isila. Orbelak lurrera:
odol-hustuaren azken arnasen dardara.
Borreroek atorraz garbitu zituzten eskuak,
eta erdibanatu —banderizoen harrapakin—
arrano beltza eta damaren eraztuna.
Hiru ezpatek zulatu zuten amaren bihotza.

Zaldi-trostan ilunbekoen parada.
Zerraldoa bidegurutzean utzia. Goizalbaz
lore gorritz estali zen maitañoaren leihopea.
Negarretan zegien hots bazko-oilariteak.

Gerokoan, bide-ertzean zut, hilarria.
Artesau enblematikan, tenk geziak,
esanahitsu argizagiak: galdu zutena nola
prest zegoen, etxearen alde, gau eta egun,
zuhurtziaz eskaintzeko bere bizia.

Haren khantorea zen iruleen eresi guzizkoena.
Lihoreen neke-penetan —oihal zurian beren
semeez ohartuz— emakumeentzat zin egitea
bezala zen faltsuki erailaren kantua.

(“Itzalen galeria”, Mimodramak eta ikonoak, 1990)



Juan Mari Lekuona Oiartzungo udal aretoan, Euskaltzaindian sarrera bitzaldia eman zuen egunean (1988.07.30).

V

JUAN MARI LEKUONA EUSKALTZAIN

Jean Haritschelhar

Familia euskaldun, euskaltzale eta abertzalean sortu eta hezia izan zen Juan Mari Lekuona. Alabaina, aita-amez gain, bazituen bi osaba apaiz zirenak: Manuel, Gasteizko apaiztegian irakasle euskaltzain oso eta gero euskaltzainburu izanen zena; Martin, Errenterian bikario, frankistek fusilatua 1936an, gerla zibilaren hasieran.

Gazte-gaztedanik Juan Marik ukan ditu familian bertan irakasle onak eta, bera ere apaizturik, estudioa eta tesia irakurririk Erroman, kantu berri eta olerkiak publikaturik, euskaltzain urgazle izendatua izan zen 1963an. Hain zuzen 60ko hamarkada horretan elkar eza-gutu genuen, orduan sortu zen gu bion arteko adiskidetasun sendoa. Don Manuel Lekuona, euskaltzainburu ohia zendu zelarik 1987an euskaltzainek erabaki zuten ilobak hartuko zuela osabaren aulkia eta 1988ko uztailaren 30ean egin zuen bere sarrera hitzaldia, hautatu ninduelarik aitabitxi gisa, hona nola erantzun nion:

“Bainan biziak bere bidea derama eta euskaltzain bat hiltzen delarik bertze euskaltzain bat izendatzen da. Don Manuel Lekuonaren ordeztze Lekuona bat, izenez Juan Mari, osaba bezala Oiartzuarra. Nepotismoa ote, batzuk pentsatu duten bezala? Ez dut uste, ezen hautaketak egiten dituelarik Euskaltzaindiak, tituluak, diplomak eta merezimenduak aztertutik bere erabakia hartzen du, erabaki hori dela gehiengoaren erabakia. Eta ez da Juan Mari Lekuona, titulu, diploma eta merezimendurik gabekoa.



Oiartzungo udal aretoan, ezkerretik hasita Alfontso Irigoien, Piarres Xarriton, Patxi Altuna, Jean Haritschelbar eta Juan Mari Lekuona. Atzean Federiko Krutwig eta zutik Jose Luis Lizundia.

Orai zuri mintzo nitzaizu Juan Mari adiskidea. Lehenik nahi dizkitzut eskerrak bihurtu aitabitxi gisa hautatu naizulakotz. Zertako ote? Zure osaba eta zu bezala herri-literaturazale naizelakotz? Badaiteke. Beharbada, bere sortegunetik Euskaltzaindiak Iparraldeko eta Hegoaldeko kideak biltzen dituela ikusirik, nahi ukan duzu erakutsi Europa batu bati buruz goatzilarik, ez duela mugak deus ikustekorik gure harremanetan. Badaiteke ere. Jakin-zazu atsegin haundirekin etorri naizela goiz honetan honarat eta ohoretzat hartu dudala egin duzun hautaketa.

Ohartxo bat hasteko: Sacha Guitry frantses antzerki idazleak, Lucien Guitry antzerki jokolari famaturaren semeak maiz erraiten zuen: Jadanik badaukat aitag emanikako deitura ohoragarria. Norbait izaitekotan, izenaz bakarrik behar dut deituraren araberako fama lortu. Lekuona zara deituraz, deitura ospetsua, Gipuzkoako seme kuttun baten deitura, osabarena. Osaba zen Don Manuel, zu zara Juan Mari.

Egia da izan dela osaba bide urratzaile, egia da izan zarela haren jarraikitzaile. Hura apaiza zen, zuk ere bide berbera hartu duzu. Bainan urrunago joan zara. Erromako Gregoriana Unibertsitatean segitu dituzu istudioak eta tesia landu Doktore tituluaren lortzeko teologian. Hori zen 1966eko Maiatzean, Erromako "Pontificia Universitas Gregoriana" famatu hartan, gaia zinuela: "Ideario ascético-pastoral de Fray Bartolomé de los Mártires, O. P. (1514-1590)" urte berean argitaratua.

Bide urratzaile osaba Gasteizko Seminario nagusian sortu zituelarik —hori zen 1920 eta 1936 artean— euskal literaturazko ikasketak, Jose Migel Barandiaranek denbora berean idekitzen zituela apaiz-gaien gogoak Euskal Herriko aurre-historia eta etnografia erakatsiz. Zu, halaber, arizan zara Donostiako Seminario nagusian, Aszetika eta mistika lehenik, Euskal literaturaren historia gero erakasle izanez eta euskal literaturaren erakaskuntza segituz bai Donostiako EUTG-en, bai Deustuko Unibertsitatean. Beraz biak, osaba eta zu, erakasleak izan zarete, bakoitza bere garaian. Hura zen Don Manuel, zu zara Juan Mari.

Ez dago erakaskuntzarik, bederen mail horretan, ikerketarik gabe. Egia da izan dela bide urratzaile Don Manuel, gerla aurrean nehork ez baitzuen harek bezala sakondu ahozko literatura. Gogora ditzagun haren lanak, hala nola *De métrica vasca* (1918), *Poesía popular vasca* (1930), eta *Literatura oral euskérica* (1935) azken hau berrargitaratua. Zu ere bide hortarik ibili zara eta zabilta, orai bertan erakutsi duzun bezala. Zuharek aitortzen duzu diozularik: « *Ahozko literaturarekiko atxekimendua etxetik datorkit, Manuel Lekuona euskal oralisten artean aitagoietako bat osaba dudanez eta zeinari apaizgoan ezezik oralismoan eta poemagintzan hurbildik jarraitu diodanez* ».

Duela orai sei urte, 1982an hain zuzen, argitaratu duzu 265 orrialdeko liburu eder bat, *Ahozko euskal literatura* deritzana. Bainan ez du tituluak egiazki salatzen duen mamia, herri literatura aztertu baituzu ere, herri literaturak ahozkoak baino eremu zabalagoa besarkatzen baitu. Denak ikertu dituzu liburu mardul horretan, bai

dekorazio-olerkia, bai koplak zaharrak, bai bertsolaritza, erretorika, estetika eta metrika kontutan hartuz. Aldi bat baino gehiago irakurtu dut eta beti miraturik egona naiz, agertzen baitira liburu horretan zure kalitate gehienak: jakituria, zehaztasuna, argitasuna. Nehor ez daiteke herri literaturaz mintza zure liburua aipatu gabe. Liburu horren sarreran zuhaurek aitortzen duzu osabari zor diozuna: « Manuel Lekuonaren idazlanak oinarri bartzan badira ere, hor doaz gure azterketak eta oharkizunak ». Eta urrunago: « Hemen ere Manuel Lekuonari jarraituz ematen dira koplak izeneko horien pentsaera eta teknika berezia. Baina saiatu gara gure aburuz arretagarriak diren beste alderdi teknikoak eta ohar kulturalak ekartzen ».

Zein poliki eta zein goxoki, nehoi minik egin gabe erakustera emaiten duzun beste ikuspegi bat azaltzen duzula. Osaba bide urratzaile izan balinbada, zuri esker xendra edo bidexka hori errege bide bilakatu da. Hura zen Don Manuel, zu aldiz Juan Mari.

Eta azkenik nola ez aipa ez zarela Euskaltzaindian sartzen literaturazale gisa, baina olerkari eta kreator gisa ere. Hor dira zure



Patxi Altuna, Jean Haritschelbar eta Juan Mari Lekuona leben lerroan.

olerki liburuak *Muga beroak* eta *Ilargiaren eskolan*, jakinik "Ezkontzeko eskari otoitzak bertsotan" agertu direla *Jaunaren deian* 1982an. *Ilargiaren eskolan* irakurtuz, ikus daiteke olerki askotan neurtitz libreak baliatzen dituzula askatasun gehiagoren ukaiteko, beharbada, pentsamenduaren aldetik. Mundu magiko baten barrenean murgiltzen gara, gorputz eta arima, eta gure gorputz eta arimen zoko-mokoak ikertu nahian zaude, gure nortasunaren hobeki zilatzeke. *Bizi leku*, *Esku*, *Ile adats*, *Haragizko estatua* eta *Begitarte* dira olerki nagusiak estetiketa eta metrika oso desberdinen bitartez argitara eman dituzunak.

Har ditzagun bi adibide. Lehena erritmo zabalekoa:

Eta ile adatsetan loraturik dagerkigu
barne indarren sinbolu magnetikoa
ile beltzaren
eta ile gaztainaren
lurtasun iluna.
Ile horiaren eguzki lorezko
unibertso beroa
ile gorriaren eragin benusiar demoniozkoa.

Bigarrena aldiz, erritmo arin eta jauzikorrean:

Eskuak eskuekin
txalopin-txaloka:
eskuak eskuekin
txalopin-txaloka:
Zeruan hasi dira
izarrak saltoka
ala morena !
izarrak saltoka...
Eskuak eskuekin
txalopin-txaloka.

Español erran zahar batek diona « *Siempre la cabra tira al monte* » nabari da zure baitan, koplaz zaharren neurtiz eta neurkadetaratz itzultzen baitzira:

Eder basoan haritza
gaztain besangek zumitza,
gerri ederrak ordu zuritan
gau luzatzen dabilta.

Eder hibaian ahate;
kanpai dorreak lau ate;
Lepoa tornuz biribilduek
musika sutan daukate.

Liburuen karroxen ironiak herrikoi estetika beharrezkoa du, karroxa, berez, asto laster eta tobera idurikoa baita. Bainan hauetan kausi daiteken kritika zorrotza zuk idatzitakoan ironia ezti eta goxo bilakatzen da, argi eta garbi erakutsiz nor zaren:

Liburu berriz dator Aresti.
Bertso oroz, bainan diruz garesti.
Gain eta barne, gorria guzti.
Askotan garratz, gutxitan ezti,
bainan ez daukat zertan malmeti
min dut zaigula joan urruti.

Bertso horretan agertzen zaigu Aresti hitz gutxitan jujatua:

Gain eta barne, gorria guzti
Askotan garratz, gutxitan ezti

Eta denbora berean zuhaurek salatzen duzu zure burua juje gisa eta kristau edo apaiz gisa azken neurtitzean:

min dut zaigula joan urruti.

Erakusten duzu zuretzat norbait zela Xalbador hain goxoki aipatzen duzunean:

Hegala eta usoa,
lainoa eta lausoa.
Hegala eta usoa,
lainoa eta lausoa.
Gauza bat-bera du Xalbadorrek
bere izate osoa
goien mailara jasoa
bizitza eta bertsoa.

Apaiz, erakasle, ikertzaile, olerkari, ez ditut dauzkatzun merezi-mendu guziak aldarrikatu, utzi ditut ilunpean idatzi ditzun hanbat eta hanbat artikulu, saio, hitzaurre eta prediku. Nahiago izan dut gaingiroki aipamen bat egin. Gure artean sartzen zara egun ofizialki, hemen, Oiartzunen, zure sort-herrian. Lekuona baten alki



Lehen lerroan, Juan Mari Lekuona, Jose Mari Satrustegi eta Luis Villasante. Atzean ezkerretik hasita, Jean-Louis Davant, Jean Hiriart-Urruti, Antonio Zavala eta Henrike Knörr.

hutsean Lekuona bat jartzen da. Deitura berekoak, hura zen Don Manuel zu zara Juan Mari.

Ongi etorri!"

Literatura batzordeburu

Luzaz, Jagon sailean egona da literatura bere gain hartu baitzuen 60ko hamarkadan bertsolaritza. Egia da garai haietan bertsolariak irrisku handian zirela asmatzen zutenarekin eta berriz hasi zirelarik bertsolarien txapelketak, Euskaltzaindiak hartu zuen bere gain haien antolatzea. Hortaz arduratu zen, besteen artean, Juan Mari Lekuona.

Lazkaon eginikako batzarrean 1989an (VI. Barne Jardunaldiak, Otsailaren 24 & 25a) Iker sailean sartu zen literatura azpisaillkatzen zelarik honela: Literatura klasikoa, Herri literatura, Gaurko literatura. Juan Mari Lekuonaren txosten batek, hain zuzen 1989ko apirilaren 27koa, erakusten du zeri buruz zoen Literatura batzordearen helburua.

II. Euskal Mundu Biltzarraren ondotik ikus zitekeen zer ziren beharrak eta ildo hortarik joanez, zion Juan Marik, Mundu Biltzarrereko lankideak bezalatsukoak beharko zituela Euskaltzaindiko batzordeak, departamendu eta unibertsitatekoak, gogoeta teoriko eta metodologiko serio eta jarraituari atxikiak eta plangintza autonomo eta koordinatu baten barruan ariko zirenak.

Literatura ikerketaz mintzo zelarik, ikusten zuen desoreka bat nabari zela hizkuntzalaritza eta literaturaren artean, goragoko mailan ikusten zela lehena, bai Euskaltzaindian eta bai unibertsitatean. Halere gauzak aldatzen ari zirela azpimarratzen zuen unibertsitatean nola idazleen artean, idazleen elkartea sortuz, liburu gehiago kaleratuz.

Jadanik argi zegoen haren pentsamoldean ikerketak bideratuko lituzkeen, eta unibertsitateko literatura departamenduen bidez loturak izango zituzkeen taldea izan behar zuela Euskaltzaindiko Literatura ikerketa azpibatzaordea.

Behin betiko lantalde baten beharra agertzen du, hasieraren emateko behintzat, bilduz unibertsitateko irakasleak:

- Bordele / Pabe: J. Haritschelhar, Tx. Peillen, J.B. Orpustan, A. Arkotxa
- Gasteiz: J. Kortazar
- Bilbo: B. Uraga, J. Otaegi
- Donostia: J.M. Lasagabaster, P. Urkizu, A. Toledo, A. Lertxundi, J.M. Lekuona

izen zerrenda zehaztu eta osatu beharra zegoelarik.

Juan Mari Lekuonaren eta haren ondoan zirenek argi zeukaten beharrezkoa zela biltzea Iparraldeko nola Hegoaldeko unibertsitateko literatura irakasleak eman den zerrendak agertzen duen bezala.

Azkenean, Literatura batzordeak, azkena Euskaltzaindiko Iker saileko bost batzorde nagusietan, bi azpibatzaorde ukanen ditu: Herri literatura azpibatzaordea, Literatura ikerketarena.

Batzordeburu Juan Mari Lekuona, bi azpibatzerdeetan parte hartuko duena, nahiz Herri literaturan utziko duen arduradun gisa Antonio Zavala, bainan berak atxikiz Literatura ikerketaren buruzagitza.

Herri literaturak, bizpahiru urtetarik egiten ditu jardunaldiak gai batzu sakonduz hala nola konta poesia: Baladak eta erromantzeak (1989, Villabona), Narratiba (1992, Donostia), Ahozkotasuna (1994, Oiartzun), Paremiologia (1996, Durango), Antzerkia (1998, Tolosa), Euskal fraseologia (2000, Bilbo), Etno-kantu laburrak (2002, Eibar), Herri prosa eta ahozkotasuna (2005, Donostia). *Eusker*a aldizkarian agertu da uzta eder hori.

Literatura ikerketak baditu bi xede: Ikusirik beharrezkoa zela finkatzea literatura terminoen hiztegia, euskara baturako hitzak hobeiki definituz, zerbitzu paregabekoa eskainiko ziela bai bigarren mailako irakasleei eta unibertsitateko ikasleei, sartu da lan horretan kontutuan hartuz hitz bakoitzari behar zitzaizola definizioa eman euskaraz eta bilatu etsenpluak edo adibideak euskal literaturan. Ikerketa lan sakona batzordeak eraman duena azken hamabost urte hauetan, hitz bakoitzaren erran nahia eztabaidatuz eta elkarrekin adostuz, azkenik emanez hizkuntza orrazketa batasunaren lortzeko. Liburua agertuko da 2007. urtean, aurten beraz, eta eskaintzen zaio Juan Mari Lekuonari, jakinik zer parte handia hartu duen horretan.

Bestalde, euskal idazle zenduei buruz apailatzen ditu omenaldiak, izan ditzen jardunaldiak ala kongresuak, bilduz bere baitan dituen ikerleak edo kanpotik jin araziz irakasle jakintsuak. Oroitgarriak dira Oihenarti eskainitako biltzar nagusia Maulen eta Donapaleun Iker sortako liburukiak biltzen dituela emanak izan diren mintzaldiak. Halaber aipa daiteke Eusko Ikaskuntzarekin Hendaian antolaturik Antonio Abbadiari eskaini zitzaion biltzar nagusia, hor ere direla lekuko ondotik kaleratu diren liburu mardulak. Jardunaldietan aztertuak izanak dira hainbat eta hainbat idazleen obrak, izan ditzen Iparraldekoak (Elizanburu, Oxobi,...) edo Hegoaldekoak

(Kardaberaz, Arana, Ubillos, Lizardi, Lauaxeta,...). *Euskera* aldizkarian agertu dira emaitza horiek, erakusten dutela Herri literaturarekin batera azken mende laurdenean emanak izan diren aurrerapen baliosak.

Azkenik aipatzekoak dira Euskaltzaindiak ematen dituen sariak BBK-rekin batera. Txomin Agirre eleberriz saria, Toribio Altzaga antzerki saria, Felipe Arrese Beitia olerki saria, Mikel Zarate saiakera saria eta Resurrección María Azkue sariak bai narrazioan eta bai olerkian 10 eta 13 urte arteko gazte eta 14 eta 17 urte arteko gazteentzat. Sari horien guztientzat Literatura ikerketa batzordeak izendatzen ditu epaimahaiko kideak gehienak batzordekoak direlarik. Halaber proposatzen dizkio Euskaltzaindiari urtero Espainiako Kultura ministeritzak ematen dituen Literatura sari nazionalak eta Iruñeko udalak antolatzen dituen Literatura lehiaketak.

Literatura batzordea sortuz geroztik kantitatez nola kalitatez eman diren urratsak azpimarratzekoak dira, pentsatuz bereziki bere



Lehen lerroan Jean Haritschelbar eta Juan Mari Lekuona. Atzean ezkerretik hasita, Federiko Krutwig, Jean-Louis Davant, Jean Hiriart-Urruti, Antonio Zavala eta Henrike Knörr.

lan isilean, bainan beti emankor, denak bilduz bere irriño goxoarekin, denetaz arduratu dela Juan Mari Lekuona.

Euskaltzainburu-orde

Duela berrogei urte hain zuzen, 1967an, Euskaltzaindiak erabaki zuen euskaltzainburu-orde bat beharrezkoa zela eta euskaltzainburua Hegoaldekoa izanez, don Manuel Lekuona, euskaltzainburu-ordea Iparraldekoa izanen zela, Euskaltzaindiak ukan zezan Iparraldeko agintarien aitzinean araberako solaskidea eta, orduan, izendatua izan nintzen.

Hogeita bi urtez euskaltzainburu-orde izanik 1988ko abenduaren 30ean euskaltzainburuaren kargua eman zitzaidalarik, buru-ordea Hegoaldeko izan zen eta zituen merezimenduengatik Juanito San Martin izendatua izan zen. Laster utzi zuen kargua Euskal Autonomi Erkidego ararteko Gasteizko Lege Biltzarrak hautaturik. Niharek, Bidarten egin zen biltzarrean 1989ko martxoaren 31n, proposatu nuen Juan Mari Lekuona Juanito San Martinek utzi zuen karguaren betetzeko. Hala erabaki zuen Euskaltzaindiak. Sartu zen beraz zuzendaritzan eta ez naiz sekulan dolutu hautuaz.

Alabaina, zuzendaritzan egon den garaia ez da beti garai goxoa izan Euskaltzaindiarentzat. Derradan beti ene ondoan egon dela Juan Mari, ele goxoz ezitzen zituela nituen kezak, elkarrekin gemituen solasek arintzen zituztela ene arrangurak. Egia da elkarretaritzen ginela usu, Literatura batzordeko bilkuren ondotik, zuzendaritza biltzen zelarik bi aldiz hilabetean eta osoko bilkuretan. Edozein lekutara joan behar zelarik hartzen nuen Oiartzunen edo Donostian eta bidaiaria denboran mintzatzen ginen orduko gai larriez, hala nola Euskaltzaindiaren kudeaketaz eta geroaz. Berebil gidari izan bainaiz luzaz, gogoratzen ditut Piarres Lafitte euskaltzainarekin iragan ditudan orenak, Koldo Mitxelenarekin ere eramaten nuelarik Bordeleko Unibertsitatera tesi baten epaimahaikide zela eta berriz ekartzen nuela etxera, are gutiago ahantziko ditut Juan Marirekin iraganak. Iruñea, Gasteiz, Bilbo, baita ere Salaman-



Lehen lerroan Juan Mari Lekuona, Jose Mari Satrustegi eta Luis Villasante. Atzean ezkerretik hasita, Jean-Louis Davant, Jean Hiriart-Urruti, Antonio Zavala eta Henrike Knörr.

ca izan dira gure helmugak. Oroit naiz joan ginelarik Salamancako Unibertsitatera, jardunaldi batzuk apailatu zituelarik hango Larramendi katedrak, zer oren goxoak iragan genituen elkarrekin.

Diru eskasean zelarik Euskaltzaindia, aldatu genituelarik arautegia eta barne erregelak, aditegiak bere txostena eman zuelarik, organigrama berritu behar izan genuelarik, orduko barne jardunaldietan beti nasaiki eskaini dit Juan Marik bere laguntza. Hitz bitan errateko, beti izan da beharrezkoa nuen aholkulari ona baino hobea. Mesede horiek ezin ahantziak dira eta gogoan daukat beti enetzat izana den adiskide leiala, dena irri, osoki baketsu, zuzentasunez betea. Eredu bat enetzat.

Jean Haritschelbar
euskaltzainburu ohia.
2007ko apirilaren 16an

VI

EUSKAL LITERATURAREN AZTERTZAILEA

Ana M^a Toledo Lezeta

Juan Mari Lekuonak jorratu zuen lan-eremuetako bat euskal literaturarena izan zen. Lan-eremu horri, berriz, bi aldeetatik heldu zion. Batetik, ondare horren aztertzailea izan zen; bestetik, bere sorkariak bide, ondare hori aberastu zuen.

Berez, hitza izan zuen bere bizitzako lanabes. Hitza darabil kantua lantzen duenean, itzulpen eta moldaketak egiten ditue-
nean, poemarioak mamitzen ditue-
nean, irakasten duenean... Ira-
kaskuntzaren alorrean, gainera, hitzaz baliatzen den artea du irakasgai. Irakasgai izan aurretik ikasgai izana zuen eta hala izan-
go du aurrerantzean ere: literatura aztertzea da bereganatu zuen eginkizunetako bat.

Oso txikitan ohartu zen hitzaren izaera balioaniztunaz; alegia, hitza eguneroko komunikazio-beharrak asetzeko bitartekoa izateaz gainera, beste zeregin batzuetarako lanabes zen. Lekuonatarrek kantu zaleak ziren, Berasategitarren aldeko amona bertso-paper zalea. Hitza gozatzeko iturri ere bazen.

Hitzaren alderdi honen erabileran barneratzeko aukera ere eskura samar izan zuen. Gerra madarikatuaren gorabeherak euskal gaietan ongi hornituta zegoen liburutegia hurbildu zioten.

Gerratean (1936-1939) nornahi bihur zitekeen susmagarri; ezer gutxi behar zen horretarako. Susmagarritzat eduki zezaketela su-

matzen zuenak kolokan ikusten zuen bere etorkizuna, noski. Juan Mariren osaba On Manuel Lekuonak, nonbait, ez zuen bere burua oso seguru ikusten Gasteizko Apaizgaitegian eta Frantziara ihes egitekotan zebilen. Apaizgaitegia utzi aurretik, Lekuonatarren etxera ekarri zituen bere liburu eta paper guztiak eta, gisa honetan, urtealdi haietan gazte gutxiren eskura egon zitekeen euskal liburutegi bat etxean bertan izan zuen Juan Marik. Bestalde, osaba on Manuel ere, hitzaren erabilera artistikoaz arduratzen dena izanik, –ahozko euskal literatura aztertzen du, poesiak egiten ditu– gai hauetan zer ikasirik izango zen liburu eta paper horien artean.

Beraz, hitzaren erabilera artistikoa erakargarri duen familia batean jaio eta hazten doa Juan Mari. Etxeko giroa lagun, berak ere barruti horretara bilduko du arreta. Hala, bere sorkariekin euskal li-



Juan Mari Lekuona, osaba Manuelekin eta Juan Mari Galarragarekin Añorgako elizaren atariko bankuan 1956an.

teratura aberastuko du eta bere azterketekin besteek mamitutakoa argitu eta interpretatuko du.

Azterketen alorrean bi aztergai ditu nagusi, bata herri-literatura da; bestea, poesia landua. Halaber, bi liburuk jasotzen dituzte aztertzaile legez egin zituen lanak: *Ahozko Euskal Literatura* (1982) eta *Ikaskuntzak Euskal Literaturaz (1974-1996)* (1998).

1. AHOZKO EUSKAL LITERATURA

Laurogei eta bateko abenduaren bateko data darama *Ahozko Euskal Literaturari* egin zion sarrerak. Bertan dioenez,

Aurten dira 25 urte alor honetan gure lehenengo lana argitaratu genuela. Eta hemeretzi urte igaro dira, bestalde, lehenengo hitzaldia gai hauei buruz eman genuenetik¹⁴.

Honenbestez, urte luzeetako azterketen ondotik ausartzen da liburua osatzera. Lehentxeago, aurreneko aldiz unibertsitateko gletara iritsi ziren Euskal Filologiako ikasketak: 1976. urtean Deustuko Unibertsitateak Euskal Filologiako lizentziatura gehitu zion in-darrean zeukan Ikasketen Planari. Lehen urratsak ematera zihoan lizentziatura honetan irakasgai baten ardura onartzeko gomita jaso zuen Juan Marik. Horrela, ahozko euskal literatura irakasteko erantzukizuna bereganatuko du. Gerora, ikasturteren batean euskal literaturaren alorreko beste irakasgairen bat ere irakatsi izanagatik, etenik gabe jarraitu zuen ahozko euskal literaturako eskolak ematen erretiroa hartu zuen arte.

Jakina, ahozko euskal literaturako irakasle izatera gomitatu bazuten, aditutzat zeukatelako izan zen; izan ere, goraxeago adierazi bezala, urtetako eskarmentua zuen herri-literaturari buruzko ikasketetan. Haatik, orain, lizentziatura bateko irakasgai izateak, edukiak sistematizatzea eta azterbideak zorroztea eskatzen zuen. "Azken aldian, berriz, Euskal Filologiako eskolek eragin berezia izan

14. LEKUONA, Juan Mari (1982): *Ahozko Euskal Literatura*, Erein, Donostia, 7. or.

dute gai hauei buruzko ikusmoldean" (8. or.) aitortzen du aipatu sarrean.

Liburua egiteko lantegiari heltzen dionean, oso jantzita dago gaian. Jadanik emanak ditu hitzaldiak, argitaratuak azterlanak... Eta, liburuaren hasierara daraman zerrenda bibliografikoak erakusten duenez, gaiak eragin duen bibliografia ere oso ondo eza-gutzen du. Orain, liburua mamitzeko eginkizuna esku artean hartzean, sailkatuta aurkezten duen bibliografia zabal hori abiapuntu, hitzaldiak prestatzeko eta artikuluak argitaratzeko egindako lanak irakatsitakoari, Euskal Filologiako ikasleei egunez egun eman behar dien eskolak eragindako ikerketa-lana eta gogoeta-lana erantsiz, ordura arteko urratsik handiena planteatzeko garaia du: ahozko euskal literaturari buruzko zenbait lan monografiko elkarren segidan argitaratzeko unea da. Herri-literaturari buruzko ikaskuntzetan trebatu ostean ekiten dio lanari. Urtetan zehar bereganatutako ezaguera teoriko, metodologiko eta hitz artistikoaren azterketan metatutako esperientzia aldean, ahozkotasunaren nolakotasuna azaltzera eta euskaldunak mamitutako ondarearen azterketa egitera bideratuko da.

Ahozko Euskal Literatura izenburuak emandako batasunpean, barriti honetan kokatzen dituen hainbat gairi eskainitako monografiek osatzen dute liburua.

Jorratzen duen lehen gaia da orokorrena; izan ere, "Ahozko literaturaren osagaiak" izenburupean, ahozko literatura dei zeregina mugatzera zuzentzen da; azken batez, zer da ahozko literatura edo zeri deitzen zaio ahozko literatura galderari erantzutera. Galderari erantzuteko komunikazio-gertaera honetan parte hartzen duten osagai guztien nolakotasuna arakutzen du eta, aldi berean, agerian uzten literatura idatziaren funtzionamendu-moduarekin dituen aldeak. Bi sistema eratzen dituzte ahozko literatura deituak eta idatziak: egile, hartzaile, sorkariaren euskarri, sorketarako erabilitako baliabide,... guztiak dira desberdinak. Kolektibitate baten literatura izanik ahozkoa eta, kolektibitateak bereganatzen duen neurrian bi-

zi-iraupena eskuratzen duena, ez du lekurik bertan banakoa denak: ez egilea da ezaguna, ez harrera da banakoa, ez mintzaira da banakotasun baten subjektibotasunetik iragazia... Originaltasunik ezin galdegin dakioke ahozko literaturari, originaltasuna bere bizi-iraupenaren aurka doalako. Kolektibitateak bere egitea du bizi izateko nahitaezko baldintza, irauteko ezinbesteko betebeharra. Eskakizun hau uztartu ezina da gizabanakoaren adierazpen berezi, original izatearekin.

Ahozko Euskal Literaturaren lehen atalak, bada, sistemaz dihardu, ahozkotasanaren sistemaz. Hala, literatur teoriako eskuliburu batek azaldu beharreko lehen gaia zer da literatura edo nola funtzionatzen du literaturak baldin bada, gisa berean jokatu du Juan Mari Lekuonak, ahozko literatura dei komunikazioa osatzen duten elementuen ezaugarriak adieraziz. Lehen atal hau, liburuari egin sarreran aurkeztu zuenean esan bezala,

Edozein lekutako herri-literaturari buruz gauza beratsuak esan daitezke, nahiz eta kapitulu hau euskaldunen ikuspegi kulturaletik egina den. (8. or.).

Ahozko literaturak eratzen duen sistema deskribatu ostean, ikuspegia murriztu eta, sistema honen barnean bizitza literarioa izan duten eta oraindik duten sorkari-modu desberdinak ditu monografiatarako gai. Monografiok erakusten dutenez, ahozkotasanak erabilitako molde guztiei ez bada, gehienei egin die tartea, –dekorazio-olerkia, koplak zaharrak, erromantzeak, bertsolaritza, herri-teatroa, kontaera, esaldiak eta esaerak– eskuliburu itxura emanaz azterlan bildumari. Alderdi honetatik azaltzen duen zabaltasunak ez dio galarazten hitz neurtuaz baliatu diren formei eskaintzea azterlanik gehien. Hitz neurtua, modu batera edo bestera, hamaika monografiatarako gai du, herri-teatroak, kontaerak eta paremiologiak bana duten bitartean. Hamaika monografia horietan barrena, nola tradiziozkoak diren generoak (dekorazio-olerkia, koplak zaharrak, erromantzeak...), hala tradiziozkoak ez direnak (bertsolaritza) aztertzen dira. Generoen deskripzioa gune duten azterlan hauen ondoan, bada egile jakin batzuen lanen azterketarik ere: dela Bilintxen bertsogintzarena, dela bat bateko bertsolaritzan belauldi



Juan Mari Lekuona Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzako bulegoan.

desberdinetako ordezkari nagusi bihurtu ziren Txirrita eta Basarri bertsolariena. Bada, baita, oroz gain, ikuspegi historikotik gaia jorratzen duen azterlanik ere: "Bertsolariak historian: sailkapen saioa", adibidez.

Honenbestez, *Ahozko Euskal Literatura* izenburupean argitaratutako liburua monografia batzuen bilduma da. Bilduma hori osatzen duten azterlanek sistema literario honen funtzionatzeko era azaldu ondotik, iturri honetara biltzen diren isuri desberdinei buruzko xehetasunak emango dituzte.

2. IKASKUNTZAK EUSKAL LITERATURAZ (1974-1996)

Monografia sail batek osatzen du, halaber, *Ikaskuntzak Euskal Literaturaz (1974-1996)*¹⁵. Aldizkariren edo libururen baten atal izanaz,

15. LEKUONA, Juan Mari (1998): *Ikaskuntzak Euskal Literaturaz (1974-1996)*, Elixabete Perez Gaztelu, Ana Toledo Lezeta eta Esther Zulaika Ijurkoren edizioa, Deustuko Unibertsitatea, Donostia. Bilduma honek jasotzen dituen azterlanetako aipamenak edizio honetatik egingo dira.

han-hemenka barreiatuak zeuden monografia hauek, harik eta liburu bakar batean bildu eta, argitara emateko eskaintza jaso zuen arte Juan Marik. Deustuko Unibertsitatea izan zen gomita luzatu ziona erretiroa hartu zuenean eta, horrela, hogeita bi urtez gauzatu eta plazaratu zituen artikulua bakar batean batuta ikusteko aukera izan zuen: liburura eraman gura izan zituen guztiak daude, nahiz eta bere osotasunean ez duen jasotzen mamitu zuen bibliografia¹⁶.

Badira argitalpen horretan *Ahozko Euskal Literatura* liburua plazaratu aurretiko ikaskuntzak, gehienak, haatik, ondorengoak dira. *Ahozko Euskal Literaturara* eramandako hainbat aztergaitan sakontzen jarraitzen du eta aztergai berriekin aberasten herri-literaturari buruzko ezaguerak. Dena den, ez zen mugatu aipatu zereginera, beste aztergune kutun bat ere gehitu baitzion herri-literaturarenari: poesia landuarena, hain zuzen ere. Beraz, hogeita bi urte horietan zehar herri-literaturaz ez ezik, literatura landuaz ere jardun zuen, XX. mendeko zenbait idazlan poetikoz emandako xehetasunek erakusten dutenez.

Herri-literatura izan da Juan Mari aztartzailearen iker lerroa. Baina, iker lerro horren ildoan garatu izanagatik bere bizitza akademikoa, Juan Mari poetak hitzaren erabilera artistiko oro du interesgune eta, jakina, bereziki, poesia landua. Oraindik areago: Juan Mari Lekuona poetaren jakin-mina ez zen agortzen hitzaren erabilera artistiko ororen ezagueran. Badu beste arreta gunerik ere, nahiz giza zientzien alorrean, nahiz adierazpen artistiko desberdinetan. Oso hurbildik jarraitzen ditu Aita Barandiaranen ikerketak edo Jorge Oteizaren praxi artistikoa eta estetika buruzko teoriza-

16. Euskaltzaindiaren eta Oiartzungo Udalaren eskutik datorren liburu honetako atal bibliografikoak osotasunaren berri ematea du jomuga. Horrela, erreferentzia bibliografiko mailan behintzat, Juan Marik egindako lanen zerrenda zehatzagoa eskuratzen du.

zioa. Bere obra poetikoaren poetika azaldu zuenean, etorria bizkortu zion beste eragilerik ere aipatu zuen¹⁷.

Juan Mari Lekuona aztertzaileak ere, "testura" arreta biltzera-koan, diziplina desberdinak lankidetzan ikusten ditu. Oinarritzko aztergaia testua den arren, beste diziplina batzuen argitan behatzeak, hobeto ezagutzera laguntzen du. Horregatik zioen "Herri-poesia eta Oteizaren ulerkuntza estetiko" azterlanean:

Oteizak esandakoa orientagarri da guretzat, ikuspegi sakona denez estetikaren aldetik begiratuta. (50. or.)

Elkarrizketan atzematen zituen Juan Mari Lekuona poetak adierazpen artistiko desberdinak eta, Juan Mari Lekuona aztertzaileak, berriz, diziplina desberdinak ez eze, euskal herri-literatura eta landua ere elkarrizketan sumatzen zituen. Oso garbi zeukan herri-literaturak eta literatura landuak bi sistema osatzen dituztela. Sistemok ez dira, haatik, ukipenik gabeak. "Euskal Herria: bi literatur sail kontrapuntuan. Euskal Herriko ahozko literatura" azterlanean zioenez, bada topagunerik "bi estilo" horien artean:

Euskal literatura ez da melodia bakarrekoa, edo soilik ahozkoa edo soilik idatzizkoa. Aitzitik, bi literatur tradiziok lotuak azaltzen zaizkigu. (17. or.)

Hasiera-hasieran egindako baieztapen hau azaltzeko, XVI. mendetik 1936ko gerraondoraino euskal literaturak moldatutako ibilbidea gainbegiratzen du azterlanean barrena.

Formazio generalista sendoari, euskal literatura landuari buruzko zertzelada ugari gehituz, herri-literaturaren ezaguera bikaina erantsiz eta, hitzaren erabilera artistikoaren azterketari aurre egiteko sentsibilitate zoliaren jabe izanaz bakarrik azal zitzakeen herri-

17. *Oihu ilunak espiralean* (1979) poemarioaren sortze-prozesuaz ari delarik honela dio: "Poema honen abiapuntua zinema batean dago: 'Gritos y susurros' filme entzutetsua dago azpian". Eta aurreraxeago, berriz, "Denbora nahiko luzea igaroz zinema ikusi eta poemategia lantzen hasi nintzenerako. Lehen bulkoa Txillidarengandik jaso nuen han-hartan". LEKUONA, Juan Mari (1996): *Ibilaldia. Itinerario (1950-1990)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia, 33. or.

literaturaren sistemako adierazpenek beste sistema batzuetakoekin erakusten zituzten loturak.

Herri-literaturaren ezaguera sakona zuen. Iker lerro honetako zeinahi alderdi izan zuen interesgune. Azter moduei leku egin zien, baina, noski, batik bat aztergaiez arduratu zen. Aztergaietan badira ahozko euskal literaturaren azterketari oso modu zabalean heldzen diotenak, nahiz barruti honetako gai zehatzen bati buruz dihardutenak, nahiz gai zehatzen baten alderdiren batean sakontzen dutenak ere. Aztergaia oso modu zabalean hartzen duenean, ahozko euskal literatura deskribatzeaz gainera, genero eta azpigenerotan sailkatzen du eta hauetako bakoitzaren ezaugarrien berri ematen du. Bestalde, hurbilpen panoramikoak ez ditu mugatzen aztergaiaren nolakotasuna jorratzera: ahozko euskal literaturaren nolakotasunaz diharduten artikuluen ondoan bada historia aztergai duenik ere. Beraz, gaia erarik zabalenean atzeman zuenean, ardatz sinkronikoan ez ezik, ardatz diakronikoan ere kokatu zen.

Halaber, esparru zabala hartzen du ikusmiran, Euskaltzaindian sartzeko egin hitzaldian: "Erdi-ahozkotasunaren literatur estiloaz". Badu garrantzirik ateratako ondorio nagusiak:

Hau litzateke mintzaldi honen ondorio nagusia: ahozko eta idatzizko estiloen artean hirugarren bat azpimarratzea. (173. or.)

Hirugarren estilo honek "testu finko, bakar, autoreduen eta ahozkotasunak dituen kezkarik gabea" aurkezten du, "baina kontsumoko literatur moldeetara isuria, funtzionala, eredu apaletan oinarritua, itzulpen edota egokitze-lana eskuarki" (173. or.).

Azterlan honekin osatu egin zituen herri-literaturari buruzko ikaskuntzak; izan ere, ordurako jorratua zuen ahozko euskal literaturaren barrutia, beronen nolakotasunaren eta ibilbidearen berri emanaz. "Ahozko eta idatzizko estiloen" artean zegoen erdi-ahozkotasuna zehaztea geratzen zitzaion, herri-literaturaren bi molde hauen arteko aldeak agerian uzteko. Gisa honetan, ahozkotasuna eta erdi-ahozkotasuna mugatuta zeuzkan: ez hori bakarrik, baita "idatzizko" estilotik at, literatura landuaren alorretik kanpo gelditzen zena deskribatuta ere.

Ahozko euskal literaturaren edo erdi-ahozkotasunaren aztergaia bere zabaltasunean atzematen duten artikuluez gain, monografi-koagoak direnak daude. Baita oso monografikoak direnak ere: *Refranes y sentencias: zenbait baliabide mnemotekniko*, kasu. Oro har, azterlan monografikoago hauetan bertsoa adierazpen-modu izan duten generoetara biltzen du arreta, dela tradiziozkoak diren generoetara, dela bertsolaritzara. Tradiziozkoei dagokienez, azterlanetarikoa bat erromantzei eskaintzen die, beste bat XVIII. mendeko lirikari. Bertsolaritzaren barrutian, Basarriren bertsolari proiektua edo Udarregiren bertsoak aztertuko ditu. Dena den, hitz neurtua zerabilen herri-adierazpena aztergai nagusi izanagatik, hitz lauuko sorkariei ere egin zien tarte, "Gipuzkoako herri-ipuin idatziak", azterlana lekuko.

Esan bezala, bere osotasunean eta bere ataletan aztertu du herri-literatura, hitz neurtua izanaz aztergarik gogokoena. Monografi-koagoak diren artikulua-sailean hitz neurtuaz baliatu diren egileak edo generoak dira aztertuenak. Eta generoaren edo egile jakinaren obraren azterketa uzten duenean, alderdi bakar batetik oratzeko aztergaia, metrika da hautatutako alderdia. Alderdi metrikoa aztergune duenean ere, zabalera handiagoko edo txikiagoko barrutia hartuko du jorragai. Hala, "Euskal estrofez" diharduenean, osotasunaren berri ematea du jomuga; bestetan, ordea, generoren batean egindako erabilerara, –"Kontapoesiaren modulu metrikoak hegoaldeko usadioan"– nahiz egileren batek egindakora mugatuko da: "Barrutiaren metrikaz", "Lizardiren eskema metrikoak eta puntuak". Ikaskuntzon izenburuek iragartzen dutenez, alderdi metrikoen duen jakin-mina ahozko poesiaren mugak gaintu eta, poesia landuaren esparrura hedatzen da.

Haatik, ez du poesia landura jo metrika-mailako azterketak egiteko soil-soilik. Juan Mari poetaren interesgune ez ezik, Juan Mari aztertzailaren interesgune izan da XX. mendeko euskal poesia landua. Juan Mari poetak miatu zuen XX. mendeko euskal poesia landu guztian nabarmendu zuen oro, seguru aski, ez zuen argitara

eman Juan Mari aztertzaileak, ez baita beti erraza ezagun, lagun edo adiskide diren ofiziokoen sorkarietan atzematen den guztiaz jardutea, norbera ibilbide poetiko bat mamitzen ari denean. Miatu-tako guztia, beharbada, ez zuen argitaratuko, baina, ez zuen horregatik konpromisoa saihestu, ezta beharra akuilu zuela ibili ere: gogoko lantegia izan zuen. Luis Jauregi "Jautarkol"en *Biozkadak* edo Satarkaren *Intza begietan* aztertuko du, baita osaba Manuel Lekuona-ren literatur kreazioa edo Aita Santi Onaindiaren olerkigintza ere, Orixeren liturgi olerki eta abarrez gain.

Ez hori bakarrik. Bai herri-literaturaren esparruan, bai poesia landuarenean, oso gustuko izan du liburuak aurkeztea. Hirurogei eta hamar urteetarako hasi zen oso atsegin izango zuen lantegi honetan: besteren liburuei hitzaurreak egiten, prologistaren eginkizuna betetzen. Lehenik Uztapideren *Lengo egunak gogoan* aurkeztu zuen¹⁸. Geroago etorriko dira I. M. Atxukaroren *Irribarrezko printzak* liburuari eginiko "Aurkezpen bat egiteko asmoz", edo Bitoriano Gandiagaren *Uda batez Madrileni* eta *Elorriren* argitaraldi berriari eginiko sarrerak. "Zerbitzuko kritika" deitzen duen zeregina da. Ez da nolanaahi asmatutako izendapena, uste sendo batean eraikitakoa baino; honakoan, prezeski: hitzaurreok idazlanaren giltzak ematea helburu izanik, irakurketaren ekintza errazten diela irakurleei.

3. ETENGABEKO BERRITZE-LEGEEN MENDE

Etengabeko berritze-legeen mende dago ikerketa. Eta ez historian barrena ezaguerak metatuz joan direlako soilik, baita aztertzeko moduak eta berauen euskarri teorikoak ere ugaltzen joan direlako. Literatur kritikaren historia gain-gainetik begiratzea aski da honakoaz ohartzeko: literaturari buruzko ikuspegia aldatuz joan dela, literatur idazlana angelu desberdinetatik aztertu dela, idazlana hurbiltzeko ikuspuntuak egon direla eta egun ikuspuntuen

18. "Atari gisa" in OLAIZOLA URBIETA, Manuel, "Uztapide" (1974): *Lengo egunak gogoan*, I, Auspoa Liburutegia, Tolosa.



Oiartzungo udal aretoan, Euskaltzaindiko sarrera bitzaldia irakurtzen (1988.07.30).

koexistentzia gertaera arrunta izateaz gainera, onargarri den jarrera bakarra dela. Horregatik, hain zuzen ere, azter moduak anitzak dira eta hautatutako azter moduaren arabera, idazlanaren irakurketa desberdina egiten da. Aurreikus zitekeenez, guzti honetaz jabetua zegoen Juan Mari eta hala aditzera eman zuen *Ahozko Euskal Literaturari* egin zion sarreraren:

Eta saiatu gara bibliografia osatua eta sailez-sail aurkezten, beren bidetik abiatu nahi dutenek nondik jo jakin dezaten. (8. or.)

Berez, sarreraren ondoren datorren lehen atala bibliografiarena da: ikuspegi orokorra, dekorazio-olerkia, koplak zaharrak, erroman-tzeak, bertsolaritza, neurkera, teatroa, kontaera eta, azkenik, esaldiak eta esaerak sailetan banatuta datorren zerrenda bibliografikoa.

Badaki azterbideak daudela, badaki aztergaira hurbiltzeko era desberdinak daudela eta ahozko euskal literaturaren azterketa beste azter modu batzuetatik landu nahi lukeenaren esku jartzen du abiapuntu legez lagungarri lukeen zerrenda bibliografiko zabal hori. Berak bere bidea du, egin zituen azterketetan erabili zuena, hain juxtu. Bide horren jatorria, jakina, osaba On Manuelen eskolan dago.

"Manuel Lekuonaren metodologia ahozko literaturaren ikerketan" 1995 urtean argitaratu zuen Juan Marik. Ordurako gauzatuak ditu bere azterlanik gehienak: azkenetarikoa da. Hortaz, azterlan honi heltzen dionerako, herri-literaturaren ezagutza sakona du, urte askotako eskarmentua herri-literaturari buruzko hitzaldiak eta eskolak ematen, gogoetak eta azterketak egiten. Gaiaren ezaguera sakon eta zabal honetatik hurreratu eta, euskal oralisten aitzindari jotzen du Juan Marik osaba Manuel Lekuona eta ahozko euskal literaturaren azterketara egindako ekarri baliotsua azpimarratzen:

Onarpen eta aitorpen hauek hala izan badira, Manuel Lekuonak ahozkotasunari eman dion tratamenduagatik da, eta, besteak beste, ahozko literaturan erabili duen metodologiagatik. Hirurogei urteren buruan bere balioari eusten badio idazlanak, eta oraindik ere goien mailako aipamena jasotzen badu, honek adierazten digu, autorearen dohainez eta prestakuntzez baino harantzagoko zerbait badutela idazlanek (...): Manuel Lekuonak ahozko estiloari buruz erabili zuen metodologia egokia, berarizkoa, zehatza eta zientifikoa ere bai, neurri eder batean. (23. or.)

Herri-literaturaren aztertzaile legez osabarengandik hur-hurrean zekusan bere burua Juan Marik. Euskaltzaindian sartzeko hitzaldia, ohiko jardunbidea jarraituz, hartzera doan eserlekua hutsik utzi duen euskaltzaina gogoratuz hasten du. Osaba On Manuelen hutsarte betetzera dator eta oroitzapenean honela aurkezten du bien arteko harremana:

Osaba eta biok nahiko bat izanak esan nahi du, nire lanetan –eta bereziki ahozkotasunaren inguruan nabilenean– bai eskolaz eta bai apetzaz gogora ekarriko dudala beti osaba. (153. or.)

Osaba On Manuelen eskolakoa da; maisutza aitortzen dio. Ahozkotasunaz ari denean, batasun baten barnean jardutearen kontzientzia du. Batasunean, bai, baina, zalantzarik gabe, bere ekarri berezia egin zuen, Juan Marik; izan ere, metodo, kultur jarrera eta abar jakin batzuekin bat egiteak erro-errotik baldintzatzen duten arren azterlana, ez dira emaitza erabakitzen duten osagai bakar-rak: aztertzailearen dohainek eta prestakuntzak ere badute zer esanik. Metodoa aldaera bat da, –oinarrizkoa, noski–, hala ere, beste aldaera, erabiltzaileak metodoaz egiten duen erabilera da.

Metodoarekin batera metodoaz egiten den erabilera azpimarratu behar da literatur kritikaren barrutian. Aditzera eman nahi dena argitzeko eta ez bestetarako, hain hurbil ditugun aztertzaile eta azterlan hauen barrutitik irtenaz, ezagun den etsenplu batera jo daiteke: Leo Spitzerren estilistika idealistak aurkeztutako metodora. Spitzerren eta, oro har, eskola idealistaren metodoak makina bat salaketa jaso zuen: inpresionista omen zen. Baina, nahiz eta Spitzerren metodoak alderdi ahulak izan, bere azterlan askok iraupena bereganatu dute. Metodoaren erabiltzailea aldaerari zor zaion lorpena da. Kritikoak, Spitzerrek, bere metodoaren mugak gainditzeko dohainak eta jakinduria izan zituen; zeinahi filologok, ordea, metodo berberaz baliatuz, ez lituzke eskuratuko hain azterlan iraunkorrak.

Juan Marik intuizio handia du, baita eskarmentuak berak emandako ezaguera sakona ere, noiz edo noiz musikarekin batera jorratu duen hitzaren erabileraren ahalmenez. Berezkoa duen intuizioari, hitza lan-tresna izateak eskuratu dion ezagutza gehitzen dio. Kantuak mamitu edo egokitu dituenean, eliz giroko itzulpenak eta moldaketak egin dituenean, gazte-gaztetatik poesigintzan diharduenan... hitza lantzen ari da. Berezko senari, bere ibilbidean izandako lantegiek hitzak eskaintzen dituen aukerez emandako jakinduria eransten dio Juan Mari literaturaren aztertzaileak eta zigilu berezidun bihurtzen bere azterlanak.

Osaba On Manuel Lekuonaren eskolan kokatu zuen bere burua Juan Mari herri-literaturaren aztertzaileak. Eskola honek emandako euskarri teoriko eta metodologikoen gain lan egiten du, baina, bere nortasunetik, bere formaziotik, bere eskarmentutik, bere trebetasunetatik... Eta horrela, eskolaren uzta aberastu egin zuen.

Norbaitentzat idaztea izan zuen jomuga beti. Bere idazte-ekintza osoan hartzailea du gogoan. Nola Juan Mari poetak, hala aztertzaileak, aditzera eman zuen irakurlea zuela bere lanaren sustatzaile. Juan Mari aztertzaileari dagokionez, "Sistematze-lan eta azterketa hauek lagungarri izan nahi lukete irakaskuntzan eta euskal irakurle-



Juan Mari bizlari Oiartzungo udal liburutegian.

goan" (8. or.) zioen *Abozko Euskal Literaturari* eginiko hitzaurrean; besteen idazlanei hitzaurreak egiten dizkienean, berriz, idazlan horien irakurketarako giltzak eman nahi dizkie egile eta irakurleei... Bere azterketak, irakaskuntzaren, irakurleen zerbitzuan egin izanak, pedagogikoa izatea eskatzen zion eta, berez, sentiberatasun berezia erakutsi zuen alderdi horretan. Pedagogiko izan nahi honek ez zuen inolako galerarik ekarri azterlanek eskatzen duten zorroztasunean, edukien maila eta edukiok aditzera emateko moduaren eskakizunak uztartzen jakin zuelako. Bestela esanda, azterlanari zego-kion mailari amorerik eman gabe eutsiz, ahalik eta eskuragarrien egiten saiatu zen.

Aldaketa asko etorri da Juan Mari Lekuona herri-literatura eza-gutzera eta aztertzerara abiatu zenetik: euskara irakaskuntza-hizkuntza izatera heldu da, Euskal Filologiako ikaskuntzak unibertsitatara iritsi dira... Testuinguru honetan, beharra, egokiera, bokazioa eta



*Juan Mari bizlari Euskaltzaindiaren XV Biltzarrean, Baionako Letren Fakultatean,
(2001.09.21).*


abar akuilu, aitzindari eta bide-erakusle izan zen Juan Mari Lekuonaren azterlanek beste azertzaile batzuenak izango dituzte aldamenean.

Herri-literaturak bizirik dirau: hartzailego zabalaren gozamen-iturri izanaz jarraitzen du eta, eginkizun hau betetzea bezain funtsezko ez izanagatik, azertzailearen arreta erakarritz ere segitzen du. Bertsolaritzak, adibidez, sekula ezagutu duen bizitarik sendoen du: inoiz ez du izan horrenbeste bertsozale euskarri bertsolarriak. Zaletasun honek beronek bertsolaritza arreta gune bihurtzea ekarri du eta gertaera honi buruzko gogoetak, azterketak, eragitea... Herri-literaturaren beste genero batzuek ere bultzatu dituzte zorroztasunez burututako ikerketa sakonak. Hitz batean, herri-literaturak aztergai izaten jarraitzen du.

Beraz, literatura landuarekiko interesaren ondoan herri-literaturari buruzko interesak bizi-bizirik dirau. Ohiko apaltasunarekin, Juan Marik pentsatuko du garai zailetan lekukoari eutsi izanak la-

gunduko zuela; alegia, hain gazterik herri-literaturari buruzko hitzaldiak prestatu izanak, azterlanak egin eta argitaratu izanak, unibertsitateko geletara eramateko ordua heldu zenean erronka horri erantzun izanak... indarren bat emango ziola. Edo *Ahozko Euskal Literatura* liburuari ezarri zion xedea, –“Orrialdeok herri-literaturaren mesedetan eta irakaskuntzaren zerbitzurako gerta daitezela” (10. or.)– bete zuela. Testu literarioaren jomuga irautea da, nahiz irakurle arruntaren, nahiz kritikoaren irakurketa-ekintzan bizitza hartuaz. Herri-literaturaren iraupenera ekarri kualitatiboa egin du Juan Mari Lekuonak zolitasunez aztertuz, ezagutzera emanaz eta bizirik zirauten generoen sustapena babestuz.

Ana M^a Toledo Lezeta
Deustuko Unibertsitatea
2007ko apirilaren 29an



*Juan Mari Lekuonak literaturaz
idatziriko saiakeren antologia,
Elixabete Perez, Ana Toledo eta
Esther Zulaikak paratua.*



VII

"POETA DA GAUR MINTZO ZAIZUENA"

Jon Kortazar*

Juan Mari Lekuona poeta nagusiaren poetika aurkeztu nahi nuke gaur. 1983ko uztailaren 14an Derioko Udako Ikastaroen barnean omenaldi nagusia eskaini zioten Juan Mari Lekuonari. Hartako autopoetika bat eskatu nion, bere poesia lanaren ispilu atzean zegoena azaltzeko ahalegin bat, edo nahi bada, bere jario poetikoaren barnean zegoenaren berri eman zezala bide intuitiboa erabili ordez, bide kognitiboa erabiliz, sentimenduaren ordez, arrazoaia (bat ere atsegin ez dudana banaketa, bide batez esanda), edo gurago dudana, hizkuntza metaforikoa erabili ordez, hizkuntza deskriptiboa erabiliz. "Ene mundu estetikoaz" deituriko hitzaldian Poeta da mintzo dena, baina argitasunaren bidez saiatzen da poeta bere barne gunera heltzen eta bere poesiaren nondik norakoak azaltzen.

Kopia daktilografikoaren azken aldean ikusten denez, 1984. urteko urtarrilean eman zion errepassoa Derion esandakoari eta zuzendu eta txukundu, osatu eta berritu egin zuen Bizkaiko herrian emandako hitzaldia. Azken orrialdean irakurtzen denez, ez zuen kopia hau argitaratzeko asmorik:

Esan beharr[i]k ez daukat, ez direla inoren esku eroriko lerro hauek. Ez daukat ezer gordetzerik, baina ez dago gaizki neronek neure burua[z] [ezabatua] [esandakoetan] nire izena ezkatutzea. Beraz, Yon, zure zuhurtziaren esku uzten ditut [h]emengo ziriborroak (sic).

(*) Lan hau EHU-UPVk finantzaturiko G14 06/65 proiektuaren parte da.

Uste dut garbi utzi zuela zer nahi zuen: "ez direla inoren esku eroriko lerro hauek". Eta "Beraz, Yon, zure zuhurtziaren esku uzten ditut hemengo zirriborroak", hain zuzen ere besteren esku jausi ez daitezela esaten du Lekuonak azken ohar horretan, eta ez, pentsa litekeenez, zuhurtziak aginduko zuela argitaratu edo ez argitaratu kinkaren artean erabakitzen.

Baina dokumentua ezinbestekoa da Juan Mari Lekuonaren poesiaren bideak ezagutzeko. Eta familiarekin hitz egin ostean, eta haien adostasunekin beti ere, albazea literarioaren eginbeharrak betetzera nator. Gainera, Juan Mari Lekuonaren baimenarekin beste esku batzuetan utzi nuen lana, hain zuzen ere Sebastián García Trujillo eta Amaia Iturbiderekin *Leibo oibalen mugetan*, Juan Mari Lekuonaren poesiara egin genuen hurbilketa, idazteko garaian. Liburu horretan Sebastián García Trujillok erruz erabili zuen testua lehen kapitulua idazteko momentuan, dena dela, oso testu labur batzuk baino ez ditu aipatzen, badirudi beraz, tentuz ibiltzeko agindua oraindik zabalik genuela gure gainean.

"Ene mundu estetikoaz" deituriko hitzaldia ezinbesteko dokumentua da Juan Mari Lekuonaren poesiaren ikuskera ulertzeko, hor dugu poeta bere barne munduaz hitz egiten. Nahiz eta batzuetan



Juan Mari Lekuona bizlari Euskaltzaindiko egoitzako areto nagusian.

irakasle moduan ari den, bere ibilbide poetikoari buruzko zertzelada oso interesgarriak ematen ditu, noizbehinka arlo biografiko zein estetiko oso ezezagunak agerian jarritz.

Aitorpen propio eta pertsonala orriok, eskaintzen dute, zertzeladaz eta txokoz betea.

Bestalde, ez da testuinguru faltaz egindako lana, ingurugiro jakinean mamitutakoa, baino. Garai hartan Esteban Urkiaga *Lauaxetari* (1905-1937) buruzko tesia burutzen ari nintzelarik, bere poetika irakurri nuen *Euzkadi* egunkariko orrialdeetan Nikolas Ormaetxea, Orixeri, bidaliriko "Erantzuna" lan zabalean. Autopoetikak geroztik oso esanguratsuak egin zaizkit poeten lana ulertzeko. Agian, Lauaxetaren irakurkeraren zirrararen pean eskatu nion Juan Mari Lekuonari berea idaztea, konfiantza zabala genuen garaian. Interes berezia nuen. Gure garaiko poeta nagusi batek gaiari nola erantzuten zion jakiteko.

Giroa bermatzen joan zela uste dut, baina bere aldetik, eta baita ere nire aldetik. Juan Mari Lekuonak 1985. urtean Kultura Ministerioak eta Salamancako Unibertsitateak eratzten dituzten Verineseko Topaketetan hartu zuen parte, Patri Urkizu, Bernardo Atxaga eta nirekin batera. Bere lana "Temas y estructuras" deitu zen eta uste dut argitaratu egin zela ("El estado de las poesías", monografikoa, *Cuadernos del Norte* aldizkarian, Oviedo, 1986).

Nire aldetik 1989. eta 1990. urteko Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroetan antolaturiko ikastaroetan (1980. hamarkadako poesia eta 1980. hamarkadako kontagintza), saiatu nintzen ahalik eta autopoetika gehien eskatzen idazleei eta entzuleei eskaintzen. Gero beste erakunde batzuk ere egin dute lan hori, idazleen autopoetikak bilduz eta argitaratuz... azken batean egileen lana ulertzeko ezinbestekoa baita eurek nahi luketena ezagutzea, eta beren koordenada estetikoak ongi mamitzea. Eta ez gehienetan esaten duten guztia bere hartan jarraitzeko, ikuspegi kritiko batetik begiratzeko baino.

1.-Zer da "Ene mundu estetikoaz"?

Batez ere aitorpen eta autopoetika baten agerpena. Sarrera bat eta lau atal nagusi ditu testuak. Bere garaiko poetikaren lau garai desberdinak hartzen ditu azterketak. Urteagatik eta ulertuko denez, ez da *Mimodramak eta ikonoak* kontuan hartzen. Oso era zehatzean emana dago testua, puntuz puntu, eta puntu bakoitzaren barnean atalak eginez. Juan Mari Lekuonaren poetikaren lau aro nagusiak hartzen dira kontuan eta bakoitzean azterketa zehatza egiten da, zer adierazi nahi izan duen garbi agertuz.

Lau aro nagusiok hauek dira:

"a.- "Eusko Olerkiak" eraginpean

b.- Kristau existentzialismoan

c.- [M]ateriaren eta espirituaren arteko tenka

d.- Gorputz azpilduren ilunak".

Lehendabiziko hiru aroek *Muga beroak* liburuaren barnean diren hiru estetika desberdinak hartzen dituzte kontuan: Poema solteak, Mindura gaur, Hondarrean idatzia. Hirurak aipaturiko liburuan bildurik agertzen dira. Laugarren atalak *Ilargiaren eskolan* liburua hartzen du aztergai.

"Sarrera" saila lau ataletan banandua dago. Lehenean egileak helburu nagusia adierazten du: ez du irakasle gisa hitz egin nahi. Poetak adieraziko du bidea. Bigarrenak saioaren abantailak aztertzen ditu. Badaki poetak erronka berria duela esku artean, baina zer etorriko den ere oso ongi adierazten du:

Baina, gauzak gogoratzen hasiz gero, eta noleraibait [fink]atuz gero, neurekoti hitzegingo dudanez, ez da zaila zerbait arretagarri esatea. Informazioa bederen hurbilekoa gerta daiteke, eta zenbait xehetasunek laguntza ona eman dezakete, ilundurak argituz, aipatu gabe dau[d]enak aipatuz, ikuspegi jatorrak markatuz.

Ispiluaren aurrean jartzen du bere burua egileak eta orduan bere irudi berria eta neurri batean ezezaguna agertzeko asmoz egiten du lana.

Hirugarrena irakurleei egiten zaien solasaldia da: ez da soilik belaunaldia kontuan hartu behar, egile bakoitzaren irakurketa ze-

hatza egin beharra dago, bakoitzari berea emanaz. Laugarren atalak autopoeetikaren lau atal nagusiak marrazten ditu, lau aro desberdinak adieraziz eta markatuz.

Puntu honetatik aurrera, "Ene mundu estetikoaz" aitorpena baino gehiago da. Poetaren nahien eta gogoen berri ematen duen narrazioa, bere nondik norakoak azaltzen dituena, bere gogoak, poemaren sorrerak, autobiografia eta poesia biltzeko saio argia, poemaren gainean egiten den hausnarketa zintzoa, lan eskergabea, Juan Mari Lekuonaren autoerretratu garbia.

2.-Egitura

Atalez atal joanez gero, irakurleak ikusiko du poetak aztertu nahi duen aro bakoitza egitura finko baten amaraunean sortua dela. Atal bakoitzak hiru azpi atal ditu:

Lehenak poema bildumaren sorkuntza aroa aztertzen du. Autobiografiatik hurbilen dagoen atala da. Nola sortu zen lana, nola asmatu zen poema hau, nola etorri zitzaion egitura hau finkatzea edo poema honi ekitea. Noiz eta nola eta zergatik idatzi zituen poemok aztertzen da atal honetan. "*Eusko Olerkiak* eraginpean" deituriko atalean zenbait poema aipatzen dira eta haien sorreraren arazoia azpimarratu, azken batean poema solteen saila baita hau.

Bigarren atalean sakonago jokutzen du poetak, eta poema edo aro bakoitzaren zertzelada zehatzak ematen ditu: zer nolakoak diren tasunak, zer nolako estetikak agintzen duen poema molde bat aukeratzeko erabakia. Edukia, moldapena, forma aztertzen du, zehatz aztertu ere, zenbait berri jakingarri eskainiaz irakurleari.

Hirugarren atalean poema ezagun eta aipagarria aukeratu eta haren azterketa zehatza aurkezten du, aurretik esandakoaren adibide gisa.

Luzera aldetik ere antzekoak dira atalok. Lehen hiru poema bildumei eskainitakoek lau orrialde betetzen dute, laugarrenak aldiz (nabarmena da egilea nekatzen hasia dela) hiru besterik ez, eta gainera adibideetan luzatu egiten delako poeta.

3.—Poemaren sorrera

Hurbilketa egin nahian Juan Mari Lekuona poemaren sorreraren unea hartu nahi du lehenik. Zerk bultzatu zuen poema hura idaztera, edo zerk izan zuen eragina erabakia hartzeko orduan? Galdera garrantzitsuak dira, eta hainbat zertzelada autobiografiko daude horren barnean. Hasiera batean lehiaketetan (eta batez ere Falangek eratutako poema lehiaketetan hartzen du parte gure poetak), irabazle gertatu zen zenbait alditan: "Eta poeta bokazioan asko markatu ninduten horrelako aipamen ohorezkoek". Erromako egotaldia ere oso garrantzitsua da poetaren ibilbidean, han beste ikuspegi bat aurkitzen du eta hitz egiteko eta idazteko beste modu berezi bat, bere lanari oso lotua. Kristau existentzialismoaren aroa parrokian lanean hasten denean gertatzen da, eta hor laster bizi esperientzia eta poesia uztartzen hasten da poeta.

Berri jakingarri bat ematen du hemen. Poesia eta egunerokoa batzen baititu. Juan Mari Lekuonaren testigantzaren arabera eguneroko bi idatzi zituen. Bata seminarioko garaiko egunerokoa da: "Seminarioko garaian egunkaria idazten nuen, espirituzko eta poesiazko gogoetak mamitu asmoz". Eguneroko horiek ez ditut ezagutzen, baina garrantzi handiago du Añorgan zegoelarik idatzi zuenak. "Mi diario en Añorga. Reflexiones poético-religiosas de un sacerdote". Eta honen berri izan dut Juan Mari Lekuonaren adiskideen bidez, batez ere Mañoliren bidez. Gai aldetik ikusten da antzekoak direla helburuak: espirituari eta poesiari buruzko gogoetak agertu. Eguneroko bi direla pentsatu behar dugu, garbi baitago espazio desberdinetan idatziak direla. Bigarren horrek baina, nabarmen agertzen du bere izaera, batetik ezagutzen duguna delako, eta bestetik, *Mindura gaur* poema liburuarekin lotzen duelako zuzenean poetak. Elementu autobiografikoen artean bada beste zertzelada txiki bat autopoetika honetan. Vatikanoko Museora egindako bisitaldi batek bultzatzen du triptikoen egitura bitlatuz poema liburua biribiltzeko.

Hirugarren pausoak, *Hondarrean idatzia* liburuak badu zerikusirik barne alderantz egiten den bidaia batekin. Hain zuzen ere, poesia soziala eta poesia existentzialista alde batera utzi eta irakurketa antropologikoaren bidetik hasten da poeta. "Arketipoak hartzen ditudalarik eta hauek antropologiatik, Bibliatik eta ikuspegi kulturaletatik irakurtzen". Sinboloen bidean sarturik dago poeta, bere ahotsa bilatu nahian eta aitorten hau oso esanguratsua da poetaren garapena ulertzeko, eta bere poesiaren nondik norakoak agertzeko eta ulertzeko. "Kontenplazioaren eta yogaren haritik" hasten da poema bilduma eta bide horretatik poetak hausnarketaren bidea aukeratzekoan sinbologiaren hizkuntza lantzen du. Materia eta espirituaeren arteko kinkan poema aberatsak idatzi zituen Juan Mari Lekuonak.

Ilargiaren eskola liburuaren sorrera Bergman film zuzendari suediarren "Gritos y susurros" filmean oinarriturik dago, askotan azpimarratu denez. Baina azken bultzada Txillidaren "Esku" marrazki serietik dator.

4.–Garapena

Poesiaren sorkuntza ez ezik, egileak bere poesiaren garapena argi uzten du autopoesia honetan. Lau pauso oso adierazgarriak ematen ditu bere aitorten honetan.

Nikolas Ormaetxea, Orixe, izan zen lehen erreferentzia mundua, nahiz eta laster, Xabier Lizardi eta Esteban Urkiagarenak agertu. Eta era berean, poema solteak idaztetik poema liburu osatuak idaztera igaro zen egilea. Ondorengo erreferentzia Gabriel Aresti izango da, *Harri eta Herri* liburuaren bidetik sartzen baita gure poeta kristau existentzialismoaren barnean, eta estrofismoa hautsi eta espresio bide askatuagoa bilatzeko. Hurrengo pausoan, bere ahots propioaren bideak zabaltzen direla diosku egileak, nahiz eta intertestualitatea ere nahiko zabaltzen den. Iratzederren izena aipatzen



Juan Mari Lekuona eta Edorta Kortadi.

du euskal poesiaren barnean. Laugarren aroan Bitoriano Gandiagaren itzalak lagunduko du poeta bere ibilbidean.

Juan Mari Lekuonaren poesiak badu joera kristaua eta idealista ukaezina. Horregatik oso esanguratsuak dira kanpoko egileen aipamenak. Adibidez, lehen aroko poesia irakurketak *Estría* aldizkari poetikoaren bidez aipatzen dira: Erroman ikasitakoak dira gaur 'Nuevo mester de clerecía' deritzan antologian aipatzen diren zenbait izen. Haiekin genbiltzan Erroman: Cabodevilla, Descalzo... Ondorengoak dira beste aipamen batzuk. Unamunoren *El Cristo de Velázquez* indartsua. Theillard de Chardin arkeologo kristaua, "Antropologia poetikoaren" agerpena eta ardatz gisa erabiltzea bere lanetan, Bachelard-en aipamena, Bernanos eta Leon Bloy idazleen agerpena... Pauso inportanteak Juan Mari Lekuonaren poetika gorpuzteko ahaleginean.

5.–Poesia eta arteak

Juan Mari Lekuonaren poesia ezin da ulertu beste arteekin elkarriketan ikusi gabe. Behin eta berriro joko du beste espresio artistikoen laguntza eskatzera, haiengandik bideak eta espresio moldeak bilatuz, eta noiz edo noiz poemaren sorrera ere handik datorkio poetari, triptikoen ideia *Mindura gaur* liburuko azken poema osatzeko edo Txillidaren "esku" serie kontuan hartuz *Ilargiaren eskolan* liburuko hizkuntzaren barne tonua bilatzen hasten denean.

Juan Mari Lekuonaren poesiak ez du hasieran *mass medien* eragina alde batera uzten, nahiz eta denborarekin oso poesia elitista bihurtu zen berea. Harritzen gaitu, dena dela, nola bilatzen duen arteen arteko elkarrizketa hori. Eta hasi, kantuekin hasten da. Poesia *cantabilea* egiteko lotsarik ez zuen poetak, eta liburuetan jaso ez bazituen ere, hainbat eliz kanta eder ondu zituen elizetan, argitalpen xumez (ziur nago berak bertso paperen tankera maite zuela bere lantxoak plazara emateko) zabaltzeko asmoz. Horrela idazten du poetak: "Kantugintzaren hildotik (sic) doa. Orduan asko abesten zen [eskuarki] gizarte-bilgunetan. Eta ezin utzizkoa zen horrelako egokialditarako zerbait berria idaztea". "Hau ere kantugintzarako egina. Irratiak maiz ematen zuen erdaraz, eta nik euskaraz [jarri] nuen".

Baina garai horretan bertan hasten du pinturarekin egingo duen lana, A. Valverderen lana aipatzen duelarik lehendabizi. Baina poetak badaki eta horretan oso serioa da, arteekin duen elkarrizketa bere lanaren oinarria dela: "Margolariek diotena kontuan hartzea, margolariekin kidetasun estetiko bat lantzea eta bilatzea: [konstante bat da hau ene poemagintzan]". Atal honetan, Margoarekin duen elkarrizketan Txillidaren "Esku" aipamena ekarri behar da harira *Ilargiaren eskolan* liburuko ardatz gisa. Edo Vatikanoko Museoa ikusitako triptikoak.

Baina horrezaz gain, zinema ere aipatu behar da. Eta Juan Mari Lekuonak harritu egiten du arteak ez dituelako banatzen, jaso eta behekoa, abstraktoa eta konkretoa, eliteentzat egina edo jende

arruntarentzat, dena galbahetzen du bere ikuskizunera, bere begien erreinura eta elkarrizketan zertzelada berriak aurkitzen ditu.

6.–Adibidea

Atal bakoitzaren bukaerako, aro bakoitza adierazteko poema aukeratua komentatzen du egileak, aroaren ezaugarriak eta baldintzak adierazi asmoz. "Aize-errota", "Meretriz illa", "Ura nigan" eta "Bizileku 2" testuak astiro-astiro aztertzen ditu bere aro bakoitzeko bidearen erakusgarri.

Poetak hitz egiten zuela adierazi zuen hitzaldiaren hasieran Juan Mari Lekuonak, baina han eta hemen irakasleak ere hitz egingo zuela adieraziz. Puntu honetan gertatzen da hori: irakaslearen begi zorrotza mintzo da adibideetan.

Egitura finkoa erabiltzen du beti: Hitzezko egitura, metrika, eraikuntza eta funtzionaltasuna, adibideak jarraitzen dituelarik bere azalpenean, bere testu azterketan.

Ez dut esango ariketa hau interesgarria ez denik, batez ere funtzionaltasuna agertzen duenean, lanaren eta poetikaren zentzu sakona azaltzen delarik. Zehaztasun ariketa bat da, ziur, baina bere jarreraren bideen erakustaldia den neurrian da interesgarria atal hau. Juan Mari Lekuonaren hausnarketaren adibide gisa balio handikoak dira atalok, bere pentsatzeko moduaren eredu.

7.–Transkripzioa

Juan Mari Lekuonak idatzitakoa berriro kopiatu dut hemen bere idazmakinak testua utzi zuen bezala kopiatuz. Ahalik eta transkripzio fidelena egiteko gogoia agertu nahi izan dut. Testua nahiko txukuna da eta ez du arazo handirik ematen irakurketarako. Aldian-aldean eskuzko zuzenketa bat edo beste ikus daiteke testuaren barnean. Saiatu gara eskuz egindako aldaketa guzti horiek "[]" kaketan artean kokatzen.

Garai hartan (1983-4) oso hurbil izan ginen biok, artean berak bezala Deustuko Unibertsitatean lan egiten nuelako, harik eta Gasteizeko Filologia Fakultatera joan nintzen arte (1986). Maiz ikusten genuen elkar Donostian, eskola kontuengatik eta Euskaltzaindiko batzarrengatik. Adiskideak ginen eta badakit, Olivetti elektrikoa (funtzio elektronikoa xume batzuk zituen) erabiltzen zuela bere lanak idazmakinan jotzeko. Horregatik, makinak azkar jotzen zuelako sarri agertzen dira huts egite mekanografikoak.

Testu honetako aldaketak lau mailatakoak dira:

a) Zuzenketa mekanografikoak. Sarri gertatzen dena. Egileak makina jotzen zuelarik askotan agertzen ditu arazo berdinak. Adibidez [B] nagusia puntuaren ondoren agertzerakoan. Badirudi "b" txikia agertzen zela, eta ondoren eskuz zuzentzen zuen aldaketa hori. Normalean letra bakarrekoa bada zuzenketa hutsegite mekanografiko bati dagokio: adibidez: "d[a]rabilkigun", "[A]perrikako", "aurk[e]zteko", eta abar.

b) Zuzenketa morfosintaktikoak, konkordantzia kasuren bat edo eragatibo bat eranstean du eskuz idazleak. Hauek ere oso laburrak dira eta testuan ez ditut aurrekoetatik bereizi: "Erroman jaso[k] dira", konkordantzia zuzendu nahiez agertzen da hor azken [k] hori. Baina ez dut bereizi zuzenketa eta gehitu dena.

c) Hirugarren aldaketak hitz multzoak gehitzean agertzen da. Batez ere paragrafoen bukaeretan zerbait eranstean du poetak. Usu egiten du hori, batez ere esaldi bat bukatzera doanean eta esaldia-zen azken ideia findu behar duenean: "[tesis humanisten] konprobante poetikoak [ezabatua] [erakarritz]". "[koinomia" eta "agape" hitzak ere tartean dabilta jarrera bat adieraziz poetaren baitan".

d) Zailagoak dira ediziora ekartzen bazterrean poetak jarritako oharra, berarentzako egitura argitzeko egindako oharra dira gehienak, hitz bakarrekoak, bazterrean jarriak eta ideia gune direla ematen du, egileak ideiak indartzeko edo azpimarratzeko eginak. Bi dira oso argiak: "[SUB-SINBOLOZ]" egiten duena edo dei bat jartzen duenean ohar gisa: "[IKUS 15 or.]". Alde honetatik orrial-

derik zailena transkribatzeko originaleko 7. da edo gure edizioan II: KRISTAU EXISTENTZIALISMOAN atalaren 2 puntuko 8. paragrafotik aurrera jarritakoa: "ANGAIATUA, EXISTENTZIALISMOA, PRESENTZIA MIN DUTENEKIN, ESPERANTZA ETA ESANAHI BAT DU IZAN GEURE BARRUKO MINDURAK" eta abar. Bazterreko oharrok direla konturatzeko ez du irakurleak zailtasun handirik izango letra larriz idazten baititu egileak.

Argitalpen sinplea egiten saiatu gara eta irakurleari lana errazten, horregatik jo dugu transkripzio sistema soilera. Bakarrik onartu ditugu bada, ortografia mota bi: makinaz agertzen dena, eta egileak eskuz zuzendu duena, aipaturiko kaketxa karratuen artean agertzen dena, eta egilearen lan prozedura erakusten duena.

VIII
ENE MUNDU ESTETIKOAZ
(Derio, 1983-VII-14)

Juan Mari Lekuona

SARRERA

1.–Gaurkoan ez naiz irakasle; gaur ez nauzue autore bat aztertzen duen irakasle ohizkoa. Egiteko hau ere bete izan dut; ez, ordea, gaur. Egungo lana dut, poeta [naizenez gero] ene mundu estetikoaz mintzatzea. Beraz, irakasle atera daiteke, baina zeharka bezala irtengo da hemen-honetan. Poeta da gaur mintzo zizuen.

2.–Nik neure poesiaz ez dut inoiz ere hitzegin. Ez daukat lan-dua gaia. Baina, gauzak gogoratzen hasiz gero, eta nolerabait [fink]atuz gero, neurekotik hitzegingo dudanez, ez da zaila zerbait arretagarri esatea. Informazioa bederen hurbilekoa gerta daiteke; eta zenbait xehetasunek laguntza ona eman dezakete, ilundurak argituz, aipatu gabe dau[d]enak aipatuz, ikuspegi jatorrak markatuz.

3.–Belaunaldi batetako poesiari buruzko ikuspegia era askotara egiten da, eta geurea[ri buruzkoa] ere bai. Baina, gure kasuan oraindik topiko gehiegi ote d[a]rabilkigun nago. Nire bizikizuna azaltzean, helburu hau dut begiaurrean: eskuliburuetako zenbait topikorekin konformagaitzak izan gaitezela, eta autorearen irakurkera estetikoak ERE kontuan har dezagula, [e]gilearen klabe estetikoak kontuan edukiz, [A]lperrikako puso (sic) nekosor[i]k [ez dezagula eman] korapiloaren begitik urruti ibiliz; eta poem[e]n ulerkuntza estetikoak koerentea izan [dadila] kreaio-ahaleginen historiarekin.

4.-Nire lana aurk[e]zteko, bide hau hartu dut: lau aro berezi ditut nere ibilbide poetikoan:

- a.- "Eusko Olerkiak" eraginpean
- b.- Kristau existentzialismoan
- c.- [M]ateriaren eta espirituaren arteko tenka
- d.- Gorputz azpilduren ilunak.

[Eta aro bakoitzaren ezaugarriak aipatzen saiatzen naiz, une estetiko bakoitzaren eredu bat aurkeztuz]

I.- "EUSKO OLERKIAK" ERAGINPEAN

1.-"Muga beroak" deritzan liburuan daude orduko zenbait olerki. [E]z denak, noski, aukera bat dugu.

- "Izadi-abestia", 1950. sariketa batetarako egin nuen berau; ["Falange Española"] edo horrelako erakunderen batek [antolatua zen]. Ordurako zerbait argitaratu nuen "Egan"-en: poesia idilikoak, osabaren haritik. Baina olerki honetan, "Izadi-abestia", nire bidea hartu nuen. Funtsean zera da: frantziskanismoaren ikuspegia, izadia, Jainkoaren zantzu bezala oldoztuz. Lehiaketa lehenengo saria jaso zuen. Teologia ikasketan [bigarren] urtea egiten nuen orduan.

- "Ama", deritzana, 1951. Aipatu erakundeak berriro lehiaketa prestatu zuen, eta, gai obligatuan, "Ama" zeritzan gaian, lehenengo saria eman zidaten. Eta poeta-bokazioan asko markatu ninduten horrelako aipa[m]en ohorezkoak. Gaiaren ikuspegiak: ohizko erromantizismoak utzi, batez ere topikoak, eta irakurkera fisiologiko eta sustraizkoagoa egiten saiatu nintzen.

- "Begi beltzaran", 1954. Erro[m]an egina, kantugintzaren hildotik doa. Orduan asko abesten zen [eskuarki] gizarte-bilguretan. Eta ezin-utzizkoa zen horr[e]lako egokialdiatarako zerbait berria idaztea, eta gero bilguretan kantatzea. Gaia, niri gertatua da.



*Orbelaunen, Bitoriano Gandiagaren jaiotetxean, Mendatan. Euskaltzaindiaren omenaldian
2001-07-13an.*

- "Goiz-argi", 1955. Erroman egina. Aldi hartan, ez dakit zergatik, hemen Euskal Herrian ez nuen poesiarik egiten, eta gero, Erromatutakoan, olerkigintzari ekiten nion. Eta horrela egina dugu "Goiz-argi". Gaia, Plotinoaren haritik; eta euskara, berriz, Orixerenaren kalko bat duzu.

- "Ubel", 1955. Hau ere Erroman egina. A. Valverde-ren margolan bat du gogoan, eta honen iruzkin poetikoa baizik ez duzu. Apunte bat, baina, inpresionismo baten barruan, geroko mundu estetikoaren hasiera, librea, kulturalista [eskaintzen du].

- "Aize-errotak", 1955, Fatiman, tesis do[ktora][e]rako [manusk]ript[oa]k arakutzen ari nintz[e]larik, igande batez [edukiriko bizikizuna.]

"Aize-errotak" ba du "Ubel"-ekin antzarik. Han margo-lauki batekin sentitutakoa, hemen lauki bizi[a]rekin sentitzen da: Fatima inguruko mu[i]noetan dauden [h]aizerrotak ikusita.

- "Zergatik, aitona?", hau ere kantugintzarako egina. Irratiak maiz ematen zuen erdaraz, eta nik euskaraz [jarri] nuen, Añorgara etorri berria nintzen hartan.

2.–Nire orduko poesiak pi[e]za solteak dira; ez dago poema lu-
zerik.

- Hizkuntzaren aldetik, pentsatzen dut Orixerekin alfabetatu
nintzela, batez ere misalarekin. Eta Orixeren eragina gauza txit na-
baria dudala beti, idazkeran; eta batez ere, erlijio mailako pentsaki-
zunen bat idazten dudanean. [B]aina eragin estetikoa Lizardi eta
Lauaxetarena dudala uste dut.

- Irudietan, sentipenetan, oso loturik agertzen naiz bi poeta
haueri. Behar bada, hauek emana dut izadiaren irakurkera esteti-
koan margolariek diotena kontuan hartzea, margolariekin kideta-
sun estetiko bat lantzea eta bilatzea: [konstante bat da hau ene po-
emagintzan.]

- Edukinaren aldetik, berriz, seminari[o]ko eta Erromako klerikal
giroko ñabardurak dira jasotzen ditudanak batez ere. Hori bai, [ita-
liar] jendeen kultur giroa ere barne: [p]oemagintzaren erromatasu-
na, ikasle poeta erdaldunek, gure garaikoek, "Estria" izeneko poesi
aldizkaria ukaiteraino iritsi ziren. Erroman ikasitakoak dira gaur
"Nuevo mester de clerecía" deritzan antologian aipatzen diren zen-
bait izen. [Haiekin genbiltzan Erroman: Cabodevilla, Descalzo..]

- Garai honetan, batez ere seminarioko garaian, egunkaria
id[a]zten nuen, espirituzko eta poesiako gogoetak mamitu asmoz.
Eta idazki hauek, erdaraz idatziak nituen arren, zerikusi haundia
dute nire orduko poemagintzarekin. Altxor poetiko pertsonala edu-
kitzera behartu ninduten horrelako saiakera behin-behingoek.

- Garai honetako olerkien artean jakingarrienak, behar bada,
"Ubel" eta "Aize-er[r]ota" lirateke; eta azterketa bat egiteko biga-
rren hau aukera daiteke. Kantatzekoak ez diren beste olerki[a]k
kontzeptualagoak edo izan daitezke; eta beste autor[e]en eragina
ere nabarmenagoa ote duten nago.

3.–"Aize-errota"

- "Euzko-gogoa"-n argitaratu zen lehendabizikoz, 1956an.

- Nire orduko poemagintzan ez da hau garai hartan eskuarki egiten nuen bidetikoa; ez zen nire garai hartako estiloa, gerora etorriko ziren joeren aurre-susmoa baizik.

- Hemen ikusten da orduko zenbait joerekin haustura modukoa, neurri apal batetan bederen; eta hemen ageri da nire g[e]roragoko abots pertsonalagoa.

- Hitzezko egitura: herri hizkeratik asko badu ere, orduko poetek zerabilten euskara darabilgu, "Euzko-gogoa"-n erabiltzen zen euskara, oraindik gerraurreko maisuen haritik.

- hitzak tradizioaz erabiltzen ditugunak dira, oso ulerterrazak; baina saiakera kulturaletik ere dutenak dira.

- orduko zenbait lizentzia ere ikus daitezke hitzen erabilkeran, kontrakzioak, atzizkiak kentzeko joerak, mugagabeen erabilkera eta abar.

- Metrika: Librea silabez, eta errima ezartzeko lekuz.

- textuaren isuria atsotitzen joeretik, mintzatuzko hizkuntza-
ren kulunkaz.

- perpausen ber[e]zko musikalitatea.

- estrofi[s]motik ihesi; eta joera hau haustura bat zen Lizar-
diren eta Orixeren joeretatik.

- Erain[k]untza inpresionista: Sarrera: (1-8)

- Aizea eta errota (9-37)

- Goizaldeko inpresioa (38-47)

- Bigarren pa[r]tea: dantz[a]-soka (48-56)

- Ta[r]t[e]an errrot[a] bat hautsia (57-65)

- Haize[ar]en eta errotaren arteko elkarriket[a] (66-75)

- Azk[ena]: Inpresio bat et[a margo]l[ari] iku[spegia]. E]ta
[e]rr[emate] lirikoa.

[4.-F]untzionaltasuna

- Egiteko estetikoa soil-soilik, orduko poetek bezala, batez ere Lauaxetaren hildotik.

- Kreazio huts, ederkeraren zerbitzuan, pinturarekin kidetasunean emaniko gaiak.

- Ni re helburua etzen euskal poesia "egin beharra", [e]tzen ere apologia, etzen ezer demonstratu (sic) beharra.

- Agian ikuspegi pertsonalista dute poema hauek, nire nortasun poetikoa azaldu beharra, euskal literatuaren olerkia erreg[ina] zen denboraldi hartan.

II. [KRISTA]U [EX]I[STENTZIALISMO]AN

1.-Hamar urte ziren ezer funtsezkorik idazten ez nuela. A[ñ]orgako parrokian nengoen[,] eta jendarteko bizitzak beste zereginetara ninderaman, poesia puruari agur esanez.

- Gero, 1960an, seminariora eraman ninduten, eta ha[n] hasi zi[t]zaidan berriro [k]o[x]ka-[k]o[x]ka idatzi beharraren harra. Zai-zai nengoen idazteko egokiera noiz etorriko. Eta bai etorri ere.

- Seminario Nagusiko hezitzaile-taldekoek dimisioa aurkeztu genuen. Eta Donostiatik irten beharra etorri zitzaidan; eta Erromara jo nuen. Eta bi asmo eraman nituen nerekin: tesisa bukatu, eta olerkigintzari ekin.

- Eta hemen aitortu behar dut Arestiri une honetan zor diodana. "Harri eta Herri" liburuak zabaldu zidan ibilbide poetikoa. Mamia-ren aldetik nire parrokiako bizikizunak gai onak zitezke[ee]n poesiarako; eta formaren aldetik, berriz, hautsi zuen estrofismo markatuegia, eta arraia zen, [2]herri poesiatik [1] gure aurrekoek erabilitako [joera] baino hurbilago zegoen...Hura nik har neza-keen (sic) bide[tzat]. Eta hala ekin nion olerkigintza berriari.

- [B]aina hemen ere, egunkari batek du, nik uste, bere garrantzia. Añorgan nengolarik egunkari bat idatzi nuen, erdaraz, jakina:



*Mendatan Bitoriano Gandiagaren jaiotetxean, Euskaltzaindiaren omenaldian
2001-07-13an. Juan Mariren inguruan Literatura Ikerketa Batzordeko kideetako batzuk.*

"Mi diario en Añorga. Ref[le]xiones poético-religiosas de un sacerdote". Eta orrialde hauetan mamituriko mundulerkuntza eta sentipenak zerikusi betea dute nire "Mindura gaur" poeman.

- Eta azkenik, e[g]okiald[i] hurbila: 1966ko Apirilerako "Premio Gipuzkoa" jarri zuten Donostian. Eta lanean [hasi] nintzen. Eta bai poema osatu ere. Lehenengo aldiz zen poema luze bat mamitzen nuela. Eta poz haundia hartu nuen lantxoia burutu nuenean. Jakina da [,] ez zuela saririk irabazi: X. Letek irabazi zuen. Eta aipamen berezia I. Sar[a]so[la]k, Joxe Azurmendik eta nik jaso genuen...

- "Mindura gaur" Donostiako apaizgaiek ziklostilean argitaratu zute[n]. Gero, [ezabatua] "Muga beroak" liburuan dator, baina ord[e]nu[a] aldaturik, zuzenketa[ezabatua] ortografiko batzuk sartuz, eta gauza txikiren bat erantsiz.

2.-Funtsean poemok aipaturiko egunkariaren trasunto bat izanik ere, beste iturri bat aipa daiteke, batez ere hurbileko idazkera ematerakoan argibide eman zutenak, hala nola: eskolak eta orduko poesia irakurketak.

- "Meretriz illa" lehen[en]goetarikoa dut.

- "Porlandi", berriz, San Remo-ko kantu saioan [Adriano] Celentano-k aurkeztu zuen hiriari buruzko abesti[a] entzun ondoren egin[ezabatua] nuen.

- "Jainkoa il da" eta "Lo artzen detenean" poemek zerikusia dute orduko eskoletako ikasaldiekin.

- "Azken triptikoa": presaka nenbilen; Donostiara olerkiak bial (sic) behar ni[t]uen...Eta hona non, Vaticano-ko museora joan beharra izan nuen norbaiti laguntzera...Eta nik poema bukatu behar! Eta denborarik ez...Eta sarreran, eskubitara dauden triptikoak erakusten nenbilela gogoratu zitzaidan: honekin bukatu behar diat nik ere poema, triptiko batekin, poemaren ideaia [gidoia ezabatua] ardatzak bilduz. Eta hal[a] egin nuen. Eta liburuan agertu nuenean, triptikotan banatu nituen nire poemok.

- Ikus daiteke, gog[o]eta eta mundulerkuntzak nereko gogoe-tak ditudala, batez ere egunkariaren hildotik. [B]adina gaiak eta ane[k]dotak orduko Erroman jasoa[k] dira, eta berdin estetika alderdiak, batez ere poesia laburretan datozen nini-begi miniatuak.

- Niretzat poz handia izan zen, hamar urte ondoren, poema hau egin ahal izana; nire poeta-bokazioarekin aurkitu nintzen. [berriro.]

[ANGAIATUA]

- Poesia an[ezabatua]gaiatua zen. Eta bizitzan sartua. Eta kezka zoziala (sic) jasotzen zuen, orduko joeretara [ma]kurtuz. Eta "Portlandi" eta "Jainkoa il da", beren aldameneko biñ[e]tekin, sentibera-tasuna agertzen zuten orduko marxismo biziarekin.

[EXISTENTZIALISMOA]

- Gero, kristau existentzialismoa: [Seminarioan] nire eskuetara iristen ziren erdarazko literatur autoretan, Bernanos eta Leon Bloy ditut gogoan [ezabatua]

[PRESENTZIA MIN DUTENEKIN] Eta [eduki] nahi dut presentzia amultsua min dutenekin [oh: guzti hau azpimarratua] [,] eta itxaropenezko jarrera [eduki] mundu berriko oinaze zaharraren aurrean. Eta [ESPERENTZIA ETA ESANAHI BAT DU IZAN GURE ARTEKO MINDURAK + PUNTU 5 [oh: ezin irakurri] or)] or.]

[esanahi bat du izan geure arteko mindurak [oh: azpimarratua].
"Meretriz illa", "Ez neri esan" eta "lo artzen detanean", hortik doaz.

- Formaren aldetik, berriz, askatasun bat da. Hausten da ez gutxi estrofismoa, errimen [ezabatua] oiartzun arau[ka]bea gelditzen delarik soil-soilik, eta silaben multzokatzen subjetoa.

3.–"Meretriz illa"

- Orduko joera zabalduen ezaugarri dateke: garai hartan markari bat izan zen Mari[i][y]n Monr[oe]n heriotza lazgarria.

- Mikel Zaratek eskaini zion azterketa bat: "Juan Mari Lekuonaren "Planctus bat", in "Euskal literatura" I tomoa, 61-70 or.

- Kristau existentzialismoaren irteera ongi adieraz dezake, batez ere orduko apaiz baten jarrera pastoral atxekidurazkoa[n].

- Hitzeko e[gl]itura: herri-hizkuntzat[i]k asko du, lokalismotik ere bai. Nahiko pertsonala gerta daiteke hemen dabilen euskara. Herri-hizkuntza osatua dateke, baina hizkuntzaren preokupaziorik gabea.

- Orixe eta Lizardiren trinkotasunak ezkutatu dira, ohartuki ezkutatu ere, honetan Arestiren zordun naizelarik, jarreran berderen, e[r]edu konkretuan bada ere.

- Eta ezjakintasuneko huts[ue]ak b[er]ne (asko baino erogorragoa (sic) izan naiz morfo-sintasiaren arazoak ikasteko), ahozko mintzoari eta senari jarraitzen nion [ezabatua] batik-bat.

- Metrika: Librea hemen ere, esa[n] dudanez.

- Berrero ere atsotitzen bidetik, mintzaira biziaren kulunkan.

- Estrofismoaren hausketa.

- Errimak, bertsolarien ildotik doaz beti, zenbait lizentzia barne, batez ere poemaren azken aldera.

- Eraikuntza: Sarrera (1-4)

- Bilutsik ikusia, gaur gorputz (5-10)

- Arrazonamenduak (11-27)
- Explicazioa: nazka, eta pastilak irents (28-38)
- Meretrizari azken hitzak.

- Funtzionaltasuna: [P]oesia arduratua eta konpro[m]jetitua.

• Kristau nor[a]bidezko erantzun [ezabatua] pastoralala. Oso sartua zen jokabide hau [orduko] [e]lizan: [giza sent]ib[era]-t[as]una [eduki], umanismoa eduki, eta ezinari fedez erantzutea.

• Ez d[a] lirik[a] huts: bizitzari berari ateratzen zaio estetika, etikaren amorez edo. H[e]riotzaren aurrean esp[e]rantz[a] kan-tatzea, jokabide ederr[ezabatua]a eta estetika dela esan behar beti.



*Orbelaunen, Bitoriano Gandiagaren jaiotetxean (Mendata, 2001-07-13).
Ezkerretik hasita, Jon Kortazar, Iñaki Sarriugarte eta emaztea, Juan Mariren ondoan.*

[HONDARREAN IDATZIA]

III.-[MATERIA ETA ESPIRITUA TE]NKAN

1.-Konformakaitza izatetik sortua dut poema hau. Tr[is]tatu egiten nin[du]en exist[e]ntzial[sm]oak, batez ere irtenbiderik ez zuen nihilismoak. Eta hemen gauza s[a]konago bat bilatu nahi da: transfisika baten ispilatze est[e]tikoa, pakea sortuz eta ulerkuntza sakona, existentzia bera baino harantzago [doan] [ezabatua] [ikuspegia, eskainiz.]

- Ez nengoen, ez eta ere, konforme sozial-poesiarekin: dualistegia e[g]jiten zit[z]aidan [a]zken batean. Eta ezin nuen onartu onak eta txarrak, aberatsak eta pobreak, zapaltzaile[ak] eta zapalduak, [ezkerrekoak eta eskubikoak] gu eta besteak prantatzen zizkigun zikiro-saltsa. Eta azpirago jo nahi izan nuen: gizon guz[t]iak berdin garan dim[en]tsio azkenekotara. Eta materia eta espirituarekin jokatatu nuen; baina orenenak diren materia eta espirituarekin, inolako bereizkuntzarik gabe taxaturiko ikusmoldean.

- Hemendik aurrera ez diot inori be[g]iratuko ene poemagintzan: nire kasa nabil. Eta poema luzeak egiten [d]itut, luzaz landuak, inpresiotik baino kreaiziotik gehiago duten eraikuntzetan. Eta gaia hartu nuen, eta eskema bat egin, eta hura [ezabatua] luzaz landu nuen, ene erritmo pertson[a]laren abiadan. Gai arduratiak aukuratu eta arketi[ezabatua]po horien iraku[ezabatua]rkeria intelektuallagoa egin, eta estetika aberatsa[g]oa erabili.

- Hizkuntza landuagoa dut, hizkuntza poetikoa, halebria (sic). Poema hau burutu aurretik, Iratzederren "Salmoak" gipuzkeratzen aritu nintzen, eta euskal itzulpenetan hasi elizbarrutien zerbitzurako. Eta oso ongarrri izan zitzaidan Iratzederren poetikarekin, eta batez ere bere hizkera poetikoarekin topo egin.izana (sic). Uste dut hiztegi poetikoan zerikusi haundia zutela salmoek eta Iratzederren itzulpeneko hizketa-modu[e]k, klitxe hain landuek.

- Ikuspegia t[e]ilardianoa omen; eta neronek ere hala dut uste, ñabardurak b[a]rne. Eta nik kuaderno batetan hauxe dut irakurtzen: "En el curso ulterior de su vida, en la que va encontrando todos los

fenómenos esenciales del Cosmos, su mundo experimental se convi[er]te cada vez más en un reino espiritual" (Lerchs). Eta beste hau: "Sólo el Espíritu si sopla sobre la arcilla puede crear al hombre" (Saint-Exupéry). Eta hau ere bai: "Antropología po[ét]ica, entendida como un intento reflejo del hombre por alcanzar l[a] comprensión de sí mis[mo, a] través de la poesía, sobre todo [a] través de proto-sentimientos telú[r]jicos...Infraestructura antropológica, sobre todo, siendo en el mundo y obrando en él" (Neronek idatzia)... Hortik zenbilen nonba[i]t, nire orduko ikuspegi poetikoa.

-Idazkeraren aldetik, hau esan dezaket: poema arketipoak estimatzen hasten denean, nire subkonszientean Unamunoren "El Cristo de Velázquez"-en eragina edo presentzia ote dagoen nago. Eta era honetara: hark ere "luna, sangre, alba, rosa, cordero, hostia, vino, ánfora" [SUB-SINBOLOZ] eta horre[la]koak erabiltzen dituela, eta hauek bibliatik [sub-sinboloz] irakurtzen dituela. [E]ta zerbait horrela nik ere, salbuespenak barne, arketipoak hartzen ditudala, eta hauek antropologiatik, bibliatik eta beste ikuspegi kulturaletatik irakurtzen. Ez dakit hola den. [B]a daiteke. Oso maite izan zait Unamunoren aipatu poemau (sic). Eta hortik dator, agian, nire teknika: simbolista, eta sinbologiaren mamia beste sinboloekin maitzen duena; eta sinboloen tesia beste explizitazio poetikoz argi[tzen] [ezabatua] duena, memoria kolektibo batetik, estetika eta kulturaren arabera, [tesis humanisten] konprobante poetikoak [ezabatua] [erakarriz.]

2.-Idazlana bizikizun eta esperientzia batetatik hasten da: barrunberaren exp[er]ientzia da, kontenplazioaren eta yogaren haritik. Esperientziaren deskribaketatik du abiadura, eta bihotzaren susmo bizia izatera heltzen da. Hasera da izan[: "Bihotza"]

- Gero "Ludia nigan" dator. Haseran bizi[ar]en sorrera eta ametsa hartzen ditu gai, poemaren zati hau hasteko. Eta poemaren guna, b[e]netako mehatz aurkientza, "Itsasoaren uretan sortua naiz" hortik aurrera egiten da [lurreraren,] suaren, uraren eta eguratsaren arketipoak poetikoki [ezabatua] [explizitatu.]

- Poema, dagoen ordenuan idatzirik dago. [B]aina uraren bukatu nuenean, geldialdi bat egin nuen, gero berriro eguratsarena bukatuz.

- "Azkeneko arkaitzen muga" delako hori, inprentara eraman aurretik egin nuen, nahiz-eta horko ideiak a[s]pa[l]ditik ni[g]an ausnartuak eduki. Munduaren zo[l]an pentsamendu bat baldin bada, nire izaeraren formula da "bizi nahia", Ni = bizi [nahi] formula-zioan... Ikus daitezke[e] teillardismoa, eskatologiaren susmoa eta betiko existentzial[is]mo arduratia[, urduritsua.]

- "Hondarrean idatzia" iz[e]nburua poematik harturik dago. "Ura nigan" zatian lehenengo zenbakia hitz hauekin bukatzen da: "Itsasorearen poema/ kausitu nauzu/ hondarrean idatzia". Hondarra, materia naizelako [i] eta idatzia, esku baten espirituzko eraginak mukuruturik naizelako, nahiz-eta, [ezabatua] [olatuez hondarra berdintzen den antzera] azkar sustsitu (sic) beharra naizen, bizitzaren eraginpean.

3.-Textua:"Ura nigan", l[a]nduena ot[e d]en uste dudalako, edota borobilduena behintza[, horregatik aukeratu dut.]

- Hitzezko egitura: Oraindik nekazari mundukoa da gehienik hiztegi-ekarria, nahiz-eta maila kultu bat duen hiztegia[k], batez ere "salmok" eta bibliako pasarteek duten mailan.

- Izenaz eta izenlagunaz osaturiko sintagma asko eta asko [dago-eta], segidazko trazurik ez da [ezabatua] [ageri] dena mosaiko antzera e[ih]oa, puntuka margoturiko oihala [bezala emanik egina denez.]

- Orixek eta Iratzederrek ba dute beren eragina poemonen hiztegian, baina baita liturgi itzultzaileen haritik eta hartzen du [poemak] hitz jatorrik, nereko sintesia lantzen dudala, eta hemen bezala beste liturgiako lanetan ere [hori bera] agertzen dudala.

- Metrika: Gero eta libreagoa, hala ere aurreko poemaren haritik oraindik.

- [B]ehar bada, bertsoak luzeagoak, edo trinkoagoak egiten dira, kontzeptualismoak bultzatuz edo.

- Poema ez da askatu errimaren eskakizunetik, hurrengo poeman iku[s] daitekeenez. [B]aina errimaren poetika gero eta orekatuagoa doa textuaren edertasun osoarekin, azkeneko hoskidetza o[s]o erraza [de]larik, textuaren higidur[are]kin h[aust]ur[a]rik [gabe]a, eta [a]parteko ederkaririk ez dakarrena, ohartuki behintzat, bigarren mailako zerbait gelditzen delarik hitzen hoskidetzaren estetika.

- Erainkuntza: Multzoka eraikirik dago po[e]ma osoa, uraren langintza eta osagintza markatuz: berak atondua bizilekua, berak sustraiturikan eratua, berak antzaldatua, berak zahar-berritua, garbitua, b[i]zitua; bera ugaritasuna, bera osasuna eta atsedena, ber[a] nire moldea, bera emankortasuna, bera odola, bera giza historiaren zaporea, eta bera barne-bizitzaren ispilu suspergarria...Ura klabe bat dut ene mamia eta ene historia ulertzeko orduan.

- [B]este zatietan bezala, hemen ere lau multzo dira: bakoitzak trata[m]endu nahiko luzea hartzen du, gaiak a[m]ore eman dezan a[r]te.

- mosaiko itxura ha[r]tzen dut[e] multzoek, denak el[ka]rrekin uztarturik gai zabalagoa marrazten digut[e]la.

- Funtzionaltsuna: ikuspegi antropologikoa markatzen da, ha-markada horretan bizi ohi zen antzera. Funtsezko irakurkera bezala, urrunago gelditu dira zozial kezka, klase kezka[,ezabatua] eta existentzialismo metafisikaririk gabea. Eta bibliak, eta erlijioen historiak, eta mistikak, eta sinbologiak dute parte gizakiari buruzko ikusmoldean.

- giza amesgintzarako baldintza objektibo zenbait biltzen dira. eta "no existe floración poética sin una cierta síntesis de imágenes poéticas"([B]achelard)[, mamitu nahian

- "koinomia" eta "agape" hitzak ere tarteka dabilta jarrera bat adieraziz poetaren baitan.]

[IKUS 15 or.]

[ILARGIAREN ESKOLA]

IV.–GORPUTZ AZPIL[D]UR[E]N OI[H]U ILUNAK

1.–Poema honen hasiera zinema batean dago: "Gritos y susurros" d[a] filmaren izena, eta [B]ergman da ber[on]en egilea. Ikusi nuen [zineman] emakumeen gorpuzkerek zernolako eragina zuten, zernolako jokoia egiten zuten, argumentuaren agerpenean, eta pertsonaien karekterizazioan, eta mezuaren expresabidean. Sikologia bat zegoen bizi-lek[ua]n, eskuetan, ilean, gorpuzkeran, aurpegian. Eta apunte batzuk hartu nituen eta horretan gelditu zen, b[e]sterik gabe, no[iz]ba[i]t landuko nuelakoan.

- [D]enbora mordoa joan zen lantzen hasi nintzenerako. Eta [ezabatua:idea] [norabidea] Txillida-tik (sic) jaso nuen. [B]ere artegintzan "esku" izeneko fasea hasi zuenean, al[d]aketa bat nabari[tu] izan [ezabatua] [omen zuen]: teluria utzi eta giza-soinaren aurkientza [ezabatua:uak] [ukan] zuela. [E]ta tr[is]steagoa z[e]la f[a]se telurikoan, eta pozago zegoela "esku" fasea hasi zu[e]netik...(Zerbait horrelakatsu ulertu nion orduan). Eta niretzat ere, bide bat izan zen: elementu pre-sokratikoak utzi eta gorputz[a]ren irakurkera poetikoan hasi nintzen...[B]aina, behar bada, Txillidak izan zuen poztasun berri hura gabe, niretzat aurreko fasea oso pozgarria izan zenez... Dena dela, poema honen idazteari ekin nion.

- [B]este autore bat dut hemen aipatu beharra: nire lagun [B]itoriano Orbelaungoa. Elkarrekin aritu ginen urte bete inguru liturgiarako gorazarreak prestatzen. Eta une ho[rr]etan estimagarria zait lagun honen presentzia. [B]errero ere, liturgia inguru, luma zorrotzu zitzaidan, eta sena poetikoa azkartu ere bai lantegi hartako lagunekin harremanean. Lehen Iratzeder izan zen, orain Gandiaga:

eta laguntza ona da idazten jarraitzeko norberari luma aldatu eta berriitu zaiola nabaritzea[, besteekin elkarlanean.]

- Gaiak hiru emaldi ditu: 1.-filmaren inguru, lau pertsonaiak poetika figuratiboa[g]oz azalduz; 2.- sinboloaren inguru, pertsonaiak ezkutatu eta sinboloaren esanahai [b]este irudi poetikoak sintetizatuz ematen delarik; eta 3.- [g]auzaren inguru, b[o]stetarik lau herri[-]lit[e]raturaren teknika[z] b[a]liaturik e[m]aten direla[, ezabatua]b[ate:] ere estili[z]azior[a] jotzen [delarik..]

- I[da]zkeraren aldetik, niret[z]at hiru idazkera horietatik bigarrena ote den arretagarriena nago,b[e]rriena behintzat ba[i. "2" a]ipatzen den mai[la]n dago aurrerabid[e]rik haundiena, idazkeran bederen. Eta nahiko berria da nire poesigintzan hor agertzen den iruditeria, hiztegi poetikoa, [g]aiaren ikusp[egi] kultistagoa[, modernoagoa.]

- Dena errenko idatzirik dago, nik egiten dudanaren arabera. [B]aina laugarren poema idatzi ondoren geldialdi bat egin nuen, eta ia urte bete pasea dago laugarren poematik bos[tg]arrenera. Eta ikus [daiteke] ausartagoa dela bos[tg]arren saioa. Eta sensibilitate estetiko lehengo lauretan [ezabatua] [() beren bigarren zenbakian()] Nerudaren sensibilitatetik badute ere, bos[tg]arrengoan, [ezabatua: eta] [() bigarren zenbakian Garcia Lorca-tik, honen sensibilitatetik [,] zerbait [ezabatua:z] antzagokoa ote duten nago. Urrutiko talantea behintzat antzakoa dute, noski.

- [E]spiralean gora, hirugarren mailako poema horiek ahozko literaturatik doaz, nahiz-eta "Ile-adats 3" b[es]telakoa d[e]n, eli[ps]i askoz eihorikoa, eta err[ep]ikaz hornitua. Herri-literaturako[e]k teknika zaharra badute ere, beren edukina moderno da, iruditeri[a] surrealistez antzaturik. Atsotitz, trikiti, koplak zahar eta artazuriketara lirateke azken fase horien iturri[, baina edukina surrealista-go hartuz.]

2.-Teluriatik hu[ma]nismora doa, eta paisajetik giza atalak [ga]itzi h[ar]tzera. Eta pintura den aldetik, pertsonaien anatomia eta janzkerak hartzen dira gogoan. Eta pintura[k] dituen konnotazio bereziak, giza eszenak arakutzen direla.

- Irudiak ez dira linealki irakurtzen, ohizko edukina emanez irudiei. Konbinaketak subjektiboak egiten dira, iruditeria ederragotu asmoz, koloreen konbinaketa ausartagoak eskainiz, eta marrazkia estilizatuz, eta estetika abstraktoagora joz.

- Egin zitezkeen konstatazio[etatik] aukera bat egina dago; eta hartutako dato estetikoak banan-banan lantzen dira, hitzezko efektu nagusia lortzen den arte.

- [P]o[em]aren mezua nahiko azpian gelditzen da, noski. Gorputza hain balio gorena den zibilizazio honetan, hitzez explizitatzen da giza soinaren konnotazio-ugaritasuna: baldintzapena, historia, komunikazioa, maitasuna. Eta azken batean, "poetak gorputzaren komunikapen ilunak argitu nahi ditu, gudan daramagun gauari printza saltatiak ahostuz" [(azalean).]

3.–Textua:"Bizileku 2", [I]aburrena delako edo. Zati hau idatzitakoan sentitu nuen zerbait berri[a] ba nuela esatekorik, formaren aldetik bederen. Eta aurkitu nuela uste nuen poema egiteko arrazoa.

- Hitzezko egitura: [H]izkuntza unibertsalagoa edo du, gaurko batuan emana. Asko lantzen da hitza, batez ere gaurko[o] hiztegiek eskaintzen dituzten posibilitateekin jokatzuz [. Baina prismadurarik gabe.]

- [S]intagma ausartagoak erabiltzen hasi izana... "itsas gainaren azti alfonbra", "ilunbatsaren hostro-adarra", "itzal bustiko ohodeiak", "haize beltzaren ezpatak", "izar ederrez eta hodei gorritz sortzen dena", "zurubi zabalaren moralitasuna", "haltzarien betiko diseinua", "koloreen betiko itzal mehea", "negarrezko tintaren gesal berdea", "bizitzaren b[a]rne-oholtzak", "armiarma sarearen marrazdura", "gatzezko estatuaren bularrak", "mairu baratzeko mahaikideak", "[n]ekearen untza", "gezi zorro hutsa", "itogin zitalek desloturiko arkadura", "hilik den itsas[u]ntziaren museoko zura"...Metaforen konbinaketa ez-ohituak nire poetikan.



Orbelaunen (Mendata, 2001-07-13). Juan Mari Lekuona, Miren Bilelabeitia eta Jon Kortazar.

- Erainkuntza: nahiko abstraktoa gertatzen da, ez lekurik, ez denborarik, ez ekintzarik ez duela.

- Progresio bat l[e]goke, lehen[a] eta orain[a] markatuz. Eta ahizpak berriro bere etxean [i] eta zahardadea...

- Aukeratzen diren pintzelkadek ez dute linealtasunik; dena trazo estilizatuz[,] emana dago, ñ[a]bardurak eta loturak baztertzen direla.

- Funtzionaltasuna: [E]bidentzia haundiko zerbait da emakumearen azken faseak marka dezakeen suntsidura. E[t]a duintasunez baina garratz margotzen [d]a errautsen festar[ik]-eza.

- [B]arruko erresuma kontrastean dago alertzeen eta belar finaren erreinuarekin.

- Eta zati hau sarrera bat da izan, geroko ibilbidearen non[d]ik-no[rakoa] ematen digula.

AZKENA:

- Hemengo hit[z]ak batzuk zuzenean Derioko ikastaroan emanak ditut eta beste batzuk orduan esan nuenaren antzera taxutuak.

- Orduan eskatu zizkidan [Y]onek, eta nik agindu nio[n] bidaliko nizkiola. Eta saiatu naiz emandako hitza betetzen.

- Esan beharr[i]k ez daukat, ez direla inoren esku eroriko lerro hauek. Ez daukat ezer gordetzerik, baina ez dago gaizki neronek neure burua[z] [ezabatua] [esandakoetan] nire izena ezkutatzea. Beraz, Yon, zure zuhurtziaren esku uzten ditut [h]emengo ziriborroak (sic).

Ba dakit argitaratzez gero, txukunago eta seriotasun osoagoaz idatziko nukeela. [B]aina ez zen hori lerro hauen egitekoa, zuri agindutakoa betetzea baizik. Eta ask[i] dut[, noski, honenbestez.]

- Mir[e]ni goraintziak eta elkartzeko egokialdia izan dezagula.

Donostia, 1984, Urtarrilak 23

Juan Mari Lekuona.



Joxe Auxtin Arrieta, Antton Kazabon, Juan Kruz Ezeiza "Kaxka", Juan Mari Lekuona eta Juanito Iñarra, Bizardia elkartean, Gurutzen, elkarrizketa egin zen eguneko bileran (1988).

IX

JUAN MARI LEKUONAREKIN SOLASEAN

Joxe Auxtin Arrietak eginiko elkarrizketa¹⁹

(Oiartzun, 1988)

Urte bete joan da oiartzuar handia genuen Manuel Lekuona joan zitzaigunetik, eta bere iloba den Juan Mari Lekuona gure herritarri emanen dio Euskaltzaindiak jarlekua. Poeta, bertso munduaren aztertzaile, literatur kritiko, apaiz, itzultzaile... Hainbat gai eskaintzen digu Juan Mari Lekuonak lasai eta luze mintzatzeko. Horieta-ko batzuk ekarri ditugu orriotara, Joxe Auxtin Arrietak eginiko elkarrizketa honen bidez.

Joxe Auxtin Arrieta. — Juan Mari Lekuona, oiartzuarra, bere bizitzan zehar euskal kulturaren alorrean hamaika lan egindakoa... Aurtengo udan, zure osaba zenaren heriotzaren lehen urteurrenean, egun triste horretan, gertakari pozgarri bat biziko dugu, hala ere, bai zuk bai zure herritarrok, egun horretantxe egingo baituzu Euskaltzaindian sarrera ofiziala, zure jaioterrian bertan. Esango al zeniguke hitz bitan zertaz mintzatzeko zaren sarrera-hitzaldian?

Juan Mari Lekuona.— Badakizu, oralismoan edo herri literaturan ibiltzen naiz, ahozkotasunean gehienbat, batez ere irakaskuntzetan. Eta gaia izango da, «Ahozkotasuna eta literatura». Mugako arazoak

19. *Oiartzun* izeneko urtekarian argitaratua, 1988ko alean, 18. alea, 7.-12. or.



Oiartzunen Udal aretoan 1988-07-30ean. Euskaltzaindiko sarrera bitzaldiaren egunean.

izango dira, pixka bat aztertuz ahozko tradizioaren eta idazkiz eman den herri literaturaren arteko aldeak, eta bi horien artean dauden eraginak.

J.A.A. — Eta ze mendetako euskal literatur edo bertsolaritza produzioa aztertu nahi duzu? Edo orohar helduko diozu gaiari?

J.M.L. — Hemeretzi eta hogeigarren mendeetakoez ihardungo naiz. Hori bai: generoen arazoa baino gehiago, estiloen arazoa izango da. Ahozko estiloaren eta idatzizko estiloaren xehetasunak teorikoki finkatzea. Agian historikoki hor badago semioralismo

bat, hau da, erdi-ahozkotasun bat, behar bada gehiegi azpimarratu ez dena. Eta nire helburua, erdi-ahozkotasun hori azpimarratzea litzateke.

J.A.A. — Esplikatu diguzunagatik, zure sarrera-hitzaldiaren gaia ez da inondikan ere gramatika edo hizkuntzalaritza hutsezko lan bat. Aho espresabidetik idatzizko espresabidera doan tarteko bide hori aztertzea hain beharrezkoa iruditzen al zaizu?

J.M.L. — Baietz esango nizuke nire arloa den ahozkotasunetik begiratuta. Mugako arazoak aztertzea lagungarri ona da, bai gaia sakonago ezagutzeko, aldeak zehatzago markatzeko, eta zeresanik ez, egon litezkeen eztabaidak argitzeko. Eta gaur badago horrelako lanen beharrik.

J.A.A. — Sarrera honen ondoren, Juan Mari, gaizki iruditzen ez bazaizu, zure alor nire ustez preziatuenari, gogokoenari helduko diogu. Zure lan nagusia literatur ondarearen ikerketa eta horren irakaskuntza dira. Baina zure lanik kuttunena ez al da poesigintza?

J.M.L.— Bai, bai, dudarik gabe.

J.A.A. — Batez ere zure burua poetatzat definituko zenuke?

J.M.L.— Bai, hala da. Ni artista naiz, hitzezko artista. Nire lanik ezagutuenetarikoa, eta aitortuenetarikoa ere bai, poesigintza da. Eta gainera oso kuttuna dut eta oso aspaldikoa. Txiki-txikitatik hasi nintzen, oso umetan hasi, poesiarako joerarekin eta hor segitzen dut zahartuta ere.

J.A.A. — Barkatu galdera Juan Mari, sinplekeria dirudi baina se-guru asko oso zaila izango da erantzuten. Zer da zuretzat bertso-laria eta zer da poeta? Zertan datoz bat eta zertan bereizten dira? Pentsatzen dut zure lanaren eta zure gogoeta-urte luzeen gaia hor-txe datzala, ezta?

J.M.L.— Gaur egun uste dut, poesia modernoa edo poesia be-rria hasi zenetik, muga gero eta garbiago ikusten dela. Niretzat mu-ga hau bereizten duena Lizardi litzateke. Lizardi ezkerreko poesia bes-te bide batzuetan sartzen da. Ordura arte zailagoa da zer den

bertsolaria, batez ere bertso-jartzailea, eta zer den poeta bereiztea. Nork jarri muga Arrese-Beitia eta Otañoren artean? Baina Lizardiz geroztik oso garbi ageri da muga. Gero, hirurogeigarren hamarkadan berriro halako atzerakada bat, herrira hurbiltze bat egon zen, poesia sozialarekin batez ere. Mugak berriro ilunagotu egiten dira.

Bereizkuntzak jarriko dizkizut, hitz gutxitan esateko. Niretzat poesia modernoak berez saiakeratik, entsaismotik asko du: ikerkuntza bat egiten du. Bertsolaritzak berriz tradizioaren kulunkan dihardu. Hori da gauzarik funtsezkoena. Poesia modernoa gehiengotan poesia librea da, bertsolaritza ez. Gero, irudiak erabiltzearen aldetik, irudi arrazionalak erabiltzen ditu bertsolariak beti, irudi klasikoak: konparaketak, metaforak eta sentsazio ez-arrazionalak... Poesia modernoak irrazionaltasun bat erabiltzen du, hitzen konbinaketak, klasikoak ez direnak. Horiek bezala beste zenbait ezaugarri jarri daitezke.

J.A.A.— Zure poesi produkzioa ezagutzen ez duten irakurleentzat, esango al zeniguke zenbat liburu eta noiz idatzi dituzun, eta gutxi gora behera pixka bat azalduko al zeniguke zure norabidea?

J.M.L.— Norabide hori niretzat Orixe eta Lizardi eta Lauaxeta olerkariekin hasten da lehendabiziko. Gaztetako poesia hari horretatik egin nuen. Beharbada nortasun gehiegirik gabeko poesiak dira, nahiz eta beste saiakera batzuk ere egin nituen horietatik kanpo, poesia libreak eta. Gero hamar bat urte egon nintzen ezer idatzi gabe, batez ere parrokian egon nintzenean, jendeari emana eta existentzialismo giro batetan. Ez nuen ikusten jendearen bizitzak dituen existentzi arazoak eta arazo sozialak poesia izan zitezkeenik. Ez nituen lotzen bi gauza horiek.

Orduan bigarren fase bat etortzen da: Arestiren eraginez batez ere hasten dut poesia sozial eta existentziala. Jendeak bizi duen kinka hori ere poesia zela ulertu nuen. Lehendabiziko liburua ordukoa dut, «Mindura Gaur», 1966koa.

J.A.A. — Bidenabar esanda, zure ikasle izan ginenontzat hura benetako kanpaikada handia izan zen. Eta, gauza guztiak esan be-

har baitira, gutako askorengan poesiarako zaletasunaren sortzaile.

J.M.L. — Bai, eta hori bigarren aldia da. Oraindikan ikusten dut pixka bat besteren mende dagoela orduko nire poesia. Eta laster murgildu nintzen krisian.

J.A.A. — Krisi hori aipatu baino lehen galdetu nahi nizuke: urradura handia suposatu al zuen zuretzat, zure poesi jarduerarentzat, aipatu diguzun zera horrek, beharbada iturri tradizionaletatik etorri eta zure «Porlandi» poema famatu horretan Euskal Herri kaletartu, industrializatu, proletarizatu honekiko harremanak, tupustada horrek... urradura handia suposatu al zizun espresabide aldetik eta?

J.M.L.— Espresabide aldetik ez da batere ausarta. Añorgan nengoen eta porlan artean. Orduan jendeak hurbiletik ezagutu nituen, baina ez nuen inolako hausturarik izan. Gero Erroman bizi nintze-la, han ikusten nituen egundoko etxe erraldoiak aurrean, eta giza-erlategi haiek ikusita pentsatzen nuen: ez dira baserrian bizi, baina hemen ere jendea bizi da, kultura badu seme-alabentzako, jana badu, janzkiak ere bai, eta gure baserritarrak baino hobeki bizi dira. Pentsatzen nuen, «agian utzi dezagun zenbait gauza eta hemen inportantea da jendea bizi dadila». Horregatik, «Porlandi»ren azpian Adriano Celentanoren kanta bat dago, hiritar berriak kantatzen dituen Celentanorekin ikusi nuen hori.

J.A.A. — Baserritik kalera nolabait. Urte horietako euskal poesi produkzioan esan genezake ez zarela bakarra urradura edo krisia nabaritzen duena.

J.M.L.— Asko ginen, eta aspalditik zetorren sentiberatasun hori, Lauaxetatik hasita. Gero, poesia sozialarekin, poeta guztien joera nagusi bihurtu zen, Arestirekin batez ere. Agian ez dakit asmatu genuen. Ikonoa, irudia ziutatea zen eta ziutateko bizitzak baditu bere ikonografia batzuk, eta ez dakit ikonoari atera genion bere esanahi guztia. Gure poesia boluntarismo handikoa izan zen eta ez dakit asmatu genuen garrantzizko poesia bat egiten.

J.A.A. — Dena dela, zenbait kritikok diotenez kontu horiek pasa omen ziren, olerki urbanoaren edo poesia sozialaren garai haiek



Juan Mari Lekuona 1977an.

pasa omen ziren... Hori moda, politikaren menpeko moda iragankor bat besterik ez omen zen izan eta gero berriro ere intimismora eta surrealismora itzul omen da euskal poesia.

J.M.L. — Ez dut uste horren sinplea izan zenik. Agian antzeko zerbait esan nezakeen neronek ere noizbait, baina gauzak gaur ikusita ez dut uste horrela denik.

Poesia sozialari panfletarismo kutsua bizkarreratu zaio. Baina gaia, gizartearen poesia, denik eta ederrenetakoa da: hiria, lan-

tegia, berdintasuna, burdina... Behar bada ikonografia horren iker-tzailea da falta zaiguna. Ez dut uste asmatu dugunik. Hori egia da eta horrek etorri behar du. Intimismoa interesgarria da poesian. Baina pentsatzen dut sozial gaietara itzuli beharko dugula berriro. Beste era batera, baina gaiarekin zorretan gaude.

J.A.A. — Hurrengo liburua, Juan Mari, «Muga beroak», ezta?

J.M.L. — Orduan poesia sozialaren eta existentzialismoaren krisia datorkit, irtenbidea gaitza zutelako. Hau da, existentzialismoak nihilismora eramaten zuen. Beraz ez nengoen lasai fedearen aldetik, eta beste planteamendu bat egin beharra neukan. Poesia sozialari, berriz, bikoiztasuna aurkitzen nion: ona-txarra, aurreratua-atzeratua... Nik uste dut gauza sakon bat egiteko ordua heldu zitzaidala. Ez ote ziren azpimarratu behar gizon guztienak diren dimentsioak? Eta hor sartu nintzen, inoren eraginik gabe, «Muga beroak» liburuan. Ura eta sua eta eguratsa eta lurraren ikuspegitik, lau elementu horietatik, gizonaren irakurketa poetikoa egin asmoz. Horrek balio zidan poesia sozialak ahazten zuen edozein gizonentzat: goian

egon, behean egon, pobrea izan, aberatsa izan, zintzoa izan edo ez izan... pixka bat gizonaren alderdi funtsezkoenak lehendabizikoz erabili nuen sinbolismo joera bat poesigintzan.

J.A.A. — Bide horri ekitean bakarrik sentitu al zinen, poesiaren ondare edo sustrai aldetik bakarrik sentitu al zinen?

J.M.L. — Ez, ez, orduan halako erreakzio bat zegoen poesia soziazialaren aurka. Zulaikak, adibidez, orduan atera zuen «Adanen poema amaigabea» hura, eta ohartu nintzen ez nengoela bakarrik, ba-zegoela joera bat: gizona hutsa, gizona biluzik aurkezten zuena, tranparik gabe.

J.A.A.— Ez al du ordukoa Joxe Azurmendik ere bere «Gizona abere hutsa da» hura?

J.M.L.— Bai. Esaten nizun bezala, gizonaren elementu unibertsalak hartu nahi nituen, ura, sua, lurra, eguratsa. Alderdi antropologikotik gehiago du sozialetik baino. Euskal mito zaharrez ere baliatzen naiz, eta oro har literatura zaharretatik.

J.A.A.— Eta «Ilargiaren eskola» liburura iritsi gara.

J.M.L.— Nire hirugarren liburua da. Lehen partean aldaketa handi samarra egiten dut. Poesiaren azterketa forma da. Poesia filosofikoa, edo pentsamolde bat duena, interesgarria da; baina beste zerbaiten bila nenbilen. Eta hor non aurkitzen dudan bidea: zinemaren metaliteratura. Bergman-en «Gritos y susurros» ikusteak benetako inpresioa egin zidan. Artezalea izan naiz beti. Eta zineman ikusten dut, barruko izaera espresatzeko gorpuzkerak duen garrantzia. Horrez gain, loreek, janzkiek, altzariak dagiten jokia... Zergatik ez abiatu poesian gorpuzkeren eta etxe-barruko gauzen mezu eta estetikaren bila, zinemak egiten duen eran?

Gero, irtenbide bila hasita, soluzio zaila ikusten nuen. Eta hiru zati egin nuen gaia. Lehenengo partea, zinemaren deskripzio zuzena da, bertako irudiak jasoz. Gero, hori bera deskripzio hautsitan eta era abstrakto batean eman zitekeela ikusi nuen. Eta azkenik, espiral moduko desarroilo bat osatuz, hirugarrena forma estilizatu ba-

tean burutu nuen. Gaia bera da beti: lehendabizi zinearen irakurketa poetikoa, gero haren bertasio abstraktoa, eta azkenik horren irakurketa herrikoi eta estilizatua. Ikerketa estetiko bat da funtsean. Azpian zera dago: gure komunikabideetan asko esan nahi du gorpuzkerak, janzkerak eta abarrek. Nik giza azpildurak irakurri eta komunikatu nahi nituen zinemako eta arte-gaietako irudietaz baliatuz.

J.A.A.— Eta gaur eguneko ihardunera etorritz, zertan ari zara une honetan?

J.M.L. — Poema bat erdi egina daukat aspaldi honetan. Baina ez daukat girorik horrelako lanetarako. Enkargu asko izaten ditut lanak egiteko. Irakaskuntzak ere denbora asko eramaten dit. Nire adina ere onena ez da poesiarako. Eta ez dut giro egokirik... Erdi egina daukadan poema horrekin beste urrats bat egitea zen asmoa, beste fase batean sartzea.

Une honetan egina daukadana beldurraren estudio bat da. Kobazuloko bizitzak gugan utziriko ispilu ikaratiez mintzo da. Baina bukatu gabeko zerbit da, eta kontrapuntu bat behar du, beldurrean bakarrik geratu ez nadin.

J.A.A. — Poesiaz ari gara etengabe, eta hortik atera gabe, nola ikusten duzu poeta berrien, poeta gazteen iharduna?

J.M.L.— Gaurko poesiak proiektu oso ona du. Baina poesian arazoa ez da proiektua izatea, krokisa alegia, problema da hortik aurrerakoa. Hori da ikuskizun dagoena gazteengan. Hemen bezala bestetan ere, poesian asko baitira hasten direnak eta gutxiago heldutasun batean segitzen dutenak.

J.A.A. — Zer esango zenuke poesiaren irakurgintzaz, irakurleek edo kritikoez poesiari dioten mespretxuaz? Edo mespretxua baino gehiago izan daiteke etsipen giro bat, poesia ez omen da saltzen...

J.M.L. — Gure herria, gure irakaskuntza eta gure kultura ikusita, antzeko lurralde eta gizartetan egin ohi dena egiten da hemen ere. Gero gure poesiak, hartarako denean, kantarien bidez ere beste zabalkunde bat hartzen du. Egia da poesiak kontsumo mugatua



Juan Mari kantari.

duela. Baina ezin utzizko eragina du hizkuntzaren bizitzan: gatza bezala duzu hizkeraren saltsan.

Kritika aipatu duzu, eta momentu honetan euskal kritika hobeto dagoela uste dut aurreko hamarkadetan baino. Kritiko onak badaude. Hala ere, inoiz ez dakizu kritika egiten den edo kritikoen luzimendu bat egiten den. Iritziak oso bat-batean eta zabal botatzen dira eta nik aldiz uste dut iritziak oso zehaztuta eman beharrekoak direla. Ez dago pazientziarik gauzak astiro irakurtzeko.

J.A.A. — Esaguzu zerbait zure kulturgintzaren eta lanbidearen beste ikuspegiez. Zu irakasle zara, bizibidea irakaskuntzatik ateratzen duzu...

J.M.L.— Bada hogeita zortzi urte irakaskuntzan ari naizela. Eta gogozkoa zait: irakaskuntza ofizioa eta bokazioa dut. Orain dela hamar urte unibertsitatean ari naiz. Eta laguntza guztiak izan ditut, gainera, ikastetxearen aldetik.

Irakaskuntzak lan asko ematen dizu. Gogorra da zuk esplikatzeko duzuna jendeari gusta eraztea, baina zuri ere mesede handia egiten dizu lanbide horrek. Irakasten ari zaren unean etortzen zaizkizu se-

kula burutu gabeko gogoetak. Eta gainera, aldi berean literatur inguruan bizi den zirkuitu batean egoten laguntzen dizu. Irakaskuntzak idaztera ere behartzen zaitu, irakasten duzunak idazten duzunaren neurrikoa baitu bere balioa. Ahozkotasanari buruzko azterketetan segitzen dut, eta urtean hiru edo lau estudio idazten ditut, eta noiz-behinka lan zabalagoren bat ere bai.

J.A.A. — Baduzu beste espezialitate oso markatu bat ere: prologista.

J.M.L.— Liburuak aurkeztea egokitzen zait, eta gustura egiten dut gainera lan hori. Dozena t'erdi prologo badituz eginak gutxienik.

J.A.A. — Kritikaren ahulezia aipatu duzu lehentxeago, eta nik esango nuke zuk alor horretan erabiltzen duzun metodoaren zehaztasuna izan daitekeela horretarako antidotorik onena.

J.M.L.— Nik metodo bat erabiltzen dut beti. Berau ez da iritsiko gauza guztietara, baina gauzak zehaztea eskatzen dizu, eta gero irakurleari lagundu egiten zaiola uste du, eta idazleari ere bai. Hori da zerbitzuko kritika. Azkena egin diot Gandiagaren «Elorri» liburuari. Bukatu berria dut. Lan hauetan gehien eskertzen dudana autoreek nirekin hizketatzeko daukaten konfiantza da. Hori metodorako garrantzizkoa da: autoreak ez badu giltzarik ematen, zaila da atea zabaltzea. Maratilak beti autoreak ditu. Zerbitzuko kritika honekin ondorio batzuetara iristen zara. Eta ondorio hauek lagungarri gerta litezke, batez ere irakaskuntza mailan.

J.A.A. — Galdera orokor bat egingo dizut: uste al duzu euskaldunok gaur ezagutzen dugula gure kultur ondarea, edo unibertsitateko zenbait txoko eta elite ttiki batzuetan bakarrik geratzen da?

J.M.L. — Kultur tradizio bat badugu eta ez dakit horri behar bezalako eskerrik ematen zaion. Gutxi batzuentzat hori unibertsitateko liburu eta zokoetan aurkitzen da. Bada hala ere, jende bat ahozko tradizioa jaso duenik. Gehienek, ordea, ez dute erraztasun gehiegirik gure kulturara hurbiltzeko.



Juan Mari irakastaro batean irakasle Oiartzungo Hautzaro ikastolan.

J.A.A. — Baina gure gizarteak dituen komunikabideak arduratzen al dira batere zapaldurik egon den eta ezkuta erazi diguten gure kultur ondarearen zabalkuntzan?

J.M.L. — Ezetz uste dut. Eta ez dakit gainera horretarako metodoa aurkitzerakoan asmatu dugun. Zenbait moda etortzen denean txoko batzuk errekuperatzen ditugu, baina ez dakit asmatu dugun hori oraindik euskal kultura osoarentzako. Hizkuntzalaritza, literatura, historia... bata ezagutzen duenak besteaz ez daki deus askorik. Eta ez dago euskal kulturaren kontzientzia bizirik, oso osoko ikuspegirik.

J.A.A. — Zure osaba zena alde horretatik erraldoi bakarti bat zen.

J.M.L.— Bai, Mitxelena bera ere bai... Gaurko kulturak espezializazioa ekarri du. Baina asko dago egin beharra euskal kultura bera sistematu eta banatze aldetik.

J.A.A.— Anekdota gisa, 1972an, Deustuko Unibertsitatean ikasle euskaltzale talde batek eskatu zuen zerbait, euskal literaturako asignatura bat bederen martxan jartzea. Madrilgo ministeritzatik etorritako erantzuna famatua izan zen: "No hay materia suficiente, aparte de unos cuantos cuentos y chirloras, para organizar una asignatura de ese tipo". Okerrena ez al da geuk ere hala sinesten dugula? Ez jakintasuna, alegia...



Osaba Ramon Lekuona bertsozale eta kantuzalea Juan Marirekin.

J.M.L. — Kultura unibertsala modu askotara ikasi daiteke, baina ez dut uste modurik dagoenik bertakotik hasita ez bada. Ez dut sinemen gehiegi kultura unibertsala aldarrikatzen duten horiengan. Bertako historia, hizkuntza, eta abar ongi ezagutzen badituzu, kanpora joaten zarenean bide handia egina daukazu. Alderantziz gerta baledi, eta halaxe da askotan, hemen airean geratzen zara, bertan ikusten den guztiak ez dizu ezer esaten. Arrotza zara zeure lurrean.

J.A.A. — Geure kultura ongi ezagutzetik kultura unibertsalera-ko urratsaz ari gara. Eta zu, besteak beste, eratu berria den Euskal Itzultzaileen Elkarteko lehendakaria zara. Nola ikusten duzu zure eremu berri hori?

J.M.L.— Herrien arteko lotura egiteko, harreman hori burutzeko, itzulpen lana oso garrantzizkoa da. Batetik guk hor bizi dugun harreman horretan euskarak nondik nora jo bide berriak bereganatzen ditu, euskara bestela bakardadean geldituko bailitzateke.

Baina alderantziz, guk ere askotan geuk uste duguna baino gehiago daukagu kanpokoei eskaintzeko. Hasteko hizkuntza bera: jende asko dator gure hizkuntzaz interesaturik. Tradizioaren alde-

tik ere, oralismoaren aldetik, hemen fenomeno asko dago hemendik kanpora oso garrantzizkotzat hartzen den kulturaren pareko.

Gero gertatzen dena da, urte luzez ia itzulpen plangintzarik ez dugula eduki. Eta orain berriz kolpetik sekulako antolabideak sortu direla. Eta beste gauza bat esango dizut: zaila da gu bizi garen leku honetan euskaraz poeta ona izatea erdaratik poesia ondo itzultzeko gai ez baldin bada. Kanpoko poesia euskaratzeak asko laguntzen du. Narratiban ere berdintsu izango dela iruditzen zait. Harreman sakon batean sartzen bagara, ez dago kolonialismo arriskurik. Kultura ez baita edo nik edo zuk egiten dugun gauza bat, nirea edo zurea, ondare unibertsal bat da. Eta hemen bete-betea sartzen da itzulpengintza.

J.A.A. — Mila esker, Juan Mari, zure hitzengatik... eta zure lanarengatik, noski. Zorionak.

Joxe Auxtin Arrieta



Juanito Aduriz eta Juan Mari Lekuona Oiartzungo plazan.

ENE ESKUA

Tapiz misteriotsu bat daiteke
hala beharraren hariak
betiko parka larriek –
odol ziztaren jostorratzez
bordatua.

Ez du inork ezagutzen
ene gizatasunaren sakona.
neroni ere ezezaguna zait
nigan dudana.

Etan ene eskua
gero eta zimurrago egin ahalean,
garbiago dakusket
neur bizitzaren misterioa:
bakardadean,
eta zergatik naizen,
eta zeinentzat naizen
jakin gabe,
azkenean
eskuok uraundituko zaizkidan
tximu bilutsa.
Diodan garbi:
Askoz gehiago
eta hau hutsa.

(Donostian, urrila, 1975)



Juan Mari Lekuona Deustuko Unibertsitatearen Donostiako campusean (EUTG), 1993an.

X EPILOGOA

Lourdes Otaegi

Juan Mari Lekuona 2005eko abenduan hil zenean, Literatura Ikerketa Batzordeko buruak Jean Haritschelharrek proposamena luzatu zigun kide guztioi haren omenezko liburu bat prestatzeko. Oiartzungo udalarekin batean ateratzea gogoratu zitzaigun berehala eta herri horretan aurkeztea, jakinik asmo honek babes osoa aurkituko zuela bere herritarren artean. Ezer baino lehen, Juan Mari Lekuonaren nortasunari eta obrari hurbileko erretratu gisakoak ateratzea hartu genuen gogoan, hil ondoko egunetan entzun eta irakurritakoak islatzea. Une hartako testigantza gordetzea genuen xedea: haren nortasunaren eta bizitzaren zenbait alderdi ezagutzeko bidea eskaintzea eta hausnarketa egitea bere idazlanei eta ikerketei buruz. Horretarako egin zitzairen gomita Batzordetik Xabier Lete, Angel Lertxundi eta Pello Esnali, haren irudiaren alderdi jakingarriak eta pertsonalak idatz zitzaizen, batzordekook egingo genuenaren ezinbesteko osagarritzat.

Orduz gero, hiru urte beteko dira laster, eta tarte horretan, lanok eskatu, bildu eta zuzentzen niharduela, batzuekin eta besteekin hitz eginda, idatzizko lekukotzez gain, argazki bilduma esanguratsua osatzeko parada ikusi nuen, omenezko liburu hau oroigarri sorta zabalaz hornitzeko aukera ezinhobeia, izan ere, Juan Mariren ibilbide pertsonalak euskal kulturaren estrata estu nahiz ikaskuntza unibertsalaren errepideak oinkatu dituenaz, irudi sorta askotarikoa utzi digu. Argazkiok erreparatzea, Oiartzungo Lekuona-Berasategitarren artean sortu zela xehetasunez gogoratzea da,

Arizmendiarrjeta eta Iñarra apaizen artean hazi zela Arrasaten eta Manuel Lekuona nahiz Joxemiel Barandiaranen ondoan ikasi zuela, gero Erroman edota Lisboan Teologia eta Mistika ikasketetan sasko duela eta gai horretantxe doktoratu zela 1966an. Prestakuntza hori, euskal kulturarentzat ekarpen literario bihurtzea ezinbestekoa zuen, -poeta baitzen- eta bere ikasketa, ikerketa eta zaletasun horiek elaboratzea eta zabaltzea izan zen bere ardura, hitzaldi, ikastaro eta eskola argazkien sail zabalak testigantza ematen duen moduan. Ikasle, irakurle eta entzule belaunaldi askorentzat suspergarri bilakatu zituen eskuzabaltasunez berak ikasiak edota ikertuak. Liburu hau bera da horren lekuko garbia eta partaide garen guztiok zor diogun omenaldia, on eginaren esker-emate moduko bat.

Liburuaren egituraketan, amaierarako poema bat hautatu nuen, bere buruaz hausnarketa egiten zuena "Nire eskua". *Ilargiaren eskolan* liburuaz zabaltu nuen eta azal ilunaren ostean, berak eginiko eskaintzarekin egin nuen topo berehala, dagoeneko apur bat horixka zen lehen orriko goi eskuin bazterrean: *1981eko lan jardunaldi batzuen oroigarri* ematen zidala dio bertan sinaduraren gainean. Juan Marik Unibertsitateko Filologia Fakultatean herri lirika eta antzertia irakasteaz gain, gure garaiko poeten testuak ere komentatzen zituen, horregatik, errebalidarako ikasgaiak prestatzeko zereginetan genbiltzala, gudaosteko poesiaz lan bat egitea egokitu zitzaidanean, laguntza eske joan nintzaion.

Ordurako bi ikasturte eta zenbait ikastaro eginak nituen berarekin; ezagutzen ninduen, nik uste, baina beste asko bezala, klasean ikusi eta azterketetatik. Horregatik, lan-saio hartan hasterakoan, ustekabean harrapatu ninduen nire idazlan bat ezagutzen zuela adierazi zidanean. Susaren lehen alean argitaraturiko iruzkin kritiko lotsagabetxo baten berri bazuen: Atxagaren *Etiopia* zen aztergaia eta akronimo batez sinaturik atera genuen lagun batek eta biok. Hortik nire harridura. Aldizkari literario sortuberri batean idatziriko iruzkin baten egile ezkuak nor ziren ikertzeko ahalegina egin zuen nonbait Juan Marik. Atxagaren liburuaz ere ongi ezagutzen zuen, nabaritzen zuen haren balioa, orduan nik suma ez nitzakeen

alderdiak nabarmentzen zituen berak. Horretatik igar daiteke zenbateraino jarraitzen zituen gertutik euskal literaturak ematen zituen urrats-pauso txikienak ere.

Nolanahi ere, gudaosteko lehen poesia genuen aztergai eta erredakzioa behin eta berriro txukunduta, azken bertsioa ontzat ematera joan nintzen. Despeditzerakoan, bere azken liburua, *Ilargiaren eskolan* eman zidan eskura, sinadura eta guzti. Juan Mariren eskaintzari halako nobletasun bat zerion, esaten zaila den duintasun bat; naturala eta artifiziorik gabea zen bere keinua, zera esan nahiko balu bezala, *asko dut esateko baina nire hitzak baino hobeki mintzatuko da liburu hau nire partez*. Eta gestu sotil konfidantzazkoak eskaintza hura ezin aberatsagoa bihurtzen zuen niretzat. Berak igarri bezala, irakurri gabea nuen 1979ko bere liburu hura, *Etiopiaren* ia urte berekoa zen arren; izan ere gure lagun arteko irakurketa gomendioak beste bide batetik baitzebiltzan orduan. Orduz gero ezagutu dut hobeto Juan Mariren literatura, osoki estimatzeraino. Azaletik barrenago, sentimenduak azal-azalean eta arrazoinamendua erne eskatzen duen horietakoa baita, elaborazio handikoa.

Liburu honetarako hautaturiko poemok idazleonek hitzen harira zetozelakoan hautatuak dira eta gehienak "Nire olerki eta kantak" izenez osatu zuen koaderno pertsonal batetik hartutako bertsioak. Erroman (1965-66) eta Donostian (1975-76) eginiko egonaldietan osaturikoak dira hor bildutakoak, baina azken aldera erantsiak ditu beste zenbait orri. Koaderno horren amaieran daude itsatsita Oiarzungo Putxutxa-errekan izandako suteari jarritako bertsioak. Benetan da jakingarria orriaren amaieran erantsi zuen oharra, aditzera emanez noizkoak diren eta noiz landuak: 1946an jarriak eta 2004an aldatuak koaderno horretara. Ez zituen agidanean sekula eskutik utzi!

Atarirako *Eskua* 2 poemaren azken atala hautatu dut beraz, eta, epilogo honen aurretik, haren amaiera, bigarren atala erantsi dut. Eskuen psikologia ikertzen duen poema sail batean sartua da *Ilargiaren eskolan* liburuan eta emakumearen eskuari eskainiriko poema-

ren ostean kokatua dago. Nik esan beharko banu, bere nortasunaren klabe batzuk iradokitzen ditu *Nire eskua* poema honek. Alde batetik, liburuko bertsiokoa ez bezalakoa da bere dokumentuen artean gorde den beste bertsiokoa hau: "Nire olerki eta kantak" koadernotik liburu honen orrietara ekarri duguna. Liburukoa baino zaharagoa da, *Ilargiaren eskolan* liburuko eskuen sailean sartu baino lau urte lehenagokoa. *Ene eskua* izenburuaren azpian, honela dio "E. Txillidaren litografiak gogoan". Liburuan aldiz, poemaren eskaintza Gabriel Arestirentzat da eta poesia hizkeran harekiko duen zorren adierazle bihurtzen da. Horra beraz, emanak bere poemaren irudien eta espresio mintzairaren garai hartako bi hari nagusiak: Txillidaren estetika eta Arestiren mintzaira poetikoa. Era berean, ondo baino hobeto ematen du aditzera poema horretan bere izpiritu naturala eta itxurakeria gabea. Haren nortasunaren alderdi adierazgarriak islatzen ditu, liburu honetan zehar autore batzuek eta besteek agertu dituzten zertzelada argigarrien eta oritzapenen ildo berekoa.

Azkenik, Lekuonaren bilaketa formal eta existentzialaren lekuko da gisa berean poema hori, galdetzen dihardu beti, eramapenik galdu gabe. Misterio argiezin bati buruz ikerketan, bere eta gizaki ororen izatearen zentzuaren itauna mamitzen da bere poesian: *bakardadean eta zergatik naizen eta norentzat naizen jakin gabe*. Bere bizi guziko egarrien eta galderen erantzuna hutsa, ezereza, iluntasuna soilik izateko posibilitateari ere ez dio ukorik egiten: bere hausnarketa astitsuetan aztertutik aukeren artean dago hori ere. Halabaina, bere egarriaren asegarria bilatu zuen eten gabe, gizakia *tximu biluzia* baino askoz gehiago zela pentsatzen zuen eta.

1975an idatzi zuen poema da *Nire eskua*. 1979ko liburuko azken bertsiokoa aldaketa adierazgarria egin zuen, parentesi artean jarria. Esateko moldea bera ere ongi espresiboa da nire ustez, parentesiak esanari komentario pertsonal bat eransten dio, barnetik ateratzen zaion sentimendua adierazten du esklamazioak eta iritzi irekitasuna, dogmakeriarik eza islatzen dute *agian*-en ondoko hiru puntuek:

Azkenean
Eskuok urandituko zaizkidan
Tximu bilutsa.
Diodan garbi:
Askoz gehiago
(*nik uste!*);
Eta hau hutsa
(*agian....*).





Hona, beraz, *Errota zabar maitea* kantuaeren egile sentiberari eskainitako liburua, testu, argazki, irudi eta oroitzapenen bidez senide eta lagunaren artean osatu dugun hurbileko erretratu bilduma. Omenaldi xumea euskal kultura antzinakoaren galeraren mindurak bizi osoan zauritu zuen bihotz hari, *errotaren oiuz maluraz* zenari. Baina barne-mindura eta guzti, nostalgiaren *trankan* geratu gabe etorkizuneko euskal kulturaren alde lehiatu zen izpiritua izan zuela ospatzen dugu batez ere, Erromako iturri, pinu eta obelisko segailak bezala *ez nago amur emateko..!* esanez bizi nahiaren deiari erantzunez beti.

Lourdes Otaegi

Literatura Ikerketa Batzordeko idazkaria
Donostia, 2008ko ekainak 25



Juan Mari eta Lourdes Otaegi P. Lafitteren omenezko Euskaltzaindiaren XV. Biltzarrean. Baionako fakultatean (2003-09-21).



Juan Mari Lekuonaren poesia liburuak.

XI

JUAN MARI LEKUONAREN BIBLIOGRAFIA

Lourdes Otaegi Imaz

POETIKA

- (1983) LEKUONA, Juan Mari, "Ene mundu estetikoaz", Labayrun emandako hitzaldia (liburu honetan argitaratua).
- (1986) LEKUONA, Juan Mari, "Temas y estructuras", *El estado de las poesías, Los cuadernos del Norte*, Caja de Ahorros de Asturias, Oviedo, 139-142.
- (1994) LEKUONA, Juan Mari, "Acotaciones", *El territorio de las letras*, Catedra/Ministerio de Cultura, Madrid, 99-104.
- (1996) LEKUONA, Juan Mari, "Neure poetikari buruz", *Ibilia*, EHU, Gasteiz, 10-57. Idazlan honetan biltzen ditu aurreko urteetan eginiko hiru poetika-formulazioak, izenburuek adierazten duten gisan:
- "Poetika baten bilakabidea eta azpiko hariak/Trayectoria y trama de una poética" *Ibilia*, 10-45.
 - "Gaiak eta egiturak/Temas y estructuras", 46-51.
 - "Mugarriak/Acotaciones", 52-57.

ELKARRIZKETAK

- (1987) LANDA, Josu, "Juan Mari Lekuona: Hemengo progresoa, asko eta asko itzulpenetik egin da", *Argia*, 1987-IV-5, 47-51.
- (1988) ARRIETA, Joxe Auxtin, "Juan Mari Lekuonarekin solasean" *Oiartzun*, 7-12. /Berrargitaratua (ez osorik), Zabalik, *El Diario Vasco*, 1988-X-12, 4.

- (1990) OIZ, Jon, "Ezinezkoa dut aldian aldiko poesiarik egitea", *Argia*, 1295, 1990-VI-10, 49.
- (1996) BERASALUZE, Garikoitz, "Poetak tradizioaren bitartekaria izan behar du", *Egunkaria*, 1996-IV-28, 30-31.
- (2001) CALVO ELIZASU, Lupe, "Alde guztietatik poesia zerion pertsona", *El País*, 2001-III-5.

BIDEO GRABAZIOAK

- (1986) *Nire obraz* hitzaldiaren grabazioa. Kutxaren artxibategia.
